


AGUSTIN P. U. ITURRIAGA

I P U I A K



AUSPOA LIBURUTEGIA

IPUIAK

AUSPOA LIBURUTEGUIA
71-72

COLECCION AUSPOA

Administración: **Plaza de Santa María, 2 - Tolosa**
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612

Dirección literaria: **Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.**
Colegio de S. Ignacio. Ategorrieta.—San Sebastián

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 280 pezeta Atzerrian: 380 pezeta
Ongilleak: 500 " Ale bakarra: 35 "

AGUSTIN P. U. ITURRIAGA

IPUIAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

1967

- Lenengo argitaraldia: "SAN SEBASTIAN — En la imprenta de Ignacio Ramon Baroja—Año 1842".
- Bigarren argitaraldia: "Tolosan — Eusebio Lopez-en moldiztegian, 1884'garren urtean".
- Irugarren argitaraldia: "*Euskaltzaleak*, Tolosa'n, 1932 Lopez Mendizabal'dar Ixaka'ren etxean".
- Laugarren argitaraldia: "Auspoa Liburutegia", 71-72, 1967, Tolosa.

Depósito Legal S. S. 869/67

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
Bernardo Jaunari	15
Euskal-Erriko gazteriari	16
Azeria eta olloa	18
Txakur biak	20
Errementaria eta zakurra	22
Katu biak	26
Itz-ontzia	29
Otsoa eta arkomea	32
Etxe-arratoia eta soro-arratoia	34
Esne-saltzalea	39
Astoa eta txerria	41
Berritsua	45
Abereak izurriarekin	48
Txitxarra eta txingurria	54
Igelak errege eskatzen	57
Asto buru-gogorra	62
Belea eta azeria	65
Ollarra eta azeria	69
Auntzak eta akerrak	72
Leoia eta tximuak	75
Euliak	78
Sugea eta nekazaria	79
Arrantzalea eta arraia	81
Leoia zarrez iltzen	83
Artzaia eta ardiak	84
Otsoa eta zigoña	86
Txoarrea eta erbia	88
Iturriko oriña	89

Sugea eta lima	92
Adiskide bi eta artza	93
Arkumea eta otsoa	94
Urdalla eta beste gorputzaren parteak	96
Jakintsua eta nekazaria	99
Txangurruak	103
Aita bere semeakin	104
Anton etxe-galgarria	107
Arratoi eta saguen batzarrea	109
Atsoa eta arkakosoa	112
Astoa eta igelak	116
Astoa eta txakurra	120
Erliki-dun astoa	123
Leoia eta astoa	124
Tximua lotsaturik	126
Jupiter eta astoa	128
Mediku itz-ontzia eta eria	130
Mando zamatuak	133
Azeria eta matsak	135
Leoia eta arratoia	136
Otsoa eta Artzanora	138
Mendia aurgiten	141
Aizkora eta kirtena	143
Erbiak eta igelak	145
Leoia eta akerra	146
Txaberama eta arranoa	148
Asto leoi-larruz jantzia	150
Oriña eta aiena	152
Eiztaria eta zakurra	154
Bada Jaungoiko bat	156
Gauzarik txikienetan da aundiena Jaungoikoa	161
Kutuna	164
Artzai-Koplak	175
Koplarien tema Palemon juez dutela	185
San Inazioaren martxa	201
Ezpata-Dantza	204
Gipuzkoarrak	206
Testamentuko Gertaerak	215
Sakristau zar baten deabrukeria	250
Zenbait ipuiren beste era bat	254
Iztegia	265

ITZAURREA

Irakurleak ondo asko dakianez, Agustin Iturriaga apaiz jauna (1) Ernani'n jaio zan, 1778/I/31'an, eta bertan il zan, 1851/III/30'an. Bere bizi guzia jaioterrian egin zuan, bi denbora-aldietan izan ezik. Ta beti, edo geien-bat beintzat, maixu-lanetan jardun zan.

Aren bizitzaren txeetasunen berri emen ematen astea, alperrikako lana litzake. Euskaldun euskaltzale diranetan, iñor gutxi izango da orren bearrik duanik. Eta ez genduke egingo, bestek esana berriro esatea baizik. Orregatik, itzaurre onek ez du, nik uste, liburua zer-nolatan osatua dan adieraztea beste eginkizunik izan bear.

Iturriaga'ren ipuiak, 1842 urtean atera zi-

(1) Berez, izenak Agustin Inazio Maria zituan, eta deiturak, berriz, "Pascual Ugalde Ituriaga Amitesarove". Ez dakigu zergatik bere denbora guzian irugarrena erabilli zuan.

ran lenengo argitara, Donostia'n, Inazio Ramon Baroja'ren moldiztegian. Bañan bertso-ipui ez-ezik, badu besterik ere liburu onek: *Bada Jaungoiko bat, Gauzarik txikienetan da aundiena Jaungoikoa, Kutuna, Artzai-koplak*, Virgilio'ren lenengo ta irugarrengo eglogen itzulpena, *San Inazio'ren martxa, Ezpata-Dantza*, —auek guziak bertsoetan—, eta, azkenik, euskera-erderako iztegi bat.

Iturriaga il ta ogei ta amar bat urtera, Donostia'ko Jose Manterola jauna, aren eskuz-idatzien billa asi zan. Ta ez alperrik. Orra nola dion berak, *Cancionero Vasco* deritzaion bere liburuan (*serie III*):

“...habiéndome dirigido con este objeto a mi estimable amigo D. Segundo Berasategui, cuyo Sr. padre fue uno de los testamentarios del Sr. Iturriaga, y el que heredó toda su librería, he tenido la fortuna de ver entre mis manos la colección original de sus *Fábulas*, de puño y letra del autor, que conservaba en unión de otros libros, el citado Berasategui.”

Manterola'k onela jarraitzen du:

“...cotejándola a la par con la impresa en 1842, me he encontrado con algunas diferencias...”

En primer término, y a la cabeza de esta colección, precede la dedicatoria *A la juven-*

tud de la Euskal-Erria (Euskal-Erriko Gazteriari), que aparece en la edición impresa, otra dedicatoria particular, también en verso, cuya reproducción juzgo curiosa y oportuna. Dice así:...

Eskeintza au, ipuiak nola egiñak diran adierazten baitu, ta eskuz-idatzietan, itzaurre-gisa, aurren-aurrena baitzegoan, guk ere liburu ontan aurreneko tokian jarri degu.

Ondoren, onela dio Manterola'k:

“Siguen a la dedicatoria las *cuarenta y nueve* fábulas que aparecen en la colección impresa, en la mayor parte de las cuales he notado algunas variantes de más o menos importancia, encontrándome además, entre las antiguas, con seis fábulas *inéditas*, que aparecen con los títulos de *Erbiak eta igelak*, *Leoia eta akerra*, *Txaberama eta arranoa*, *Asto leoi-larruz jantzia*, *Oriña eta aiena* y *Eiztaria eta zakurra*, todas las cuales tengo el gusto de incluir a continuación, dándolas a luz por vez primera.”

Auek, dagokien tokia ori dalakoan, beste ipuien atzetik jarri ditugu liburu onetan.

Ona emen, berriro, Manterola'ren itza:

“Las tres últimas fábulas que aparecen en la edición impresa, *Otsoa eta artzanora*, *Mendia aurgiten*, *Aizkora eta kirtena*, se muestran en los originales de Iturriaga, con va-

riantes un poco notables, y aun escritas en distinto metro, por cuya razón juzgo su reproducción de interés en este lugar, para que los aficionados a trabajos de esta índole puedan conocerlas y cotejarlas.”

Bigarrengo era auek, liburuaren bukaeran jarri ditugu.

Donostia'ko Gregorio Mujika jaunak ere ikusi zituan Iturriaga'ren eskuz-idtziak. Ala esaten du, *Ernani'ar Ospetsuak* deritzaion bere liburu batean. Ta zenbait ipui beste moduz zeudela ikusi zuan. Beste era auek, bere liburu ortan argitaratu zituan. Ta ontatik artuta, guk ere emen jarri ditugu, liburuaren bukaeran, len esan degun bezela.

Penagarria da Mujika'k eskuz-idatzi oiek nun ikusi zituan ez esatea. Seguru asko, Manterola'k ikusi zuana izango zan. Bañan, gaur egunean, ez dakigu batere, guk beintzat, eskuz-idatzi ori nun dan, zeñek daukan, edo... betiko galdua dan.

Ortaz gañera, Mujika'k, Iturriaga'ren eskuz idatzietatik artuta, beste lau bertso-sail argitaratu zituan, dalako bere liburu orretan: *Gipuzkoarrak*, *Jolasak*, *Testamentuko Gertae-rak* eta *Ezkontza*. Auek danak, liburu onen bukaera-aldean arkituko ditu irakurleak.

Jolasak deritzaiona, esan bezela bertsoan bada ere, Iturriaga'k itz-lauz eta izenburu

berarekin 1842 urtean argitaratu zuan lanaren senide da. Orregatik, biak batera publikatu zituan Auspoa Liburutegiak, bere 25'garren ale edo zenbakian.

Bertso-jolas auek izan ezik, Iturriaga'ren ezagutzen diran bertso-sail guziak liburu ontan dijoaz, beraz. Orregatik, liburu au ez da Iturriaga'ren bertsoen bilduma baizik; aren bertsoekin egin dan lenengo bilduma, eta guk al izan degun osoena noski.

1842 urteko argitaraldiaren bukaeran iztegitxo bat jarri zuan Iturriaga'k, bere liburu-ko itz zailtxoen azalgarri. Guk ere liburuaren bukaeran ipiñi degu. Bañan Iturriaga'k garai artako ortografiaz ordenatu zituan itzak. Ta oraingo ortografiara aldatzeak, naste aundia sortuko luke. Orra, adibidez, letra bakar batekin zer gertatuko litzaken: Iturriaga'k *c* letran sartzen dituan itzak, batzuk *z* letrara ta besteak *k* letrara berezi bear genituzke.

Orregatik, dagoan ortografiarekin uztea erabaki degu. Irakurleak, itz baten esan-naia begiratzen asi baño leen, itz ori antziñako ortografiaz nola idazten zan pentsatu bearko du. Au egitea lana izango bada ere, iztegia argitara bearra zegoan: Iturriaga'ren itz asko gaur gutxitxo erabiltzen baitira, ta ego-ki bailitzake berriro plazara ekartzea.

Manterola'k dionez, iztegi au baño ugarriagoa omen zan Iturriaga'k bere eskuz-idaztietan utzi zuana. Bañan ez Manterola'k, eta ez Mujika'k, etziguten iztegi ori argitara eman.

BERNARDO JAUNARI

Arkangoitzko Jauregiko seme, Iriburuko
Alkate, Baionako batzarre andian esertzen
dan Bernardo Jaunari:

Bernat, joan dan neguan,
biok geundenean
ederki apaldurik
suaren aldean,
egin oi zenduen maiz
eztanda irriaz,
ipui oiek arturik,
zuk irakurriaz.
Nola zerez bait-dezu
belarria fiña,
eta gustoa berriz
da gauza jakiña,
bein baño geiagotan
zure esanakiñ
ipui oiek berriro
oi nituen egiñ.
Ala, onak badira,
zuri zaizkitzu zor,
ez dute, ez, zu beste
jaberika iñor;
egiten dizut bada
beren eskaña,
faltarik badute da
nerea guztia.

Gañera nik izanik
zu adiskidea,
besteri ez liteke
eder eskaintzea.
Bernat, zuk eskañi au
artzen badirazu,
txit mesede andi bat
egingo dirazu,
zeren len adiskide
andiak bagera,
gero andiagoak
gu izango gera.

EUSKAL-ERRIKO GAZTERIARI

Nere Euskal-Erriko
gazteri ederra,
ez det uste derala
egin lan alferra,
ipuiak ifintzean
gure zortzikoan,
kantatzeko, nai bada,
arturik gogoan.
Badirade latiñez,
badira erderaz;
ez al ditugu bear
guk ere euskaraz?
Bai, on da jakitea
lengo denboretan

txit omen zekikela
ederki itzketan
txakur eta katuak,
auntzak, azeriak,
itz batean, orduko
abere guztiak.
Ala dio Esopok;
gizon egitia
ote zan, ez dakit nik,
edo gezurtia;
baña ez da dudarik
zala txit txikia,
bizkar makurra eta
jakintsun andia;
eta lendabiziko
onen mesedeak
mintzarazo zituen
ederki abereak.
Aditurika oien
jardun-erausiak,
egingo dituzute
askotan irriak;
esango ere dezute
egĩnika farra:
“Ez uen orregatik
jende ura narra!”
Ipuien akaballan
dauden sententziak,
agiri da dirala
egia andiak;

eta, sartzen badira
zuen biotzetan,
damutuko ez zazute
zeren egunetan.
Orra Esopo jaunak
nai duen saria,
eta orra nik ere
nai dedan guzia.

AZERIA ETA OLLOA

Azeri zar andi bat,
gosaldu gabea,
zebillen sasiz sasi
errabiz betea;
illuntzera zijoan,
eta mokadurik
jan gabe arkitzen zan
gaisoa oraindik.
Olo batek kakaraz
egiñik onetan,
an dijoa lasterka
lau oñen puntetan;
ozta ollotegira
alderatutzen zan,
ollo guztiak iges
an dijoaz egan;
bakarrik gelditu zan
otarre batean

kolka arkitzen zan bat
arraultzen gañean.
Aldamenetik zaio
azeria asten
kolkari belarrira
onela esaten:
“Zer da ori, maitea?
Kioa al dezu?
Edo arraultz egiten
zaude orrela zu?
Atera bear nazu
kezka onetatik;
nola arkitzen zeran
jakin nai nuke nik.”
“Jauna —dio olloak—,
arkitzen naiz gaizki;
aienatzen bazera
jarriko naiz ongi.”
Zenbati, nola gauden
galde egitean,
ez diegu esaten
geren barrenean
azeriari esan
ziona olloak,
miñez zeukan orduan
saskian kioak?

TXAKUR BIAK

Sultan zan zakur ausart
gutzizko jalea,
batez ere ariki
gizenen zalea.
Ister andi lodi bat
bein, uste-kabea,
nagusiari zion
ostu bere etxean.
Pinto, aren laguna,
ez jale txikia,
zokoz zoko zebillen,
galdurik guztia,
Sultanen billa, eta
sukal-bazterrean
noizbait topatu zuen
etziñik lurrean,
ari-isterra jaten
alegin guztian,
arturika aurreko
bi oñen erdian.
Beldurrez ez ziola
utziko pakean,
marmar asi zan Sultan
Pinto ikustean,
begiak armaturik,
jasorik sudurra,
letagiñaz puskatzen
zuela ezurra.

Pinto asitzen zaio
bertatik galdetzen:
“Zer deaurrukeria
ari aiz egiten?
Zeñek burutara dik
etxe-mot onetan
astea orren fresko,
Pinto, lapurretan?
Ez aiz oroitzen zenbat
nausiak nai digun?
gurekin dabillela
jostatzen gau t’egun?
Ez duela beñere
jaten mokadurik,
aurrena gu bioi
eman gabetanik?
Nausiari diozkak
ematen eskerrak,
despensatik ostuaz
arien isterrak?
Onelako pagurik
ez dik ark merezi;
bertatika bear dek
ister ori utzi.
Zakurrak izan baik
leiala, prestua,
edo ez dek zakurra.
baizika katua.”
“Bertatik segitzeko
ire konsejua,

zeña ikusten diat
 dala txit justua,
 Pinto —dio Sultaneke—,
 galdetxo bat iri
 egin beaiat orain;
 esan zadak niri:
 baldin ari-ister au
 utzitzen badet nik,
 Pinto, nere maitea,
 ez al dek jango ik?"
 Besteri konsejua
 nai dionak eman,
 lenaz ikusi baik
 bera premian dan. (1)

ERREMENTARIA ETA ZAKURRA

Errementari batek,
 kanpora joatean,
 etxe-zai uzten zuen
 zakurra atean.
 Egun batez lapurrak
 dirua kutxatik
 ostu zuten, sarturik
 atzeko aldetik.
 Oartu zan orduan
 errementaria

(1) Ikus ipui onen beste era bat, liburuaren bukaeran.

falta zala etxean
zan diru guztia,
burua galdu eta,
arturik makilla,
etxe guztitik dabill
zakurraren billa.
“Atorkit onontz, Turko!”
oju egiten dio;
zakurra ixill-ixill
badijoakio,
guztia beldurturik,
belarriak bean,
burua makur eta
buztana anka-pean.
“Turko —esaten dio—,
zertarako aut nik?
ez diok etxeari
egiten konturik;
malluen otsak ez au
beñere esnatzen,
plater-soñuak berriz
laster au ernaitzen;
lanari utzi eta
ni jaten astean,
falta gabe an aukat
zut aldamenean.
Ez dek iñoiz ikusi
nere sutegia,
maiean ikusten dek
ire nagusia;

uste dek noski, Turko,
aizela kondea,
orrela bizitzeko
ase ta betea,
beti etziñ eta lo,
altxa gabetanik,
sukaldera joan eta
asetzeko baizik?”
Itz oien ondotika,
Turkok, ikustean
nausiaren makilla
zuela gañean,
iges egin ondoren
aurreko atetik,
ojuka asten zaio
burua jasorik:
“Zer du geiago, Jauna,
nik baño kondeak?
Nik bezin ongi daki
bere mesedeak
sortzetik dakarrela
nork bere patua,
naiz dala zakurra ta
naiz dala katua;
ez zituen zakurrak
egin Jaungoikoak
lanean aritzeko,
baizikan astoak.”
Nausiak, ikusirik
burua ain gora,

beldurrez ez zekion
saltatu lepora,
erantzun bide zion
modu onarekin:
“Ez det nai, konde jauna,
nik jardun zurekin;
oiek guztiak dira
zure erausiak,
akabatu ditzagun
gaur gure auziak.
Zuk badakizu dala
etxe au nerea,
eta nai det emendik
kanpora joatea.
On da ikus dezazun,
Turkotxo, gaur bertan
nola bizi diraden
beste etxeetan.”
Ikusirik zakurrak
ala despeditzen,
asten da emen sartu
eta andik irten,
ez du Turkok gustoko
etxerik topatzen:
an erabilli beau
tornu-burruntzia,
erretzeko arentzat
ez dan arikia;
emen itxu-aurreko
da aren jarduna,

beti barau, ez dezan
galdu osasuna;
azkenik beste etxe
aberats batean
gau t'egun an daukate
loturik katean.
Onela ikusten du
dirala laratzak,
errian diran etxe
guztietan, beltzak,
eta lan egiteko
gure Jaungoikoak
guztiok gaituela
egiten astoak. (1)

KATU BIAK

Etxe andi batean
zituzten katu bi,
bata Zapiron eta
bestea Misipi.
Biak zeuden gizenez
lertzeko zorian;
nork beste alako bi
arkitu errian?
Maitatuak ziraden
etxean biziro,

(1) Ikus ipui onen beste era bat, liburuaren bu-
kaeran.

aien bizia oi zan
jan, josta eta lo.
Beti uzten zituzten
bi katu prestuak
pakean arratoiak,
pakean saguak.
Samurregia zuten
gaisoak biotza,
aiei emateko
zarpaz eriotza.
Goiz batean zeudela
eltzeen ondoan,
lurrean etziñika,
lo gozo-gozoan,
abarrots batek ditu
batetan esnatzen,
eta aurrera dute
biak begiratzen;
ikusten dute suan
tornu-burruntzia,
eta artan jiraka
kapoi bat andia.
Erasotzen diote
biak kapoiari,
eta dirade jaten
atzaparka ari,
begiak armaturik
eta marmarraraz,
buztana arontz-onontz
maiz erabilliaz.

Ikustekoak ziran
bat eta bestea,
tantaka kokotzetik
jarioz koipea.
Jan zituzten orduan
mamiak, ezurrak,
baita ere garbitu
mingañaz sudurrak.
Misipik omen zion
esan Zapironi:
“Gauza bat orain zaidak
gogoratu niri:
jan degun ezkerotik
kapoitzar guztia,
jan dezagun lasterka
orain buruntzia.”
“Ago ixillik, mutil
—dio Zapironek—,
kontzientzia ori
egiteko non dek?”
Erantzun omen zion
irriaz Misipik:
“Astoa, errepañak
zer dion ez dakik?
Kontzientziaraño
etorri ezkerro,
mandoa nerea dek,
gerokoa gero.”
Zapironek, entzunik
zer zion Misipik,

“Jan zak, nai badek! —dio—;
ez diat jango nik!”
Zenbat ez ote dira
kristaben artean
eskrupuloz beteak
ezin dutenean,
eta besteen gauzaz
eskrupulo gabe
egiten diradenak,
al badute, jabe?

ITZ-ONTZIA

Parisen eta beste
erri aundietan
ikusi oi dirade
asko karriketan,
egunaz eta gabaz,
gizon itz-ontziak,
jendez inguraturik
daudela guztiak.
Batek an egiten du
artzaren orrua,
besteak or gabazko
ontzaren kantua;
azkenik beste batek
arpegi berean
farra eta negarra
denbora berean,

erakusten duela
arpegia, ziñez,
alde batetik farrez,
bestetik negarrez.
Aien artean zan bat
txikiratzallea,
guztien gain-gañeko
gurrinka-gillea.
Txit jende asko zeukan
karrika-buruan,
soak zabaldurik,
bere inguruan.
Kapa andi batean
zegoan bildurik,
bultzaka, ezin leku
iñolaz egiñik.
Oju egiten zioten:
“Fuera, fuera kapa!”,
beldurrez zezakean
zerbait ala tapa.
Kapa kendu ondoren
gurrink egiten du,
aiñ ongi non jendea
algaraz lertzen du.
Asten da bereala
gurrinkari abilla,
txapela luzaturik,
bertan diru-billa,
eta mutiko batek
dioke esaten

jokatuko diola
gurrinka egiten.
Apostura egiñik,
biak dira asten
karrikaren erdian
gurrinkak egiten.
Aditu zutenean
txikiratzallea,
oju egiten dute:
“Len baño obea!”
Eta, aditurika
gero mutikoa,
“Fuera, fuera!” esanaz
jendea an dijoa.
Galtzarbe-sare bat du
mutillak agertzen,
eta txerrikume bat
die erakusten,
esaten dielarik:
“Tximurtxi batekin,
ez nik, mutiko onek
dik gurrinka egin.
Zuek diozutenez,
txikiratzalleak
egin dizkik gurrinkak
onek baño obeak.
Erriak bazinduzte
zuek buru-zagi,
ez uke justizia
ibilliko gaizki!”

OTSOA ETA ARKUMEA

Arkume bat joan zan bein
erreka batera,
egarritu zalako,
ura edatera;
irteten da otso bat
aurreko menditik,
jartzen zaio edaten
garaiko aldetik.

Bildotxa zegoan txit
mardul, biribilla;
asko ibiltzen gera
alakoen billa.

Asten zaio otsoa
ojuka esaten:

“Mutil, zertan ari aiz
ur guztia loitzen?”

“Jauna —dio bildotxak—,
naita ere, urik
ezin zikin nezake
nik beko aldetik;
ikus beza berorrek,
baldin badu gura,
or goitik emen bera
datorrela ura.”

“Ala dek —dio—, baña
oraintxe urte bi
zikindu idan arras
ura emen niri.”

Nola izan diteke

—arkumeak dio—
baldin orain urte bi
ez banintzan jaio?”
“Arrazoi dek —otsoak
dio erantzuten—;
oraintxe asitzen nak
kontuan erorten;
ire anaia uen,
bai, ire anaia;
oroitzen nak ni zala
egun ura jaia.”
“Ez da —dio bildotxak—
orrelako gauzik:
ez det, jauna, nik izan
sekulan anairik.”
“Ire amak orrela
bear zian izan”
erantzunaz, otsoa
lasterka asi zan
bildotxaren ondotik,
ta nai zuzen egin
milla puska gaisoa
lau letagiñakin.
Eltzera zijoala,
bertan da azaltzen
eiztari bat, eta du
bi balaz pasatzen.
Onela kendu zizkan
gure Jaungoikoak
otsoari bildotxa
jateko gogoak.

ETXE-ARRATOIA ETA SORO-ARRATOIA

Soro-arratoi batek
etxe-arratoia
ikusi zuen lodi,
gizen eta joia.
“Adiskidea —dio
bertatik esaten—,
zure mardultasunak
guztiz nau arritzen;
nonbait ongi ona da
daukazun biziya;
egia esateko,
dizut enbidiya.”
“Nere bizi-modua
jakin nai badezu
—erantzuten dio ark—,
zurea esazu”.

“Ni —dio sorokoak—
zelaiz zelai nabill,
ale bat edo beste
ote dezadan bill.
Askotan biurtzen naiz
zulora lerturik,
aletxo bat bakarra
bildu gabetanik.
Orduan jaten ditut
belarren sustrayak,
eta izaten ditut
sabel-errabiyak.
Nere bizi-modua

orra, adiskidea;
orain jakin bear det
nik ere zurea.”
“Arrazoia daukazu—
dio erantzuten,
eta asitzen zaio
onela esaten—:
Zure bi saietsetan
det ongi ikusi
ase eta betean
ez zerala bizi;
argia agiri da
batetik bestera,
negu onetan zoaz
goseak iltzera.
Eroen kontua da
nekez bizitzea,
zurrena neke gabe
tripa betetzea.
Sinistatu nazazu:
nik, adiskidea,
oraindika ez dakit
zer dan nekatzea.
Bizkitartean nago
beti uguiturik,
jan baño jan naiago
eta ezin janik.
Atoz ikus dezazun
nola nik etxea
goitik bera daukadan
janariz betea.

An daukatzit zintzillik
gazta Frandeskoak,
odolkiak, lukaikak
eta txorizoak.
Bakarrik nago eta
nai nuke laguna,
igarotzeko pozez
jostatzen eguna.”
Ozta soro-arratoiak
zuen au aditu,
berealaxe zion
atzetik jarraitu.
Etxera zirenean
elkarren ondotik,
sartu ziran despensan
katuen txulotik.
Sorokoak ozta du
goratzen burua,
uste du ikusitzen
duela zerua.
“Zer da au? —dio ojuka—
Au bai dala mauka!
Onelako fortuna
munduan nork dauka?”
Pozez eroturika,
trast, salto batean,
igo eta jartzen da
lukaiken gañean.
Jan eta jan ari da
ezin uguiturik,
ez du iñork ikusi

alako jalerik.
sabela betetzen,
Onela ari dala
sabela betetzen,
katuaren miauak
dirade aditzen.
Aditu bezin laster
eta salto bian,
etxeko arratoia
sartzen da kabian.
Ura ikusi eta
gero, sorokoa
lasterka ondotika
argana dijoa.
Nai baño nekezago
sartu zan txulotik,
zeren sabela zeukan
lukainkaz beterik.
Ikusten du laguna
ikaraz betea,
neke andiarekin
artzen asnasea.
“Zer da? —esaten dio—
Zer da beldur ori?
Zer gertatzen zaik, mutill?
Esan zadak niri.”
Asnas eziñ arturik
dio erantzuten:
“Katuaren miauak
ez dituk aditzen?
Badituk lau etxean,

lauak eiztariyak,
oiek jan zizkidatek
nere bost anayak.
Begira zak nola nik
daukadan buztana,
erdiya larrutua,
beste erdiya jana.
Doi-doia egun batez
nian iges egiñ,
kontentu gelditu nak
onenbesterekin.
Geroztik galtzen diat
osoro burua,
aditzen dedanean
katuen miaua.”
Au entzun zuenean,
dio sorokoak:
“Maiz badira ikara
gaur bezalakoak,
oa, mutill, nai badek
deaurru-etxera,
naiago diat nik joan
sustraiak jatera.”
Gabaz irtenik joan zan
esanaz bidean,
peligrotika libre
arkitu zanean:
“Obe diat nik askoz
pobreza pakean,
ez aberastasuna
ikaren artean.

ESNE-SALTZALLEA

Neskatxa bat zijoan
plazara neguan,
eskuan txantxilla ta
kaikua buruan.
Gorputz liraña zuen,
gerriya txit mea,
illea erporaño
urre-kolorea;
perla gisako ortzak,
aoa txikiya,
begiak beltz andiak,
ezpaña gorriya;
ibillian iñori
ezer zor ez zion;
itz batean, jendeak
begiratzen zion.
Lasterka bere buru
zijoan itzketan,
itz egiten zuela
manera onetan:
“Esne au nerea det,
ala aitak esan dit,
saldu ta diru asko
niri emango dit.
Bereala beaitut
arraultzak erosi,
saski bat bete arraultz
izango det noski.

Uda berriya dator,
maiz nere burua
txitoz ikusiko det
nik inguratua.
Egiten diranean
ollanda-ollasko,
artuko det aiekin
dirurikan asko,
erosteko ferian
aurrera txerriya,
berexitzen derala,
al bait, umaziya.
Ugari izan bait-da
txit aurtan ezkurra,
jo-araziko diot
laster tripaz lurra.
Nola izango duen
urdaia lodiya,
artuko det onekin
nik diru aundiya,
eta erosiko det
txaltxo bat urrisa,
umeak egin ditzan
etxekoen gisa.
Urte asko baño len,
badet nik ustea
arkituko naizela
ganaduz betea.
Ozta izango al da
errian neskatxik,

dotea nik adiña
izango duenik.”
Asmo oiek egiten
ari dan artean,
irristatzen zaiozka
bi oñak lurean.
Adiyo aren esne,
arraultz ta txitoak,
adiyo txerri, txal ta
dote guztizkoa.
Askotan dirudite
gure esperantzak
osoro txakurraren
gaberdiko ametsak.

ASTOA ETA TXERRIA

Asto bat bizi oi zan
ukullu batean,
eta txerri bat herriz
aren bazterrean.
Txerriari astoak
zion enbidia,
zeren askoz ohea
zan aren bizia.
“Ori —esaten zuen—
dago uguiturik,
ez dezake ezer jan
ez badu iriñik;

ni berriz emen nago
gosez idikirik,
majaderan ez daukat
lastoaren piskik.
Noizik bein baldin badet
millizkatzen zaia,
iduritzen zat dala
orduan eztaia.
Goizetik arratsera
oi da aren lana:
tripa ezin jaso,
ezer ezin jana.
Ni beti narabilte
arras zamaturik,
indarrak galdu eta
ezin igiturik.
Atz egiten diote
ari bizkarrean,
maitetxoa esanaz
jana ematean;
ni zamaren azpian
ez naute urriki,
beaituzte egunean
neretzat makil bi;
zenbat eta daukadan
indar gutxiago,
anbat eta gañean
det golpe geiago.”
Au oi zan astoaren
betiko itzkuntza,

Jainkoari esanaz:
"Indazu laguntza!"
Ostegun gizen egun
deritzan goizean,
golpeka asten dira
etxeke atean;
esnatzen da astoa,
eta du ikusten
arakiña barrena
deadarka sartzen,
esanaz: "Guazen, guazen!
Non dago txerria?"
Neskamea, arturik
eskuan pazia,
asten da idikitzen
gaisoari eia.
Irteten da txerria
doi-doia eietik,
artzen du arakiñak
belarrietatik,
eta ematen dio
urte bi baño len
eriotza gogorra,
zeren dagoen gizen.
Nork esan astoaren
beldur laborria,
noiz allegatuko zan
beraren aldia?
Burutik ofñetara
izerdiz bustirik,

an zegoan gaisoa
txokoan ixillik.
Irten zan bada noizbait
gure arakiña,
eta akabatu zan
astoaren miña.
Orduan esan zuen
bere barrenean:
“Jainkoari eskerrak,
bizi naizenean!
Nik nere lagunari
enbidia nion,
nere patua opa
iñoir ez nion;
ez det nik nai alerik,
ez det nai iriñik,
baldin ill bear bada
orrela gazterik.
Betozen nere gañera
amar milla makill,
askoz naiago det nik
onela zarririk ill.
Berdin ikusia da:
ez da atsegiñik
mundu onetan iñon
zerbait gabetanik.

BERRITSUA

Tristan estudiante
gutziz beartsua
buru andikoa zan,
baña berritsua.
Aberastu nai zuen;
gutizi ona da,
baldin bide onetik
aberasten bada.
Baña gutxi dirade
galdetzen dutenak
bideak diran txarrak
edo diran onak.
Asten da gure Tristan
erriz erri deitzen,
diela abereai
itzegin-arazten.
Orra non bereala
dakien erregek
zer abillidatea
dadukan Tristanek;
bere-berealaxe
deitzen du Madrilla
onen gizon jakintsun
gutzizko abilla.
Errege asten zaio
pozturik esaten:
“Omen dakik astoai
itzegin-arazten?”

Badiat bat etxean,
eta dek emea,
luzaro edan diat
nik aren esnea.
Berari zor zioat
nere osasuna,
geroztik uste diat
derala laguna.
Orain aterako dek
kontua emendik
aren itza aditu
naiko ote dedan nik.”
Tristanek dio: “Jauna,
da ezagutua
txit gogorra duela
astoak burua.
Berorren mesedeak
amar urteetan
astoa entzungo du
ederki izketan.”
Gelara joan ondoren
dator erregea
sakela bat eskuan
ontz-urrez betea,
eta ematen dio
Tristani, esanaz:
“Kontentu izango nak,
Tristan, ire lanaz,
baldin ikusten badet
amar urteetan

nere asto maitea
nerekin izketan.”
“Ez da —dio Tristanek—
predikadorerik,
asto ori izketan
gainduko duenik.”
Jil, aren adiskide
eta erritarra,
au aditu ta ezin
idukirik farra,
asten zaio esanaz:
“Deaurruz betea!
Orrela engañatu
beak erregea?
Iges egin zak, Tristan,
lasterka emendik,
ostikoka ez badek
egon nai zintzillik;
zergatik azkeneko
Tristanen pagua
izango dek iltzea
emen urkatua.”
“Jiltxo —dio Tristanek—,
guztiz dek luzea
eskatu eta eman
diraten epea;
amar urte oietan,
kontu epe oni,
ez gaituk ilko errege,
astoa edo ni?

ABEREAK IZURRIAREKIN

Baso eta soroak,
zelaiak, mendiak,
abere illez zeuden
arras estaliak,
sartu zitzaielako
gaitz bat txit andia,
zeñari oi dioten
deitzen izurria.
Leku aietan baitzan
leoia errege,
beldurrez geldi zedin
jenderika gabe,
deitu omen zituen
abere guztiak,
utzirika alde bat
bakarrik eriak.
Joan ziraden lasterka,
al zuten lenena,
zein baño zein arako
ote zan aurrena.
Muno baten gañean
leoia jarri zan,
eta andik ojuka
onela asi zan:
“Nere seme maiteak,
da izugarria
gure artean sortu
zaigun izurria;

gelditu bearra naiz
ni, zuen errege,
egun asko baño len,
iñor ere bage.
Zuei esateko,
da nere ustea,
onenbeste bat jende
galtzen ez uztea.
Izurri oni omen
deritza kolera,
eta deitu zaituztet
guziak onera,
nolabait Jaungoikoa
dezagun eztitu,
eta kolera gabe
gaitezen gelditu.
Uste det, eztizeko
aren mesedea,
on dala gutako bat
gaur emen iltzea,
erretzen degularik
gero aldarean,
kolerak utzi gaitzan
lenbailen pakean.
Nor dan gure artean
gaitzika geiena,
jaio zanetik onontz
egiten duena,
au da, nere semeak,
ez daukat dudarik,

daukana Jaungoikoa
txit asarraturik.
Au, illik, aldarean
erretzen badegu,
bereala Jainkoa
eztituko degu,
gelditzen diralarik
gure pekatuak
an goien, duda gabe,
betiko aztuak.
Asi bedi bakoitza
esaten bereak,
aditurik aurrena
osorik nereak:
Beñere ez det izan,
aitortuko det nik,
aberez asetzeko
batere kupidik;
zezenak, beiak, auntzak
eta basurdeak
bete izan dituzte
maiz nere esteak.
Gaiztakeria oiek
dirade nereak;
orain esango ditu
bakoitzak bereak.”
“Ez, jauna, ez —ojuka
dio azeriak—,
ez dirade oriek,
ez, gaiztakeriak.

Non-nai beti, mendean
bizi dan jendeak,
bazkatutzen oi ditu
bere erregeak.”
Kata-motzak zionez,
bai ere otsoak,
aiek jan oi zituzten
artalde osoak.
Asko alditan zion
berriz azeriak
ustu izan zituela
ark ollotegiak.
Pekatuak esaten
bakoitza dijoa,
eta azken-azkena
badator astoa.
Arrantzaz asitzen da
bereak esaten,
eta modu onetan
ojuak egiten:
“Jaunak, ni oroitzen naiz,
igande batean,
bazkatzen nebillela
goizetik larrean
iñon ere belarrik
ezin arkiturik,
egin ez zuelako
luzaro euririk;
sartu izandu nitzan
gari-zelaiean;

baña, jauna, egiaz
zan uste gabea,
eta ezin gogora
zait etorri neri
jan nituen edo ez
buru bat edo bi.”
Atera bezin laster
itz oiek aotik,
azeriak ojuka:
“Ez dago dudarik!
—esaten du—, ori da,
orixen da, ori,
emen sartu diguna
izurria guri!
Bereala bear du
ankaz gora jarri,
aldarean dezagun
ederki ezarri.”
Iduritu zitzaion
ongi jendeari,
bizia kendutzea
asto gaisoari.
Bereala astoa
gelditu zan illik,
ez izanagatika
batere kulparik.
Erregek inguruan
zeuzkan mutikoak,
nola ziran kata-motz,
azeri, otsoak,

irri egiten zuten
astoa iltzean,
ill eta ankaraz gora
surtan ezartzean.
Mundu onetan beti,
indarra dutenak,
ez badirade ere
mutillik onenak,
esan oi da dirala
txit gizon prestuak,
estaltzen diralako
aien pekatuak;
beste aldetik berriz
jende beartsua,
ardit batengatika
oi da urkatua.
Baña gertatzen oi da
au gure artean,
bestela izango da
an gora joatean;
zeren izango gera
guztiok an berdin,
naiz errege emen izan,
naiz izan arlekin.

TXITXARRA ETA TXINGURRIA

Iduritzen zitzaion
urrikigarria
txitxarrari auzoan
zuen txingurria,
zeren ikusten zuen
lertutzen lanean,
denbora piskatxo bat
ondutzen zanean.
Askotan esan zion,
ez irriz, benetan:
“Ez diat lanik egin
nere egunetan,
eta utse diat nik,
nere mutikoa,
lan egiten duena
dala txit astoa.
Zer? Ibilli bear dek
beti arrastaka,
ezin gari-ale bat
karraiaturika,
erori eta altxa,
beti jira-bira,
eramatiagatik
ale bat kabira?
Bizi-modu txar ori
utzak, txingurria,
egin zak nik egiten
deraden guztia.”

Txingurriak, jakiñik
gurasoetatik
ezin biziko zala
egin bage lanik,
txitxarraren esanik
ez zuen aditu,
eta bere lanari
oi zion segitu;
bitartean txitxarra
zijoan pasatzen
uda guzti-guztia
sasian kantatzen;
baña gaizki jo zion
soñua kukuak:
uda joan eta zuen
atzeman neguak,
eta, nola bait-duen
kopet itsusia,
joan ziran txitxar-kanta
eta erausia,
zeren, bukaturika
udako asea,
otzak ekarri zuen
berekin gosea.
Txitxarra gelditu zan
argala, umilla,
este zimurtuakin
eta erdi illa.
Oroitzen da auzoan
badala zer jana,

dijoa arrastaka
txingurriagana,
eta esaten dio
doi-doia argalez:
“Adiskidia, dizut
eskatzen mesedez
zure gordaidutika
piskatxo bat zer jan,
nolabait negu beltz au
igaro dezadan.”
Ikusi zuenean
ain argal txitxarra,
txingurriak, egiñaz
gogotika farra,
ola esaten dio:
“Zu onontz, txitxarra?
Kantari ona zera,
beargille txarra.
Uda igaro dezu
erausian, kantan,
ni nebillen artean
lertzen lan eta lan;
eta orain nai dezu
txingurri-nekeak
bete ditzaten txitxar
alferren esteak?
Ez, ez orrelakorik!
On da ikustea,
zer dan mundu onetan
alfer izatea.

Ni len nekatu eta
banoa jatera,
zu geldi egon zera,
zoaz kantatzera.”
Lagundu bear zaio
beargilleari,
ez ordea beñere
jende alferrari.

IGELAK ERREGE ESKATZEN

Abere-mot bakoitzak,
lengo denboretan,
erregea bazuten
toki guzietan.
Gabetanika zeuden
igelak bakarrik,
zeren ozta ziraden
irteten loietik,
eta ez da atsegin,
naiz izan errege,
bizitzea loi-pean
andik irten gabe.
Igel gaisoak zeuden
arras lotsaturik,
iñork ez zielako
egiten kasorik.
Biltzen dira guziak
beren batzarrean,

eta diote: “Guazen
jartzera aurrean
Jupiter andiari,
eta esatera:
Jauna, gatoz zugana
errege eskatzera;
abere-mot bakoitzak
izanik berea,
guk ere nai genduke,
al balitz, gurea.
Jupiterrek, mugituz
noizik bein burua,
aditu omen zien
beren erregua,
far-irria egiñaz,
zeren ez zekiten
igel txori-buruak
zer eskatzen zuten;
bada bizi ziraden
elkarren artean,
kantatu eta josta,
ederki pakean.
Esan omen zioten
beren jaungoikoak
“Ez zaitez tala izan,
arren, ain txoroak;
zeren ez da munduan
zori onagorik,
nola dan bizitzea
buru gabetanik.

Badezute non bizi,
zer jana, pakea;
zertako nai dezute
orain erregea?
Gaiztoak bear dute,
ez dago dudarik,
elkar ill ez dezaten
buru gabetanik;
baña izanik ona
zuen familia,
zer deaurrutarako
du agintaria?"

"Jauna —erantzun zuten—,
badute besteak,
eta lotsatzen gaitu
guk ez izateak;
ez gera gutxiago
noski aiek baño;
lotsarik asko izan
degu oraindano."

"Ori orrela bada
—dio Jupiterrek—,
faltarik ez dizute
egingo erregek."

Au esan ondorean,
orra non batetan
zerutik zingirara
zerbait erortzen dan,
ematen duelarik
alako golpea,

non galtzen dute arras
igelak kordea.
Piskabana ikara
pasa ondorean,
eta ezaguera
etorri zanean,
lasterka an dijoaz
sartzera lenbailen
gutxienaz kana bi
loiean barrenen.
Zortzi egun aietan
ez zan bat bakarrik
loietik irtetera
atrebitzen zanik.
Noizbait irteten da bat
eta dio: "*Tat, tat,*
erregetzat diagu
egur-puska andi bat."
Ikusi zutenean
ziola egia,
nork esan aien lotsa
eta errabia?
Badijoaz lasterka
Jupiterren billa,
eta esaten diote:
"Jauna, esker milla;
gaur bidaldu diguzun
errege prestua,
da itsua ta gorra,
gañera mutua;

beste bat nai genduke
ernaia, bizia,
jendiari agintzen
ongi ikasia.”

“Zoazte ortika, zoazte
—die erantzuten—,
berdin ez dakizute
zer darabilzuten.”

Bidaltzen die bada
beste erregea,
zeña zan amar kana
luze zan sugea.

Zingiran sartu eta
asi zan batetan
igelai jarraika,
arrapa eta jan.

An dijoaz igesi
bera eta gora,
batzuek loi azpira,
besteak kanpora.

Madarikatzen dute
guztiak errege,
obeto ziralako
agintari bage.

Onela oi dirade
txoroen kontuak,
ez die farra gaizki
egiten munduak.

Ongi geran orduan
obeto nai degu,

galdu ta gero ona
ezagutzen degu;
baña nola orduan
ez degun protxurik,
ez oi zaigu gelditzen
damua besterik.

ASTO BURU GOGORRA

Asto bat zebillen bein
bazkatzen larrean,
bururaño estaltzen
zuen belarrean.
Ain zegoan kontentu
gure aberea,
non dagoan Txinako
enperadorea;
belarrez ase eta
egiñaz arrantza,
guztia zan arentzat
festa eta dantza.
Lepoa luzaturik,
bi belarriak zut,
arrantzaka ikusten
derala uste dut.
Onela dabillega
batetik bestera,
oroitu gabetanik
joateaz etxera,

noizik bein luze-luze
etziñik lurrean,
tripaz gora jarririk,
zankoak airean,
orrontz-onontz jiraka,
zan gorputza guztia
gelditzen zitzaiola
autsez estalia,
akabatzen zuela
azkenean festa
tronpeta joaz, nola
esan bear ez da;
onela dabillega
astoa mendian,
nausia ikusten du
ez txit urrutian,
deituaz: "Potxo, Potxo,
atorkit onera;
etsaiak dijoazkik
or ire gañera;
ez al dituk aditzen
tronpet-atabalak,
eta txistuka orrontz
dijoazen balak?
Ator onontz lasterka,
edo aiz galdua,
ukulluan an daukak
toki segurua."
Potxo sasi tartean
an dabil bazkatzen,

nausiari kasorik
ez dio egiten.
Egur bat artu eta
an dijoakio,
eta burutik bera
erasotzen dio,
esaten diolarik:
“Esker gabekoa,
nik oju egiñ eta
i igesi oa?
Asto madarikatu,
nar, buru-gogorra,
noiz ezkerro egiñ aiz
i neretzat gorra?
Ez dituk bizi ire
aita ta aitona,
ezagutzen zutenak
beren zori ona!
Guazen, guazen emendik,
guazemak etxera,
merezi ez dek baña,
otea jatera.”
Astoak nausiari
dio erantzuten:
“Pentsamentu bat orain
nengoan egiten:
Arrapatzen banaute
ni emen etsaiak,
gaitzik egingo ditet
aien asta-zaiak?

Edo, aien mendean
gelditzen banaiz ni,
ifiñiko dizkitet
gañean txalma bi?
Ni bezalakoentzat,
nere nagusia,
nere ustez etsaia
da mundu guzia.”
Patu gaiztoarekin
danean bat jaio,
an edo emen bizi
oro-oro bat zaio;
eta gerra-denboran
ezer ez izanik,
ez oi du aberatsak
duten ikararik.

BELEA ETA AZERIA

Zur-aritz luze baten
tontor-tontorrean
bele bat gelditu zan
joan dan egunean.
Bere mokoan zeukan
gazta bat guria,
borda-leio batetik
ebatsi berria.
Azeri bat irten zan
arkaitzen artetik,

eta igarotzen zan
zur-aritz azpitik;
ozta zuen gaztaren
usaia sentitu,
gora begiratuaz
bertan zan gelditu.
Ikusi zuenean
ain gazta guria,
zintzillika zerion
aotik lirdia.
Geldi-geldi zegoan
zur-aritz azpian,
gazta nai, eziñ izan,
zalez errabian.
Bere barrenen zion:
"Ezin gora io!
Igotzen banaiz ere
ez likek balio!
Zeren nik nai banuke
argana gora joan,
iges egingo likek
bereala egan.
Zerbait beste gauzarik
beaiat asmatu;
tat tat oraintxen bertan
zaidak gogoratu;
eziñ obeagoko
pensamentuba dek,
sei minutu baño len
gazta nerea dek."

“Agur, adiskidea,
—dio betik deitzen—,
zure edertasunak
nau enamoratzen:
moko oria dezu,
luma beltz-urdiña,
begia berriz galant,
argi eta fiña;
itz batean zerade
ain guztizko joia,
non arkitu diteke
beste bat doi-doia.
Sinistatu nazazu,
dudarika bage,
egaztien artean
ziñake errege,
zeran bezin ederra
bazendu kantua;
ala dezun edo ez
or dago kontua.”
Beleak aditzean
lausengatxo ura,
sentitzen du beregan
kantatzeko gura.
Ozta idikitzen du
gaisoak mokoia,
bereala lurrera
gazta an dijoa.
Azeriak algaraz
omen zion deitu:

“Orren kanta ederrik
ez det nik aditu!
Orain nik gazta jaten
deran bitartean,
goza zaitez zu zere
arrotasunean;
Jangoikoak dizula
luzaro osasuna,
zure kantu ezitia,
zure edertasuna;
kontentu izango naiz
ni nere aldetik,
tripa betetzen badet
maiz zure mokotik.”
Au esan eta joan zan
bere gaztarekin;
belea gelditu zan
sabel utsarekin.
Lausengarien itza
duenak sinisten,
onelakoxe txalmak
ditu eramaten. (1)

(1) Ikus ipui onen beste era bat, liburuaren bu-
kaeran.

OLLARRA ETA AZERIA

Ollar bat zebillen bein
faza ederrean,
soroa jorratuaz,
jaten goiz batean.
Kakaraza egiñaz
orra non batetan
igotzen dan ollarra
arbolera engan.
Begira negokion
ni bazter batetik,
ezin begiak kenduz
iñolaz argandik.
Gain-gañean zegoan
jarririk ederki,
ollar ederragorik
ez det nik ikusi.
Atzapar bat bazuen
kana betekoa,
atzeko azkazala
zenzadarrekoa;
bullarra txit lodia,
lepoa laburra,
begi ori gorriak,
mokoa makurra;
atzeko lumak jo nai
zioten burua,
zintzillik goitik bera
egiñaz arkua;

galdor gorri andia
zeukan ain zuzena,
non artan ikusten zan
beraren kemena.

Aren luma ederrak,
eguzkiak jorik,
diztiatutzen zuten
guztiz urrutitik,
alako moduan non
ez nezake esan
gure ollar ori zer
kolorezkoa zan;
ain laster zirudien
zillarra, urrea,
non perla, esmeralda,
non diamantea.

Ari begira ezin
nintzan ni aspertu;
ez pensatu derala
ezertan edertu.

Oraindik sei minuto
igaro baño len,
azeri zar andi bat
orra non datorren.

Ikusten du ollarra,
gelditzen da bertan,
betik gora asten zaio
onela itzketan:

“Biba, biba, maitea,
auxen bat berria:

pakeak egin dira;
gaur mundu guztia
bizi diteke aisa
beldur gabetanik;
iñork ez du aurrera
izango etsairik;
katu eta txakurrak,
otso arkumeak,
azeriak, ollarrak,
gera aiskideak.
Jatxi zaitez lasterka,
beldurrik ez izan,
elkarri laztantxo bat
beaiogu eman.”
Ollarrak bereala
dio erantzuten:
“Zaude piska piska bat,
orra non datozen
iru azeri-txakur,
orra atadian
lasterka lau oñean
lertzeko zorian.
Ez dago, ez, dudarik,
diozu egia,
oiek dakarte seurki
pakeen berria.”
Aditu bezin laster
txakurren izena,
an dijoa azeria
al duen lenena.

“Zaude, zaude! —ollarra
asten zaio deitzen—;
Bereala nazazu
emendik jatxitzen!”
Ez dago gelditzeko
gure azeria,
badirudi igesi
dijoan erbia.
“Gutziz presa naiz —dio—,
bereala or naiz,
guk onelako presak
oi ditugu txit maiz.”
Gutziz asko jakiña
zan azeri zarra,
baña ollarra ere
ez bide zan narra.

AUNTZAK ETA AKERRAK

Munduan enbidia
batak besteari
izaten oi diogu
txit maiz edo beti.
Auntzak ikusirika
zirala akerrak,
jendeen arabera,
gutzizko ederrak,
eta aiek eragin
oi zutela farra,

falta zitzaielako
zintzillik bizarra,
joan omen ziran beren
jaungoikoagana,
esanaz: "Jauna, gatoz
gaur berorregana,
adiarazotera
zer lotsagarria
dan gutzaz egitea
jendeak irria,
zergatik kokotzean
ez degun bizarrik,
akerren motakoak
gu ere izanik.
Jauna, gure kokotza
bizarrez betea
gelditzeko asko da
zuk nai izatea;
esperantza daukagu
etxera emendik
biurtuko gerala
bizarrez jantzirik."
Jaungoikoa onetan
zegoan glorian
auntzak entzunaz, irriz
lertzeko zorian;
eta esaten die
"Zoazte emendik,
ez esan orrelako
txorakeriarik!"

Baña negarrez auntzak
omen ziran asi,
arat-onat ibilliz
beka sasiz-sasi.
Kupiturik orduan
jainkoa guztia,
eta artzen zuela
manera ezta:
“Orra —esan zioten—
bertatik bizarra;
munduak egingo du
orain zuez farra.”
Kontrara gertatzen da
gaurko egunean,
akerrak auntz nai dute
izan geienean;
gizonak, andre moten
manerak arturik,
ikusten dirade maiz
tximu biurturik.
Auntzak auntz beau izan,
akerrak akerra,
gizonak indartsua,
andreak ederra;
bestela buruz bera
joango da mundua,
eta geldituko da
betiko galdua,
ematen zaiolarik
kulpa Jainkoari,

nork eman bearrean
bere buruari.

LEOIA ETA TXIMUAK

Leoi bat irten zan bein
zulotik eizera,
gosez irrikiturik,
tripa betetzera;
alferrik ibilli zan
goiz santu guztian,
ezin topaturika
eizika mendian.

Muno baten gañera
igo ondorean,
nekaturik zegoan
lo bete-betea;
orra non bat-batetan
tximu-irrintziak
igarotzen diozkan
bere belarriak.

Esnatzen da saltoan,
jartzen da begira,
irrintzia datorren
aldeko mendira;
begi zorrotza zuen,
urruun egon arren,
eiza ikusitzen du
basoan barrenen.

Badijoa poliki
tripaz lurra joaz,
istua dariola
jateko gogoaz.
Alderatu zanean
baso barrenera,
an dijoaz tximuak
arbolen gañera.
Amorratutzen zaio
txalma andi onekin;
gosez irrikiturik
ez daki zer egin;
artzen du tximu batek
eskuan ezkurra,
tiratu eta dio
odoltzen sudurra;
beste batek autsitzen
du berriz egurra,
eta zauritzen dio
txit bizkar-ezurra;
anka altxatu eta,
txakurraren gisa,
egiten dio batek
zar zar goitik pisa;
azkenik beste batek,
jasorik buztana,
egin zion gauza bat
esaten ez dana.
Onela zital aiek
leoi indartsua

uzten dute burlaka
arras lotsatua.
Burua makurturik
badago leoia,
ez dezake iritxi
arbolaren goia.
Urgunka badijoa
bide-bazterrera;
etziñik egiten du
illaren papera.
Tximuai, ikusirik
odola ixurtzen,
egiazki il dala
zaie iduritzen.
Bere-berealaxen
tximu-familia
goitik bera saltoka
jaisten da guztia;
inguratutzen dute
illaren gorputza,
algaraka diote:
“Au triparen utsa!”
Batak egiten dio
ortzka belarritik,
besteak tiratutzen
dio buztanetik;
ori ezer ez dala
—au bai ausartzia!—
larrutu nai diote
iruk epurdia.

Altxatzen da batetan
leoia lurretik,
ez zaio bat itzultzen
dagoan lekutik;
iltzen ditu guztiak
ortzaz, atzaparraz,
eta buztanarekin
esker-eskui joaz,
utzitzen duelarik
—zer negargarria!—
lurra, zan bezin zabal,
tximuz estalia.
Argatik esan oi da
etsai agiria
ez dala ain gaiztoa
non dan estalia.

EULIAK

Abaraska batean
zegoan eztiak,
beregana zituen
millaka euliak.
Jan baño jan naiago,
nabarbenkerian
zebiltzan, triparaño
sarturik eztian;
azkenean guztiak,
oñak itsatsirik,

bertan gelditu ziran
ase eta illik.
Au egiten balute
euliak bakarrik,
ez litzake, kristabak,
zer izan penarik;
baña izan oi dira
gizonen erdiak,
batzuek tripa-zaiak,
besteak ordiak;
eta iltzen oi dira
gaztetasunean,
bizi nai dutelako
ase ta betean. (1)

SUGEA ETA NEKAZARIA

Gizon bat zijoan bein
zelaitik etxera,
goiz guztian lan egin
eta bazkaltzera.
Ikusten du bidean
etziñik zugea,
otzak erdi illika,
korderik gabea;
kupiturik sartzen du
gaisoak kolkoan,

(1) Ikus ipui onen beste era bat, liburuaren bu-
kaeran.

ango beroarekin
pizteko asmoan.
Etxera joan zaneke,
sugea asi zan
kolkotika kanpora
atera nairikan.
Kanpora botatzeko
gizonak artzen du,
eta suge gaiztoak
ortzka pozoitzen du.
Orra esker ederrak!
Zitalen eskutik
ez du izango iñork
beñere gauz onik.
Illabete baño len
suge ura bera,
otzak ikaraturik,
dator sukaldera.
Ojuka asten dira
etxeko guztiak,
jarraitutzen diote
morroi-nagusiak;
sartzen da ukulluan,
badabiltza billa,
arkitzen dute eta
uzten dute illa.
Zitalkeriak ez du
beñere gauz onik,
eta iñork ez du nai
ikusi zitalik.

ARRANTZALEA ETA ARRAIA

Askotan oi bezela,
joan zan ibaiera
bein batean gizon bat,
arrantz egitera;
ozta amuaz zuen
ur-gaña ikutu,
arra txiki pollit bat
zuen arrapatu.
Bazebillen zintzillik
saltoka amutik,
baña ez zan iñolaz
iges egiterik.
Etsi zuen orduan
txit amorraritxoak,
esaten omen zuen
amutik gaisoak:
“Zertako nazu zuk ni,
txiki txar gaztea?
Nola nai dezu zure
tripa betetzea?
Urte biko ibaian
utzitzen banazu,
andi eta gizona
atzemango nazu;
orain berdiñ, egia
garbi esateko,
ez naiz agin-tarte bat
zuri betetzeko.”

Amorraitxoak zuen
ustez arrazoia,
gero izango zuen
obea sasoa;
baña arrantzaleak,
eskuan arturik,
erantzun omen zion:
“Aurrekoetatik
txit errepain eder bat
ikasi nian nik;
on dek ik aditzea
gaur nere aotik:
Obea dek eskuan
seguru txoria,
ez airian dabillen
egazti andia.
Oakit paderara,
oakit ixillik,
esperantzak ez oi dik
betetzen triparik;
porejill tipulakin
olio tartean
igari egingo dek
frijitu artean.”
Arrantzalearentzat
ez da zer esanik,
zeren gizonarentzat,
Jaunak ala nairik,
dirade abereak,
txiki ta andiak,

baita ere arraiak
eta egaztiak;
bestela izango zan
txit kupigarria
emen ikusten degun
amorra txikia;
gaizki dirudiena
da arrantzalea
gaisoaz far egiñaz
ala egotea.

LEOIA ZARREZ ILTZEN

Leoi guztiz andi bat,
ez ill bai illean,
luze-luze etziñik
zegoan lurrean;
urteen zamak zeukan
ezin igiturik,
bada ez zan arkitzen
argan beste miñik.
Orruaz mendiz mendi
zanean len bizi,
abereak zebiltzan
argandik igesi;
bat bakarrika ez zan
guztien artean
itxorongo zionik
iñolaz bidean.

Orain ikusirika
etziñik lurrean,
esan deran bezala,
ez ill bai illean,
an dijoaz lasterka
txiki ta andiak,
eta ito nai dute
gaisoa guztiak.
Zitalen kontua da
gaisoa danari
egin nai izatea
farra eta irri.
Gizon prestuak ez du
onela pensatzen,
gaisoenari dio
geiena laguntzen.
Onetan nai dutenak
artu lezioa,
irakurri bezate
Ebanjelioa.

ARTZAIA ETA ARDIAK

“Atozte onontz laster,
atozte, anaiak!
—deadar egiten du
Perutxo artzaiak—;
Otso andi bat dator
mendi oiek bera,

zuzen-zuzen onera,
ardiak jatera!”
Badijoaz anaiak
bi txispa arturik,
beldurrez geldi dedin
ardi gabetanik.
Allegatzen dirade
lertzeko zorian,
eta ez da ageri
otsorik mendian;
biurturik badaude
soseguz etxean,
orobat gertatzen da
biaramonean.
Bigarren txalmak dauzka
txit ereztaturik,
urrengoan ez dute
egiten kasorik.
Orduan egiazki
otsua jatxi zan
menditik artaldera,
eta an asi zan
ardirik galantenak
iltzen eta jaten,
eta, lastima zana,
artaldea galtzen.
Gezurra esan zuen
bi bider artzaiak,
eta ez zioten nai
sinistu anaiak.

Gezurtiak egia
baldin badu esaten,
gezurtia dalako
ez zaio sinisten;
onela egiten du
beretzat kaltea;
on da beti egia
non-nai esatea.

OTSOA ETA ZIGOÑA

Jakiña da zigoña
dala egaztia,
lepa luze, moko me,
andi, beltz-zuria.
Otso bat zegoan bein
arkume bat jaten,
eta ezur bat zaio
eztarran sartzen.
Itotzera zijoan
ezin aterarik,
ez zeukan inondika
erremediorik.
Zigoña bat gañetik
zan egan pasatzen,
otsoa intziriaz
asten zaio deitzen;
ikusten du zigoñak
aoa zabalik,

iñolaz ere ezin
asnasa arturik;
jatxitzen zaio eta,
utzirik beldurra,
atera bide zion
mokoaz ezurra.
Zigoña pozez dago
beterik guztia,
itxoroten otsoak
zor dion saria,
atera zuelako
estutasunetik,
bada geldituko zan
bestela itorik.
Ikustean zigoñak
zerbait zuela nai,
otsoak esan zion:
“Adi zazu, anai:
bazoazke emendik
pozez kontatzera
osorika lepoa
dezula atera
gaur goizean, maitea,
zuk nere aotik,
eztarrian moko
sartu ezkeroztik.
Ez dauka zori on au
nai duen guztiak,
bakarrik eman dizu
nere eztarriak.”

Errepañak oi dio:
Egin ezazu on,
eta egin ezazu
ez dakizula non.
Otso gaiztoa beti
gure iges dabill,
beldurrez ez dezagun
atzeman eta ill;
eta zigoña berriz
bizi da gurekin,
zeren ez dizaioke
iñork gaitzik egin.

TXOARREA ETA ERBIA

Arrano batek zuen
erbi bat atzeman,
eta zeukan itotzen
bi atzaparretan;
txoarre batek, ustez
toki segurutik,
oju egiten dio:
“Esaten ez dek ik
ez dala lur gañean
arkitzen mutillik,
lasterka i ainbat
joan ditekeenik?
Orain zertan ago or,
erbitxoa, geldi,

orren mutill ariña
aizen ezkeroz i?"
Onela itz egiten
dion bitartean,
gabiroi bat gañera
dator bat-batean;
artzen du txoarrea,
aren atzaparrak
kentzen diozka bere
burla eta farrak.
Iñork mundu onetan
ez dezake esan:
Ur onetatika nik
ez det bear edan.
Usterik gutxiena
guk degun orduan,
arkitu oi gerade
besteen lekuan.
Argatika beñere
zori gaiztokoaz
ez degu egon bear
farraz eta burlaz.

ITURRIKO ORIÑA

Nekez baño arkitu
zuen iturria
orin batek, il nairik
zeukan egarria.

Edan zuen orduan
gaisoa zan ari
urean begiraten
bere buruari.
Ez da zer farrik egin,
irakurtzalleak,
bazerate benturaz
neskatxa gazteak;
jakin bear dezute,
gaur dan egunetik,
ez duela oriñak
beste ispillurik.
Gutziz ederra dala
zaio iduritzen,
batez ere adarrak
dute txit txoratzen;
baña ditu arkitzen
aren mesedeak
txit itsusiak bere
zanko luze meak.
“Zanko laburragoak
baldin banituke,
nere parerik —zion—
iñon nik ez nuke.
A, eman bazizkiran
gure Jaungoikoak
egokixiagoak
nere bi zankoak!”
Onela dagoala
marmar iturrian,

zangak aditzen ditu
ez txit urrutian.
Laisterka asitzen da
mendirra igotzen,
zakurrak ondotika
diote jarraitzen.
Iges egin duela
uste duenean,
gelditzen da batetan
otadi batean,
lotu ziozkalako
bere bi adarrak
otetika otera
an zegoen larrak.
Zakurrak gañeratzen
zaizka gaisoari,
ill eta bertan uzten
die nausiari.
Orra adar ederrak,
zanko itsusiak,
oiek txit onak eta
aiek galgarriak.
Txoroak engañatzen
oi ditu itxurak,
ez ordea beñere
zentzua dutenak.

SUGEA ETA LIMA

Ortzka ari zitzaion
sugea limari,
limak esaten zion:
“Alferrik aiz ari;
ez dik ezer balio
ire alegiñak,
kamustuko dizkiat
ortz eta agiñak.”
Kasorik egin gabe
ari zaio ziñez,
“Ez at —dio— utziko
ortzetako miñez!”
Berandu baña noizbait
duke ezagutzen
ortzak dijoazela
guztiak kamusten.
Uzten dio limari
txit damuz, esanik:
“Askoz indar geiago
nik baño daukak ik.”
Erokeri andia
oi dek, nerekiko,
akulloa jotzea
bortizki ostiko.

ADISKIDE BI ETA ARTZA

Adiskede andi bi
dijoaz bidean,
elkarrekin itzketan
umore onean;
artz andi bat zaiote
basotik irteten,
ikarak arbolara
bata da igoten;
bestea gelditzen da
gaisoa bakarrik,
artz andiari ezin
arpegi emanik.
Zer egin onelako
estutasunean?
Illa balitz bezala
jartzen da lurrean.
Nola artzak ez duen
gorputz illik jaten,
usai egin ondoren
da aurrera joaten.
Bereala jatxitzen
da arbolakoa,
eta lagunagana
lasterka an dijoa.
“Adiskidea —dio—,
txit det nik atsegin
zu emen arkitzea
osasunarekin;

zer ikarak ditudan
zugatik eraman,
beldurrez zu noiz artzak
bear zinduen jan!
Ixilik belarrira
dizu ark itzegin,
zer esan ote dizun
nai nuke nik jakin.”
“Ara zer esan diran
artzak belarrira:
Munduan adiskide-
-mota asko dira;
ez dezu artu bear,
jakizu gaurdandik,
zure adiskedetzat
gizon beldurtirik.”

ARKUMEA ETA OTSOA

Bildots gizen-gizen bat
dago artegian,
be egiten duela
amaren ansian;
belar-izpi bat ez zan
aren tripan sartzen,
iru ardik esnea
zioten ematen.
Begira dagoala
ate-zirritutik,

agertzen zaio norbait
kanpoko aldetik;
artzaia zala uste
zuen lenbizian,
gero ikusi zuen
otsoa sasian.

Asten zaio ojuka
barrendik esaten:
“Jakin beazu preso
naukatela emen;
au onela ez balitz,
emendik irtenik,
ez nezake nik utzi
otsoaren antzik.”

Otsoak itzkuntza au
aditzearekin,
dio: “Ez det protxurik
izango onekin;
seguru dagoela
au da señailea:
nitzaz barrendik farraz
burla egitea.”

Izaten oi da gizon
txit ikarakoia
toki segurutika
gutziz fanfarroia.

URDALLA ETA BESTE GORPUTZAREN PARTEAK

Ao eta begiak,
oñ eta eskuak,
urdallarekin zeuden
txit asarretuak;
begiak esan zuten:
“Gu gau eta egun
or gabiltza jana non
ikusiko degun.”
Aoak zion berriz:
“Nere ortz-agiñak
kamusturik daukatzi
lan asko egiñak.”
Oñak esaten zuten:
“Naiz ez izan gura,
joan bear degu beti
jana dan lekura.”
Azkenean eskuak
zeuzkan nekatuak
beti-betiko ezin
jan ala bilduak.
Guztiak keja ziran
urdalla bakarrik
zegoala lanika
egin gabetanik.
Egiten dute junta
edo batzarrea,
zeña izan omen zan

guztiz asarrea,
eta bukatzen dute
esatearekin:

“Ez degu guk geiago
bear lanik egiñ;
batak jan, besteak lan,
da erakeria,
urdallak oi darama
gure lan guztia.”

Esan zuten bezala,
badaude geldirik,
bi egunean lanik
egin gabetanik.

Asten zaie orduan
aitutzen indarra,
urdallak barrendika
egiten du farra.

“Zer da au? —esaten dute—

Zer zaigu pasatzen?

Indarra piskabana
ari zaigu juaten.”

Orduantxe esaten
diote urdallak:

“Lengo antzik ez dute
gaur gure masallak.

Nola naizute izan
ni gabe indarrik,
zuek bildutakoa
urtutzen badet nik?

Ez dezute ikusten

ortz eta agiñak
errot-arri gisara
daudela egiñak?
Oiek txetzen dutena
nik derala urtzen,
eta gero guztiok
gerala mantentzen?
Ez badet nik urtutzen
egun oro jana,
zuen neke guztia
dala alfer lana?
Orra nola, egun bi
ozta igarorik,
zaudezten indar gabe
eta erdi illik.”
Arrazoi au aditu
eta ondorean,
guztiak sartu ziran
berriz batzarrean.
Deitzen dute urdalla,
dijoa lasterka,
artzen dute erdian
emanaz besarka,
eta esanaz: “Orain
diagu aitortu:
i bezin mutill latzik
ez dek iñon sortu;
nork esan zezakean
ezkutuko lana
zala gorputzarentzat

bearrena zana?"
Munduan gutxiena
uste dan personak,
egiten oi dituzte
lanik bearrenak;
eta ikus dezazun
dala au egia,
irakurri ezazu
urrengo ipuia.

JAKINTSUNA ETA NEKAZARIA

Nekazari batek du
gizon bat ikusten,
liburua eskuan
eta paseatzen.
Biak elkarri zaizka
asitzen izketan,
lena nekazaria
manera onetan:
"Ongi ona da, jauna,
berorren bizia!
Obe du ez dan jaio,
a, nekazaria!
Guk egin bear degu
urte guztian lan,
berok bizi ditezen
pasea eta jan.
Munduko gauzak dira

ongi desberdiñak,
izan arren guztiak
Jainkoak egiñak.
Zertarako dirade
beron liburuak,
ez bada nastutzeko
alferren buruak?
Kendu bear liteke
txit alferkeria,
orduan genduke guk
lanaren erdia;
geroztika giñake
askotzaz obeki,
ez lirake izango
berok ere gaizki.”
“Adiskidea, dezu
ederki itzegin
—erantzun zion—, bafña
bear dezu jakin
ez daudela munduan
gauzak ain desberdin,
eta bazekiela
Jainkoak zer egin.
Buruak egiten du
lanika geiena,
iduririk nekatzen
dala gutxiena;
eta esana dago,
baldin bada abilla,
buru batek balio

dituela milla.
Esan zarazu niri
zuk, nekazaria,
nork erakutsi zuen
ereiten garia?
Nork elorri txurian
sagarra txertatzen?
Nork sagar-tolareak
zur-olez egiten?
Nork sortuak dirade
aitzurra, goldea,
laiak eta hostortza,
eta besabea?
Zu oean zurrungaz
zaudenean lotan,
norbaitek bere gelan,
asko gaberditan,
lau bider nastu oi du
gogotik burua,
eskuetan arturik
bere liburua.
Asmatzen badu zerbait,
gertatu oi dana,
gizonak egin dezan
errazago lana,
geiago egiten du
buruz gizon onek,
ezen ez eskuakin
eun milla gizonek.
Begira irakiten

dagoan paziak
zein aisa eramaten
dituen ontziak,
naiz izan bere kontra
aize-mot guztiak,
eta marea andi
edo ur biziak.
Pazia bat urekin
ikus zazu nola
dabilen an errota,
emen berriz ola.
Eziñ egin duena
gure alegiñak,
egiten du pertzako
uraren lurriñak.
Lurriñaren indarra
ezagututzea
izan da buru baten
abillidatea;
argatik esaten da
buru batek milla
balio dituela,
baldin bada abilla.
Jakin bear da bada:
da indartsuena,
ez gorputz bortizkoa,
bai jakintsuena.
Txispa batekin amar
urteko gaztea
ain da bortitza gaur, non

gizon goiantea.
Geiena dakitenak,
gaurko egunean,
idukitzen oi dute
mundua menean.”

TXANGURRUAK

Itz egiñ omen zuten
batzarre batean
txangurruak atzerontz
joateko gañean,
ikusirik txit zala
modu itsusia,
eta dudarik gabe
txit lotsagarria.
“Nork bere umeari
—esan omen zuten—
erakutsi beaio
aurrerontz ibiltzen,
oitura au emanaz
jaiotzen danetik,
utzi gabe ematen
atzerontz pausorik.”
Biaramon-goizetik
omen dira asten
umetxoak aurrerontz
erabilli-arazten,
atzaparrak bigunak

dituzten artean
aurrerontz eragiñaz,
atzerontz ordean.
Ari dira onela
ziñez gurasoak,
egun oro zuzentzen
umeen pausoak.
Alferrika egiten
dute alegiña,
ezin garaitu dute
semetxoen griña;
atzerontz ikustean
beren gurasoak,
umeak daramatzi
oien ejenploak.
Argatik txangurruak
gaur ere dabilta
beti atzerontz pauso,
soka-gille gisa,
esaten digutela:
“Emak ejenploa,
nai badek segitzea
ire lezioa.”

AITA BERE SEMEAKIN

Nekazari zar bat nik
ezagutu nuen,
zeñak bere etxean

lau seme zituen,
lauak ain langilleak,
ain mutill azkarrak,
non beste alakoak
oi dira bakarrak.
Falta bakar bat zuten,
bañan au aundia,
eta zan lauak elkar
ezin ikusia.
Etxean iskanbilla
ikusirik, aita
txit triste egoten zan,
aiek ala naita.
Jainkoak lagundurik,
egun on batean
pensamentu bat zaio
etortzen oean.
Beregana deiturik,
esaten diote:
“Nere seme maiteak,
adi nazazute:
ebaki beazute
makilla me bana,
eta gero etorri
lauak neregana.”
Obeditu zioten
bere lau semeak,
baita ere eraman
beren makill meak.
Orduan esan zion

seme bakoitzari:
“Puskatu bear dirak
makill ori niri.”
Laister zuen bakoitzak
beroa puskatu,
lan onek ez zituen
txit asko nekatu.
“Orra —esaten die—,
orra zein errazki
bakoitzak egin duen
makilla bi erdi.
Orain beste lau makill
bear dira lotu,
eta beaituzute
loturik puskatu.”
Egiten dute sorta
beren makillakin,
ezin puskatu dute
lauen indarrakin.
Ari dirade lertzen
gaisoak alferrik,
ez da puskatutzeko
lauetan indarrik.
Orduan zien aitak
semeai esan:
“Orra, nere semeak,
elkartea zer dan;
izaten bazerate
elkarrekin etsai,
zuek garaitutzeko

askoko da nornai;
baña makillen gisa
elkarturik ongi,
ez dituk gai izango
zuentzat amabi.”

ANTON ETXE-GALGARRIA

Ustez beti jardungo
zuela lanean,
ofizio batean
ez bazan, bestean,
artu zituen Anton
etxe-galgarriak
ofizio-mot asko,
ez bazan guztiak.
Arotzaz gañera zan
errementaria,
argiña, kapagiña
eta dendaria;
gero berriz gañera
zan zapataria;
itz batean, Anton zan
bear zan guztia.
Eziñ esan diteke
zeukan fantesia,
ez ere errikoak
zien enbidia.
Bere auzoan zuen

gizon bat argia,
izengoiti-emalle
guztizko andia.
Onek esaten zuen
karrikan, ferian,
lagunakin arkitzen
zan toki guztian:
"Apostura egingo
diot edozeñi,
eta, ala nai badu,
Antoni berari,
asmatzen derala nik
zer zaion gertatzen
lau urteren barrenen,
ez bada len iltzen.
Ez du jatekorika
izango etxean,
ez ere jakirika
sartzeko eltzean.
Ofizio bat ongi
bear da ikasi,
ez milla ofizio,
eta millak gaizki."
Oraindika lau urte
ez ziran pasatu,
onek esan zuena
bera zan gertatu.
Antonek ezer ongi
ez zuen egiten,
eta asi zitzaion

jendea atzeratzen
alako moduan, non
ez zuen inondik
illabete osoan
egun biko lanik.
Auzokoak esaten
zuen orduantxe:
“Sarri asiko zaigu
Anton etxez etxe.”
Argatika beñere
ez da bear aztu:
bi ofiziok inor
ez du aberastu;
eta bitatik gora
dituzten guztiak,
izan oi dira beti
etxe-galgarriak.

ARRATOIA ETA SAGUEN BATZARREA

Zapiron ill ezkeroz,
sagu ta arratoiak
millaka sortu eta
zeuden guztiz joiak,
zeren, beste katuen
beldurrika gabe,
ziraden beren etxe
guztiaren jabe.
Baña illobatxo bat,

txit mutil sendoa,
Zapironek bazuen
bere antzekoa.
Denborak egin zuen
guztiz eiztaria,
egun oro bazuen
lanaren saria.
Ernaia zan, bortitza,
gañera katarra,
bere aitona bezin
mutiko azkarra.
Goizean, arratsean,
ordu guztietan,
usaika an zebillen
beti zokoetan.
Ez zuten arratoiak
besteaz beldurrik,
ikaratzen zituen
onetxek bakarrik;
zeren, estu-estuan
arkitzen baziran,
beste edozeñekin
burrukatzen ziran,
eta omen zituzten
—ala det aditu—
bein baño geiagotan
zenbait elbarritu.
“Katar deaurru ori
baldin iltzen balitz
—esaten zuten—, ongi

ginduzkek gu anitz;
ikusia zeagok
segurki bestela,
ezin biziko gaituk
luzaro onela.
Atera nai badegu
jatera zulotik,
an diagu gañean
ortzak agerturik.
Ez bagerade herriz
irteten lenbailen,
sarri asiko gaituk
elkar jaten emen.”
Oien artean zan bat
biziro andia,
bizar luzea eta
txit ille zuria;
urte asko zituen,
zan asko jakiña,
mairan jan izan zuen
lau bider iriña.
Onek esaten die:
“Baziakiat nik
nola gindezkean gu
atera emendik,
baita ere biurtu,
zein-ta dan azkarra,
egiten diogula
burla eta farra:
bein baño geiagotan

ikusi dedanaz,
lo egiten dik beti
katarrak egunaz;
lepoan kaskabel bat
ifintzearekin,
iges egiten erraz
dek soñuarekin;
lokarriaz lotutzen
ez dek gaitz lepoa,
zergatik nere ustez
pisua dik loa.”
Guztai zitzaien
ongi iduritu,
baña iñork ez zuen
beretzat aditu.
Batak esaten zuen:
“Ni nago gogorra”,
besteak: “Ni itsua”,
besteak: “Ni gorra”.
Edozeñek ematen
oi du konsejua,
baña nork egiten du?
Or dago kontua.

ATSOA ETA ARKAKOSOA

Gure goiko bizitzan
bizi zan atsoa,
zan elizarakoia,

zan Jaungoikozkoa.
Beti mar mar zegoan
etxean, elizan,
beti paternosterrak
esaten ari zan.
Ez zituen utzitzen,
zernai gerta zedin,
naiz katarroa izan,
naiz sabelean miñ,
egun oroko meza,
errosarioa,
eta bezper-ondoren
zan kalbarioa;
baña zuen gaisoak
eraman txikia,
edozein gauzak zuen
estutzen guztia.
Egun batez ari zan
errabiz atsoa
ezin arrapaturik
gonan kukusoa.
“Zital orrek ez dirak
—zegoan esaten—
oan, ez kanpoan,
pakerik ematen;
ez diat igarotzen
beñere egunik,
Jaungoikoari otoitz
egin gabetanik,
ire ortzetatika

utzi nazan arren,
ala edo onela,
ni libre lenbailen.”
Itz oiek aditzean
nengoan pensatzen
zer gauzak Jainkoari
zaiozkan eskatzen.
Sentitzen det onetan
negar-intziria,
lasterka noa gora;
odolez bustia
topatzen det atsoa
etziñik lurrean,
alkitik eroria
sukal-bazterrean.
Salto egin ondoren
gonatika gora,
arkakoso gaiztoa
igo zan lepora.
Atzera egin nairik
iges egiteko,
eta gero lurrean
oñakin iltzeko,
erori ta jo zuan
erruz su-burnia,
eta idiki zion
buruan zauria.
Orduko aren oju
eta deadarrak!
Gañera ark egiten

zituen negarrak!
Ordu bi gutxienaz
egon zan onela,
zirudien larrua
kentzen ziotela.
Negarrak utzi eta
asten da atsoa
arra eta demoka,
zeren kukusoa
igesi joan zitzaion,
eta arratsean
beldur zan izan zezan
berekin oean.
Au da gertatzen dana
kristau askorekin,
ezin duten orduan
nai dutena egin;
baña engañatutzen
dirade gaisoak,
gizonak, agureak,
andreak, atsoak,
baldin uste badute
gure Jaungoikoak
entzungo dituela
aien errezoak,
igesi bidaltzeko
udan kukusoak,
ez badira garbitzen
etxeko zokoak.
Gure oroitzak dira

gauza txit ederrak,
ez ordea bagera
otoitzle alferrak.
Errezoak egiten
diran bitartean,
jardun bear du beti
bakoitzak lanean.
Ez badegu ereiten
soroan azia,
ez zaigu etorriko
zerutik garia;
eta, badaukatzigu
zikiñak zokoak,
ez zaizkigu faltako
tximitz kukusoak.

ASTOA ETA IGELAK

Asto bat zijoan bein
egur-zamarekin,
pentsamentu illunak
egiñaz berekin.
Bide luzea zeukan,
pisua zan zama,
ogei urte baziran
il zala aren ama.
Gañera zeukan guztiz
andia gosea;
ez zan milagro triste

gaisoa joatea.
Zingiradi batean
orra non dan sartzen,
eta, arrantz egiñaz,
asten da esaten:
“Madarikatua, bai,
madarikatua
Jainkoak niri eman
diraden patua!”
Au entzutean, ango
igel kantariak
itxi omen zituzten
beren belarriak,
ez aditzeagatik
aren deadarrak,
zeren bestela lertu
nai zituen farrak.
Batek esaten dio
saietsera joanik:
“Ez dago emen, jauna,
erremediorik;
ona gu ere nola
geran emen bizi:
jaio giñan ezkeroz
ez degu ikusi
beste gauzarik, baizik
loia eta ura,
ez izanagatika
gutziz oien gura.
Onelaxe Jainkoak

dauka agindua,
ez balitz bezela da
guretzat mundua;
eta jakin bear du
bere mesedeak:
millaka, diotenez,
dira abereak,
bizitzen diradenak
lur-pean sarturik,
ikusten ez dutela
sekulan argirik.
Aiek beti kontentu
omen dira ala;
ez degu izan bear
guk ere onela?
Bai, guk beti daukagu
umore alaia,
ezin egingo degu
berdin gure naia;
konparatuaz aien
suertearekin,
kontentu izango da
nor berearekin.
Au da gertatzen dana
munduko gaitzakin,
baldin neurtzen badira
andiagoakin.
Zu emen zaude orain
zingiran sarturik,
eta ateratzeko

ez dezu kemenik.”
Birauka asitzen da,
baña “Txito, txito!
—igelak deitzen dio—
Begirozu ito!
Gaur zure ez-bearra
guztiz da andia,
baña ez da oraindik
galdua guztia.
On da jakin dezazun:
da pazientzia
gaitz andia egiten
duena txikia.
Norbait etorriko da
ortik edo andik,
lagunduko dizuna
irteten emendik.”
Au aditu ondoren,
aren mesedea
asi zan piskabana
artzen asnasea.
Egon zan geldi-geldi
denbora luzean,
gañeko zamak zeukan
uraren gañean.
Indarrak zitzaizkion
piskaka etorri,
eta irteteko gai
orra non zan jarri.
Zingiratik kanpora

atera zanean,
astoak esan zuen
bere barrenean:
“Nik emen ikusten det
gaur nere burua,
aditu deralako
igel-konsejua;
bestela, jira-bira
arras nekaturik,
zingiran geldituko
nintzan ni itorik.
Ez det nik, ez, aztuko:
da pazientzia
gaitz andia egiten
duena txikia;
eta mundu onetan
nai duenak bizi,
zernai gerta dakion
ez du bear etsi.”

ASTOA TA TXAKURRA

Asto bat, zamatua
alportx andiakin,
zijoan feriara
nagusiarekin.
Etxeko artzanorak,
naiz bai, naiz ez deitu,
beti-beti ondotik

oi zion seguitu.
Ibilli ziranean
iru bat legoa,
gure nagusi orrek
sentitzen du loa.
Gelditzen du astoa
bide-bazterrean,
an bazkatzen dabillen
lo egin artean.
Etziten da soroan,
asten da zurrungaz,
oroitu gabetanik
astoaz, ez zamaz.
Bazebillen astoa
soroan bazkatzen,
eta txakurrak zion
atzetik jarraitzen;
baña, nola astoa
zan guztiz andia,
atzeman ezin zion
ortzaz janaria.
Orduan bi eskuak
gorontz altxaturik,
asitzen da ibiltzen
txutika jarririk;
eta asto gaiztoak,
altxarik bizkarra,
egiten zion beti
burla eta farra,
esaten ziolarik:

“Au bai komedia!
Dirurik itsuaren
txakur dantzaria.”
Eta onek esaten
dio astoari:
“Piskatxo bat, maitea,
berontz makur ari!”
Onela dabiltzala
poliki jostatzen,
leoi bat basotika
zaie ateratzen.
Artzanora lasterka
badijoa andik,
utzitzen duela an
astoa bakarrik;
onek egiten dio
ari deadarra,
ark berriz urrutitik
egiten du farra.
Asto gaisoa il zan,
ez dago dudarik,
eskarmentu eder au
guztiori utzirik.
Besteak laguntzea
guri nai badegu,
guk ere besteai
lagun beaiegu.

ERLIKI-DUN ASTOA

Asto bat, zamatua
gutziz erlikiaz,
zijoan iñon ezin
kabiz fantasiaz,
zergatik, zutenean
jendeak ikusten,
belauniko ziraden
bereala jartzen,
eta bide zitzaion
buru artan jarri
egiten ziotela
belauniko ari;
argatika zeraman
gutziz goratua
eta aizez betea
gaisoak burua.
Onela ikusirik
esan zion batek:
“Agur oiek iretzat
dirala uste dek?
Ez dek besterik falta,
baizika astoa
adoratzea ala
nola Jaungoikoa!
Makurtu ezak ire
aizezko burua,
ez dituk agur oiek
iretzat, kaikua!

Ez al dakik dijoala
kutxa bat gañean
erlikiaz betea
ire bizkarrean?”
Zenbat asto badira
gizonen artean!
Arkitzen diranean
enpleo batean,
sinistatzen oi dute
gure kortesiak
dituztela gugandik
aiek mereziak;
eta gero, galtzean
beren enpleoak,
gelditzen oi dirade
len bezin astoak.

LEOIA ETA ASTOA

Leoi andi bat zan bein
goizetik atera,
asto bat bere lagun
arturik, eizera.
Artzai-txaol batean
uzten du astoa,
bide-txidori batera
bera badijoa.
Astoak bear zuen
andik arrantz egin,

leoiaganontz eiza
guztia joan zedin;
ain gogoz egiten du
astoak arrantza,
non zuen leoiaren
orruaren antza.
Abereak dabilta
batetik bestera,
eta gero dijoaz
bide-txigorrera.
Astoak sartu zien
alako beldurra,
non ez zuten ikusten
begiakin lurra.
Jaten ditu leoiak,
utzirik ezurak,
usaiez ase ditzan
astoak sudurrak.
Ezurak ikustean,
esan emen zuen:
“Piska bat lentxeago
egon banintz emen,
ez nuen, ez, utziko
bakar bat bizirik,
ez zezen, ez kata-motz,
ez otso, ez artzik.”
Aditu zuenean
fanfarroikeria,
leoiak egin zuen
algara aundia.

Onen tripa betea
gelditu zan eizez,
astoarena berriz,
len bezela, aizez.
Farra eragiten du
gizon beldurtiak,
esaten asten bada
bere balentiak.

TXIMUA LOTSATURIK

Egazti eta arrai,
abere guztiak,
deitu omen zituen
Jupiter andiak,
eta esan zioten
far irriarekin:
"Zertarako zatozten
beazute jakin:
umerik ederrena
dakarkidanari,
emango diot nik gaur
lepande bat sari
zillarrezko letretan,
esaten duena:
Guraso guztietan
au dek abillena."
Badijoaz lasterka
guztiak etxera,

beren umeak artu
eta ekartzera.
Biurtutzen dirade
guztiak batetan,
dituztela umeak
beren bizkarretan.
Tximuak erakusten
du bere umea,
jaio berria eta
gañera emea.
Jupiter asitzen da
eztanda egiten,
duenean alako
figura ikusten.
Lertu nai dute ere
abere guztiak
farraz eta algaraz
txiki ta andiak.
Tximu gaisoa arras
zaiote lotsatzen,
eta da Tetuana
iges andik joaten.
Nolatan atrebitu
zan eramatera
ume itsusi ura
guztien aurrera?
Zergatika ez oi da
ume itsusirik,
bere gurasoentzat
ederra ez danik.

JUPITER ETA ASTOA

Jupiterri, zeña dan
jaungoiko falsoa,
kejatu zitzaion bein
biziho astoa:

“Ez dakit —esan zion—
nola dan astorik,
baratza-zaia nausi
izan nai duenik.
Egun oro narama
plazara berekin,
aza, porru, tipula
eta letxuakin.

Oiek saldu ondoren
biurtzen naiz nekez,
arras zamaturika,
etxera, gorotzez.

Ezer ere jan gabe
nabill erdi illa,
goitik bera sentitzen
derala makilla.”

Astoaren negarraz
Jauna da kupitzen,
eta tellagin bati
an dio bialtzen.

Laster biurtzen zaio
herriz Jupiterri,
esanaz: “Tellagiñak
iltzen narabill ni.

Jan gutxi ematen dit,
makil-golpe asko,
nonbait eraman beat,
jauna, zenbait txasko!
Emen nator berorri
berriz eskatzera,
arren, bidal nazala
beste etxe batera.”
Larru-zale zar bati
bidaldutzen dio;
astoari obeki
ez dijoakio.
Biurtu zan lasterka
berriz kejarakin,
eta jaunari zion
onela itz egin:
“Jauna, larru-zaleak
zamatzen nau erruz
egun oro idi, bei
eta zaldi-larruz.
Nere uste guztian
dauka deseoa
zamaz lerturik illa
ni ikustekoa;
nola nere larrua
dan aski andia,
nerekin egin nai du
segurki zagia.”
Jaunak, entzunik aren
itz negargarriak,

itxi ziozkan arras
bere belarriak,
esaten ziolarik:
“Emendik aurrera
ez datorrela iñor
keja ematera;
ez naiz iñortxo ere
berdin kupituko,
beren patuarekin
dira geldituko
asto eta txerriak,
mandoak, zaldiak,
gizon eta abere
diraden guztiak.”
Iñork ez du estimatzen
bere suertea,
ustez dala besteena
askotzaz ohea.

MEDIKU ITZ-ONTZIA ETA ERIA

Eri bat guztiz gaizki
zegoan oiean,
eta, pulsua ongi
artu ondorean,
asten zaio esaten
bere medikua:
“Gaizki iduritzen zat
gaur zure pulsua:

indarrika ez dauka,
eta bitartean
eun golpe daukatzi
minutu batean.
Sendatu ziñalako
zerade zu poztu,
eta zerbait jan dezu,
edo zera oztu.
Alferrik ukatuko
dirazu zuk niri,
zerbait onelakoxe
pasa zazu zuri;
bestela, segurua naiz,
ez daukat dudarik,
aterako zindudan
nik gaitz onetatik.
Milla atera ditut
nik nere denboran,
ez da bat bakarrika
beste mundura joan.
Gauzarika onena
izango da emen
zure konfesoarea
deitzea lenbailen;
ongi dakizu, iñork
esan gabetanik,
ez dakarrela iñoiz
gauza onak gaitzik.”
Asarretutzen zaio
onetan eria,

eta esaten dio:
"Berritsu andia,
zertan ari zerade
aitzakia billa?
Gaitz onetatik zuri
il zaizkitzu milla.
Ez det jan, ez naiz oztu,
ez det itz bat egin,
ez orain, eta ez len,
ez bada zurekin.
Zure betiko itza
eta erausia
jakizu asko dala
iltzeko eria.
Zure aitzakiakin
zoazkit emendik,
ez det nik sendatzeko
mediku bearrik.
Beti esan dirazu
ezer ez derala,
eta orain diozu
gaizki nagoala?
Badakit nik zer dedan,
ez nago ain gaizki,
erausi gutxirekin
jarriko naiz ongi."
Burua makurturik
medikua joan zan,
eta gero eria
laster sendatu zan.

Itz gutxi, begi ona,
andia zentzua,
oiek egiten dute
ona medikua;
baña oraindika da
mediku ohea
osasanari ongi
kontu egitea.

MANDO ZAMATUAK

Bi mando zijoazen,
biak zamatuak,
bata eta bestea
elkarri lotuak.
Bata zijoan arras
ederki jantzia,
zinta, kaskabel, lumaz
betea guztia;
atzetzika zintzillik
zeukan joaleak,
iduki oi zituen
airean kaleak;
bizkarrean zeraman
urre-zama andia,
ongi botatzen zion
jendeak begia.
Bestea lotsaturik
zijoan arlotez,

zamatu zutelako
zaku-garagarrez.
Ez ziran nerekiko
arrotzeko galak,
bizkarrean zituen
garagar-kostalak.
Irteten zaiozkate
lapurrak bidean,
mando ederragana
zuzen-zuzenean.
Ostikoka asten da
egiñaz irrintzi,
eta alderatutzen
ez die nai utzi,
beldurrez geldi dedin
jantzi gabetanik,
bota zuen bezela
amak sabeletik.
Nola zituzten txispak
lapurrak berekin,
ill eta joan ziraden
diruak arturik,
ukitu ere gabe
bestea utzirik.
Au ikusi ondoren,
bigarren mandoak
esan omen zituen
itz onelakoak:
“Deaurru-etxeraño
bijoia jantzia,

laburtu bear badu
onela bizia;
naiago det eraman
askoz garagarra,
ezen ez urre-zama
edo naiz zillarra.”

AZERIA ETA MATSAK

Zintzillika daudela,
ditu azeriak
ikusten mats-mordoak,
eldu ori-oriak;
jartzen da begiraka
gaisoa goseak,
badabiltzkio tripak
jateko zaleak.
Saltoka asitzen da
alegin guztian,
ordu bian badabill
ezin iritxian.
Ikusi zuenean
ez zala protxurik,
matsai esan zien,
begia jasorik:
“Zaute, zaute, mordoak,
zaute osto-pean;
ez zerate oraindik
jarri sasoiean.”

Zerbait nai eta ezin
badegu iritxi,
azeriak bezela
bear degu utzi,
“Zaude, zaude —esanaz—,
zaude or berean,
zergatika ez zera
jarri sasoiean.”

LEOIA ETA ARRATOIA

Leoi baten atzapar
andi zorrotzetan
arratoi bat zegoan
gutzizko penetan,
ez zergatik jan zion
gazta, txorizoa,
bai zeren kentzen zion
gabetako loa
ordu guztietako
aren ibilliak,
uzten ez ziolako
itxitzen begiak.
Negarrez asten zaio
barkazio-eske;
uzten dio, esanaz:
“Orra; baoake.”
Ozta illabete bat
oraindika joan zan,

orra non leoi ori
erori zan tranpan.
Asitzen da egiten
alako orruak,
non ikaratzen ditu
ango inguruak.
Ezagutu ondoren
orruan leoia,
lasterka an dijoa
gure arratoia.
Ortzakin bereala
du soka puskatzen,
eta tranpatik libre
du leoia uzten.
Nork esan leoiari
orduan bizia
eman bear ziona
zala arratoia?
Argatika munduan,
andi izan arren,
ez daki batek noren
bear izango den.

OTSOA ETA ARTZANORA

Otso andi bat mendiak gora
zijoala goiz batean,
artzanor andi batekin topo
egin zukean bidean;
zeuden lekuan gelditu ziran
biak elkar ikustean.

“Adiskidea —dio otsoak—
agur andi bat egiñik—,
noiz ezkeru zu onen goiz emen
zure ardiak utzirik?
Ez zera, ez, gaur motibo gabe
apartatu artaldetik.”

Artzanor orrek erantzun zion:
“Nai nuke egon zurekin,
aurrera nola bizi beagun
biok dezagun itzegin;
zuk nai badezu, nere partetik
izango nuke atsegin.”

Ikusi zuen otso andiak
zeukala ark lepandea,
artzen ziona lepo guztia,
burni-arantzez betea,
eta ez zala orduan erraz
arekin burrukatzea.

Lotsa zan baño beldur geiago
bere barrenen sentirik,
“Gusto orixen —erantzun zion—
gaur bertan izan nai det nik;
eser gaitzen ementxen bertan
izan ez dedin esparik.”

“Iduritzen zat —dio artzanorak—
dala guretzat ohea
aurrera biok len degun baño
obeto elkar artzea,
batak besteari esanaz beti:
Agur, nere adiskidea!

Nork izango du, esan zadazu,
bizi guztian gogoa,
beti barrenen idukitzeko
elkarrentzat gorrotoa,
ta letagiñaz puskatutzeko
bata besteari lepoa?

Ez dagokio beste aldetik,
esan bear da egia,
zu bezalako indartsu bati
persegitzea ardia,
zergatika da aberetxo bat
ona eta izutia.

Zuretzat askoz, dudarik gabe,
dira kontresta obeak
leoiak, artzak ta kata-motzak,
eta basoko urdeak;
oiekintxe zuk egin beaituzu
aurrera zure peleak.”

“Arrazoi dezu —dio otsoak—;
ez duenari indarrik
lotsagarri da gaitz egitea
ta ez uztea bizirik;
ez det geiago alakoakin
nik izan naiko konturik.

Ematen dizut itza egiaz
ez naizela ni aurrera
joango emendik zure alderontz
zure ardiak jatera,
baizika zuek bisitatuta
zuen ordenak artzera.”

Orduan elkar despediturik
biurtu ziran etxera,
bata bestearen beldurrik gabe
soseguz asnas artzera,
eta kuidado guztitik libre
deskansuz lo egitera.

Egun batzuek igaro eta
asi zan ardi kontatzen,
eta artzanora, ikusirika
ari zirala bakantzen,
len bezin berri asi izan zan
egun eta gauak galtzen.

Gaitz egiteko griña gaiztoa
batek badakar jatorriz,
gaztetandika ez badu uzten,
gaitza egingo du berriz,
naiz bere itza eman dezala
milla eta milla aldiz. (1)

MENDIA AURGITEN

Turmoiak ortik, tximist emendik
ikusirika, jendea
egun batean bide zegoan
arras beldurrez betea,
eta, egiaz, posible etzan
sosegurik izatea.

(1) Ikus ipui onen beste bi era liburuaren bukaeran.

“Dударик gabe —esaten zuten-
juizioko eguna
da aditzera tormenta onek
guri ematen diguna,
bear bezela prestatutzeko
egin zagon al deguna.”

Onetan norbait badator eta
orra nun duen esaten
txit urrutian mendi andi bat
omen dagoala aurgiten,
onetarako deadar aiek
dituela ark egiten.

Ikara utzi alde bat eta
jendea dago ixilik,
zer gauza andik bear ote duen
atera aren barrendik,
zergatik gauza txikirik ezin
diteke irten menditik.

Badator norbait berri andia
jendeari ematera:
dala mendiaren sabeletika
sagu txiki bat atera;
au aditu ta jende guztia
juan zan algaraz etxera.

Onela gerta oi da, kristabak,
maiz urrutiko gauzakin,
argatika guk bizi beagu
gure errepain zarrakin,
geldi ez gaitezen, asko bezela,
gero txalma andi batekin.

Urrutitika egiñagatik
intxaurrak soñu andiak,
alderatuta izan oi dira
askotan intxaur txikiak;
egia andi au erakutsitzen
digu esperientziak. (1)

AIZKORA ETA KIRTENA

Egurgille bat sort egitera
joan zan basoan barrena,
eta bidean galdu zitzaion
aizkoratika kirtena.
Sort egiteko beste berri bat
egin nairik aizkorari,
gaia eskatzen asi zitzaien
an zan arbol bakoitzari.
Iñork ez zion gairik eman nai,
eta arteak bakarrik

(1) Ikus ipui onen beste era bat, liburuaren bu-
kaeran.

adar metxo bat eskeiñi zion
 gaiso artaz kupiturik.
 Kirten berria egin ondoren
 sartzen dio aizkorari,
 eta golpeka asitzen zaio
 arte arixe berari.
 Au ikusi ta asten dirade
 zumarrak eta lizarrak
 arte onaren kontra egiten
 oju eta deadarrak:
 “Asto andia —esaten die—,
 ez al ekien oraindik
 egurgilleak bizi dirala
 guk galtzen degun bizitik?
 Orra zer esker ematen dian,
 orain asi dek igandik,
 sarri ez geatzik bat bakarrika
 basoan utziko zutik.
 Iri bakarrik egin bazian,
 tontotzar orri, kaltea,
 ezer ez uen; baña guretzat
 ez dek izango ohea.”
 Bere etsaiari eman badio
 noizbait norbaitek eskua,
 len edo gero ikusiko du
 galdurik bere burua. (1)

(1) Ikus ipui onen beste era bat, liburuaren bu-
kaeran.

ERBIAK ETA IGELAK

Abarrotsak erbiak
ditu ikaratzen,
eta lasterka iges
asten dira joaten.
Anitz ikara andi
baten ondorean,
bein esan omen zuten
elkarren artean:
“Ikaraz laborrian
beti egotea,
egia esateko,
ez da bizitzea.
Goazen emendik, goazen,
zingira batera,
geren buruak bota
eta itotzera.
Zertarako Jainkoak
ginduen erbiak
egin mundu onetan
onen beldurtiak?”
Aien golpearekin
guztiak batean
sartu ziran igelak
ikaraz loi-pean.
Ikusi zutenean
pesta au erbiak,
“Oien parean gaituk
soldadu aundiak”

esaten dute, eta
guztiak bertatik
irten ziran kanpora
zingira artatik.
Onela egiten da
gure suertea
txarragoen aldean
zan baño ohea.

LEOIA ETA AKERRA

Txarak eta mendiak,
beak eta goiak
ongi ikusirika
goiz batez leoiak,
esan zuen beregan:
“Neabilk alperrik,
ez diat arkituko
berdin gaur nik eizik.”
Zañak jaten asi zan
iltzeko gosea;
onetan aditzen du
akerraren bea.
Gora begiratzen du
eta du akerra
ikusten arkaitz-puntan,
dan bezin ederra.
Nola ara leoia
joan ez zitekean,

kokorika jarririk
aitzaren oñean,
asten da betik gora
akerrari deitzen:
“Jatxi zaitez lenbailen,
wazu ikaratzen.
Perill andian zaude
or, nere maitea;
polikitxo jatxiaz
etorri zaitea.
Obe da muskilla jan
emen seguruan,
ezen ez elorria
zu zauden lekuan.”
“Noiz ezkerro —akerrak
dio goitik deitzen—
zu akerren perillak
zaitu ikaratzen?
Zalameriakin ni
ez naiz engañatzen;
zu or txit ongi zaude,
ni txit ongi emen.”
Nork itzegiten digun
eta zer fiñekin,
al badegu, lendanik
bear degu jakin.

TXABERAMA ETA ARRANOA

Txaberamak darama
gañean maskorra,
barekurkullo gisa
baña txit gogorra.
Arra bat ibiltzeko
bear ditu noski,
nik ikusi dedanez,
egun bat edo bi:
Arranoa ikusi
eta egun batez
ojuka esan omen
zion, diotenez:
“Mesede bat eskatu
bear dizut zuri:
egako lezioak
ekaizkitzu niri,
ikusteko an goitik
dan zeru guztia,
illargia, izarrak
eta eguzkia;
oiek ikusi eta
jatxitzean berontz,
ibilliko naiz gero
orrontz eta onontz;
ez da izango iri,
ez erri txikirik,
egan ikusi gabe
utziko dedanik.”

Arranoak izkuntz au
aditzearekin,
nai omen zuen bertan
algaraz ler egin.
Erantzun omen zion:
"Jainkoak airean
nai du ni ibiltzea,
zu berriz lurrean."
Txaberama badago
bere temarekin;
artzen du arranoak,
darama berekin.
Odeietatik gora
eraman ondoan,
asten zaio galdetzen
kontentu dagoan.
Ezetz, esaten dio,
beldurrez beterik,
eta jatxi dezala,
arren, goi artatik.
Orduan arranoa
zaio asarratzen,
batetan uzten dio,
arkaitz bat du jotzen,
eta, izanagatik
guztizko gogorra
bere bizkar gañean
zeraman maskorra,
milla puska egin zan
arkaitza jotzean.

Arranoak goitika
zion bitartean:
“Eskarmentatu bitez
jende temosoak,
buru arroak eta
enbidiosoak,
ikusirik onela
zer zaien gertatzen,
zeren konseju onak
ez dituzten artzen.”

ASTO LEOI-LARRUZ JANTZIA

Astoak leoiari
enbidia zion,
eta pensamentu bat
burura zitzaion:
leoi-larruz jantzirik
mendira irten zan,
an sortu zuen festa
ikustekoa zan!
Otsoak, basurdeak,
artzak, azeriak,
astoaren igesi
zebiltzan guztiak.
Orra non artzai batek
bere etxolatik
zein dan ezagutzen du
belarri-ertzetik.

Artzen du makilla bat,
badijoakio,
golpeka bereala
erasotzen dio.

Asitzen da astoa
miñez arrantzaka,
abereak dijoaz
argana presaka,
zergatik egin zuen
gaisoak arrantza,
baldin bazuen ere
leoiaren antza.

Ikusi zutenean
lurrean astoa,
arras elbarriturik
makillaz gaisoa,
leoi-larru zar batez
erdi estalia,

eta ortzen artean
zeukala bizia,
eztanda egin nairik
omen ziran asi,
ikusirika noren
zebiltzan igesi.

Zenbat asto ez dira
munduan ikusten,
leoiaren papera
dutenak egiten,
eta, kentzen bazaie
larrua gañetik,

gelditzen diradenak
arras lotsaturik?

ORIÑA ETA AIENA

Zangak aditu eta
landetan oriñak
egiten ditu iges
bere alegiñak.
Or salto, emen salto,
lertzen ibillirik,
ezin arkitu zuen
iñon estalperik.
Estutasun onetan
zanean ikusi,
aien-pean jarri zan
txakurren igesi.
Nola bait-zan aiena
guztizko txikia,
kokorika bildurik
zegoan guztia;
aren fortunarako
ostoak andiak
zeukazkien aienak,
eta ugariak.
Seguru zegoala
beregian ustean,
osto jaten asi zan
faza ederrean;

eta gure oreña
alderdi batetik
agerian jarri zan
uste gabetanik.
Nola dituzten kastaz
eiztari txakurrak
txit zorrotzak begiak,
zorrotzak sudurrak,
usaia sentiturik
die begiratzen,
ikusten dute eta
bertan arrapatzen;
pustatu zuten oreñ
esker gabekoa,
jaten ari zalako
matsaren ostoa.
Alako mesedea
artu ondorean,
eta ostotik gabe
aiena uztean,
oreñak izan zuen
ongi merezia
tzakur aien ortzetan
uztea bizia.
Len edo gero beti
gure Jaungoikoak
gaztigatzen oi ditu
esker gabekoak.

EIZTARIA ETA ZAKURRA

Pinto erbi-zakurra
txit zan eiztaria,
beñere ez zitzaion
faltatzen zauria;
basurdeen eizera
zoan bakoitzean,
odola zeriola
sartzen zan etxean.
Guztiz zartu zan Pinto,
eta orregatik
nausiak zerabilen
eizaren ondotik.
Egun batez atzeman
zuen basurdea,
baña ortzen artetik
joan zan aberea.
Nausiak deitzen dio
ojuka, *dak, dak, dak,*
arrapatzen du berriz,
sartzen dizka ortzak.
Nola bere aldetik
ez zan basatia,
igesi joanagatik,
mutill beldurtia,
asten zaio muturka
eramanik griñak,
eta sartzen diozka
bere letagiñak.

Uzten dio zakurrak,
iges egiten du;
zauriz betea Pinto
guztia uzten du.
Nagusiak, arturik
makill bat eskuan,
jotzen du bizkarrean,
jotzen du buruan.
Pinto gaisoa dago
lurrean etziñik,
negarrez deitzen: "Jauna,
ez daukat indarrik;
adiñ andiak dakar
indarren galtzea,
basurde ori herriz
da guztiz gaztea;
sei urte gutxiago
baldin banituke,
ori eta beste bi
nik ilko nituke.
Oroitu bear luke
nere nagusiak,
oraindaño atzeman
ditudan guztiak,
il ditudala beti
txiki eta andi,
eta egun batean
ill nituela bi.
Baña gaur bakarrik da
berori oroitzen

lenago zein nintzan ni,
ez orain zein naizen.
Ongi esan nezake:
auxen bai pagua!
Onen leial izana
daukat nik damua!
Baña ez, gaizki diot;
zakurren jabeak
ez dirade guztiak
onen eskergeak;
berori bezelako
nagusiagatik
errepañak diola
sinistatzen det nik:
Esker gabeetatik
sekula guztian
ez esperatu ezer,
bazaude premian.”

BADA JAUNGOIKO BAT

Zerua eta lurra
eta itxasoa
dagozkigu esaten
badala Jainkoa;
iñork sekulan balu
onetan dudarik,
ez luke bere buru
esatea baizik:

“Beti argi emanaz,
len bezin andia,
egun oro ikusten
degu eguzkia;
urteak joanagatik
millaka pasatzen,
len bezelaxe digu
argia ematen.
Nork egin ote zuen
—zer arrigarria!—
beñere akabatzen
ez zaigun argia?
Nork, igaroagatik
egunak, urteak,
gorde-arazten diozka
lenengo bideak?
Baldin irteten balitz
bide aietatik,
ez litzake gelditzen
gizon bat bizirik;
piska bat joaten balitz
arontz eguzkia,
laster lezake otzak
il mundu guztia;
eta onontz baluke
pauso bat ematen,
bereala beruak
ginduke itotzen.
Ondarrak ez baleza
geldi itsasoa,

orobat litzateke
mundua itoa;
baña, Jaungoikoaren
ordenak arturik,
beñere igarotzen
ez da ondarretik.”

Baldin noizbait norbaitek
nai baluke jakin
lenbiziko gizona
zeñek zuen egin,
bijoia aditzera
jakintsun andiak,
eta ikusiko du
zer astakeriak
aien mingañetatik
dituen aditzen,
eta nola len bezin
illun dan gelditzen.
Galde bizaie nola
guk mundu guztia
ikusteko asko degun
begiko ninia;
nola odoiak gora
joaten dan artea,
dan posible ain azi
txikitik sortzea;
nola, irten bezala
txittoa arraultzetik,
ez duen utsegiten
mokoka alerik;

nola enadak egin
oi duten kabiak,
arriturika uzten
dituzten guztiak.
Zer erantzungo dute
gizon jakintsuak,
gauz oietan badira
gu bezinitsuak?
Atozkit onontz orain
zu, gizon zoroa,
ukatzerara oraindik
badala Jainkoa.
Eriotzeko orduan
aditzen badizut,
egia diozula
sinistuko dizut;
orduan, nere perill,
ao orretatik
Jainkoaren izena
adituko det nik.
Osasuna danean,
bai ere indarra,
gizonak egin oi du
Jaungoikoaz farra;
baña galtzen baditu
bat eta bestea,
orduan aitortzen du
ark bere jabea.
Ez da mundu onetan
iñon naziorik,

Jaungoiko bat badala
aitor ez duenik;
azkenean mendiko
gizon basatiak
egi au sinistatzen
oi dute guztiak.
Bada, bai, Jaungoiko bat,
danik justuena,
zerua eta lurra
egin dituen a.
Zuk egin zenduen, bai,
nere Jaungoikoa,
lenbiziko gizona
zure antzekoa;
zuk egiñak dirade
eguzki, illargia,
izar ederrak eta
itxaso andia;
oiek ikusten dira,
gauaz ta egunaz,
alabantzak egiten
zure ontasunaz,
zure jakinduriaz
ta anditasunaz.

GAUZARIK TXIKIENETAN DA AUNDIENA JAUNGOIKOA

Nork esan gure Jaungoiko onak
gauzarik txikienetan
poderiorik andienaren
muestrak dizkigula eman?
Au ikusteko istoria bat
on da nik konta dezadan.

Ingume zuri itsusi batek
oi ditu udaberrian
millaka arraultzak or-emen uzten
masust-arbolen orrian,
au jan dezaten, andik irtenik,
arrak alegin guztian.

Ala gertatzen da, zergatika,
ozta dirade irteten,
berealaxe asten dirade
gogotik ostoak jaten;
illabetean gutxienean
ez dira jaten gelditzen.

Ostoz aseaz egiten dira
beatza bezin lodiak,
eta orduan aiek aotik
botatzen duten lirdiak,
berak jiraka darabiltela,
uzten ditu estaliak.

Badirudite ezkur-aleak
orduan oso-osoak,
aur jostatzeko boltsa batean
norbaitek sartutakoak;
nork sinistatu, bear dutela
piztu gero onelakoak?

Uda berria datorrenean
asten dirade irteten,
txulo bat boltsan egin ondoren,
eta egoak zabaltzen,
zergatik boltsan diran artean
inguma dira biurtzen.

Gero arraultzak, amak bezala,
arbol-ostoa egiñik,
berealaxe, oientxen gisa,
gelditzen dirade illik;
gure bizia laburra dala
ez degu zer kejurik.

Aien lirdiak, zeñak dirudi
armiarmaren sarea,
boltsa gisara dagoalako
du izena kapulea;
zirikuaren izena artzeko
falta zaio iruitea.

Ziriku au da zuria edo
arto-bizar kolorea,
gero bakoitzak ematen dio
nai baldin badu ohea,
purpurarena jantzi beaueña
baldin bada erregea.

Kolore gorri purpurarena
maskor baten barrenean
maskorra jaten gosez asi ta
txakur batek ondarrean
arki-arazo zuen, muturra
tintez busti zuenean.

Orra erregeen soñeko ederrak
inguma batzuen lana,
eta kolore gain-gañekoa
maskortxo batek emana;
au ikusi ta zein da gizona
aurrera arrotuko dana?

Oraindik balitz norbait munduan
nai ez duena sinistu
bear degula dudarik gabe
denboraz guztiok piztu,
sinistamentu milagrozkoko au
ingumak dio erraztu.

KUTUNA

Nere adiskidea,
bear dezu jakin
gertatutzen oi dana
munduan gurekin:
Iñor ez da kontentu
bere suerteaz,
enbidia gaiztoa
du batak besteaz.
Nekazariak dio:
“Zorionekoak
dira maiorazkoak
ta indianoak.”
Oiek diote berriz:
“Pozezko bizia
munduan daramana
da nekazaria.”
Medikuak nai luke
izan letradura,
onek merkataria
edo medikua;
ezkonduak ezkongai,
ezkongaiak senar,
ezagutzen ditut nik
onelako amar.
Nork ote dauka bada
arrazoi onetan?
Ez batak, ez besteak,
diot nik benetan;

arrazoia da beti
arkitzen erdian,
ez geiegian eta
ez gutxiegian.
Baldin geiegi badu
batek ondasuna,
geienetan faltatzen
zaio osasuna;
eta, nola au gabe
ez dan zori onik,
ozta arkitzen oi da
kontent aberatsik.
Pobreak oi du berriz
osasun andia,
apetitu azkarra,
janari txikia;
argatik bizitzen da
beti inbidiaz,
beti gaizki itzegiten
aberats guztiaz;
eta fortunaz bera
aberasten bada,
len baño gaizkiago
benturaz bizi da.
Begira zuk dakizun
gizon lodi ari,
nik ezagutu nuen
ura nekazari,
goizetik arratsera
beti aitzurrean,

osasun onarekin,
umore onean;
aberastu zan guztiz
Ameriketatik,
baña geroztik ez du
osasuna onik;
janak eta edanak,
lanik ez egiñak
emanak ditu orrek
gaur dituen miñak;
eta nola bait-daukan
odolak josia,
ill oro gutxienaz
bear du sangria;
amar legua oñez
egiteko, ark len
beste ainbeste ordu
geiegi zituen;
eta ezin liteke
gaurko egunean
ordubetean ere
ibilli bidean.
Zertarako dirade
gure ondasunak,
falta bear badigu
egin osasunak?
Ez da, ez da munduan
bear diru asko
pozez eta kontentuz
bizi izateko;

eta umore ona
daukanak naikoa,
non-nai dauka bizitza
zorionekoa.

Jainkoak ala nairik,
dirade txit gutxi
ezin ditezkeenak
lan egin ta bizi;
gañerakoak dira
alfertzar utziak,
lanika egin gabe
ongi bizi naiak.

Erleakin Jainkoak
digu erakutsi
nola bizi munduan,
nai bada ikasi:
dirade langilleak,
dira kontuzkoak,
ez digute esango:
Gero gerokoak.

Pozik jango luteke
gaisoak guztia,
ain neke andiz egin
oi duten ezta.

Baña oroitzen dira
badala negua,
orduko beautela
egin gordaidua.
Ala, ez dute jaten
daukaten ezitik

egun oro gaisoak
piskatxo bat baizik.
Eta, negu gogorra
etortzen danean,
jan ta lo antxen daude
deskansuz eultzean.
Mantentzen dituenak
aireko txoriak,
itsasoko arraiak,
lurreko piztiak,
ez du iltzen utziko
goseak gizona,
kontuzkoa danean
ta langille ona.
Izan ezkerro jana,
edana, jantzia,
gañerako guztia
da erakeria.
Enpleo eta onrak,
aberastasunak,
dirade banidade
ta arrotasunak.
Nork duen zori ona
jakin nai badegu,
plazetara joatea
besterik ez degu.
Lana erruz egiten
duena astean,
an dabill dantzaz lertzen
kontentuz jaiean.

Ez da iñon festarik,
ez da merkaturik,
gogo badu ikusi
ez dezakeenik.
Nai badu ostatua,
nai badu kafea,
asko du lenbiziko
tabernan sartzea;
mai ona topatzen du
gogo onarekin,
eta ez zaio falta
norekin itzegin.
Asko du pasatzeko
ark egun guztia
txopin bat ardo eta
lau kuartoko ogia.
Ez du kotxe bearrik,
ez ere zaldirik,
makilla bat asko du
baldin bada loirik,
or salto, emen salto
joateko airean,
oñak zikindu gabe
batere bidean.
Nekeak emanika
jateko gogoa,
txit ona arkitzen du
baba ta taloa.
Irteteko egun oro
erraz gorputzetik

onelakoak ez du
aiuda bearrik.
Lanari utzi eta
etxean sartzean,
pozten da emaztea
deika aditzean
umeai esanaz:
“Atozte etxera,
aita oraintxen dator
eta bazkaltzera!”
Errezatu ondoren
asten dira jaten,
guztia apertituak
ona du arkitzen.
Egiazki dirudi,
aiek ikustean,
aingeruak daudela
bazkaltzen lurrean.
An arkitzen dirade
p~~o~~za ta pakea,
zori onekoa da
aien izatea.
Ongi balekitekete
andien bizia,
segur naiz ez lirake
aien enbidia.
Erran komunak dira
maisurik onenak,
jarraitu bitza ongi
bizi nai duenak;

oiek esaten dute
—on da jakitea—
dirudien guztia
ez dala urrea.
Kanpotik eder eta
barrendik itsusi
aberatsen etxeak
maiz dira ikusi;
askotan arpegia
egon arren farrez,
biotza arkitzen da
barrenen negarrez.
Jende aberats asko
ikusten ditut nik
etxea betea ta
ezer ezin janik,
purkagin, aiudakin,
izaiak atzean,
urtearen erdian
etziñik oiean.
Janari ez badie
ifintzen neurria,
biziari kendutzen
diote erdia.
Aberats izatea
zertako ote da,
gogoa izan eta
jan bear ez bada?
Zagia etxean ta
eperra espensan,

eta ezin au jan eta
ezin andik edan!
Festetara joateko
bear dute jakin
zaldiak ongi dauden
edo al duten miñ;
zer denbora dagoan,
dakarren euria,
edo bortitzegia
al dan eguzkia.
Etxera ta askotan
antxen daude muxin,
esztula dutelako
edo buruan miñ.
Jaungoikoak mundua
onela du egin,
gaitza nai du dabillen
beti onarekin;
au onela izanik
dudarikan gabe,
nai luke batek izan
ona gaitzik gabe;
baña gizona dago
burutik jauzia,
nai badio irabazi
Jaunari auzia.
Zenbat aberats ez da
ibiltzen goizetik
denbora nola pasa
ezin asmaturik?

Eta zenbatek ez du
galtzen osasuna
ez jakiñika nola
igaro eguna,
janean, edanean,
joko, pikardian,
goiz eta arratsalde
eta gauerdian?
Emendikan oi datoz
ondoren samiñak,
gota, urdallekoa
eta beste miñak.
Ezkontza bear badu
aberatsak egin,
nobiak zenbat duen
lenaz beau jakin;
gero galdetuko du
ote dan ederra,
ez azkarra ote dan,
edo dan alferra;
ezkontza oietatik
ez naiz arritzen ni
onak ez irtetea
millatatikan bi;
emendika keja ta
andik oztasuna
goizetik arratsera
dijoa eguna.
Ekarri baldin badu
dotea andia,

dotearen neurrian
bear du jantzia;
dotea jaten da ta
jantzia gelditzen,
komediak orduan
dirade izaten.
Ongi jan, ongi edan,
bear aurrag azi,
senper orduan oi du
bakoitzak ikusi.
Oiturak ezin utzi,
zerekin izan ez,
zenbat ez dira bizi
gaisoak negarrez!
Esan zadazu orain
zuk, adiskidea:
zer da mundu onetan
suerte ohea:
aberastasunakin
bizitza tristea,
edo ondasun gabe
bizi alegrea?

ARTZAI-KOPLAK (1)

Melibeo: Titiro zu or zaude
faza ederrean,
luze-luze etziñik
pago-itzalean;
txirola jo ta kanta,
or zaude zalantzan,
Amarilis maitea
noiz etorriko dan;
gu berriz emen goaz
erritik igesi,
etxea eta lurra
an ditugu utzi.
Gu negarrez gabiltza;
zuk, ortxe jarririk,
ez dezu Amarilis
alabatu baizik.

(1) Egloga primera de Virgilio.

ARGUMENTO

El emperador Augusto repartió tierras entre sus soldados despojando de ellas a sus dueños. Virgilio obtuvo la devolución de las suyas, y, según algunos, es el que en esta égloga habla de boca de Titiro, elogiando al joven emperador, a quien llama su dios, y ofrece sacrificios en sus altares con los recentales de rebaño. Dice que fue esclavo, y que, habiendo ido a Roma, siendo ya viejo, obtuvo su libertad. Melibeo, que habla de boca de los despojados, llama dichoso a Titiro, y llora su desgracia, como quien va sin esperanza de volver a ver su patria y su hogar. (*Iturriaga'ren oarra*).

Titiro: Melibeo, bizi naiz
deskansu onetan,
zeren bizi-modu au
jainkoak dit eman;
oni zor diot emen
txirola jotzea,
eta nere idiak
landan bazkatzea.
Bein baño geiagotan
onen aldareak
ikusiko dituzte
nere arkumeak. (2)

Melibeo: Ez dizut nik, Titiro,
enbidirik artzen,
baña esango dizut
zerk nauen arritzen:
da zu or ikusteak
deskansu orretan,
penak diradenean
bazter guztietan.
Ona ni emen, eriz
ezin ibillirik,
nola noan auntz oiek
aurrean arturik;
ikusten dan bezala,
oietatikan bat
bultzaka ta bultzaka

(2) Los corderos que se han de inmolar en los altares. (*Iturriaga'ren oarra*).

doi-doia daramat;
gais'orrek or, su-arri
gogorren gañean,
bi ume egin dizkit
urritzen artean.

Badakizu, iraungo
badu artaldeak,
esperantza guztia
dirala umeak.

Zori gaizto au, narra
izan ez banintzan,
aditzera eman dit
zeruak askotan,
ain laster arte latza
tximistakin joaz,
ain laster beltzurrari
kanta-arazoaz.

Baña orain, Titiro
zorionekoa,
esan zadazu zein dan
zure jaungoikoa.

Titiro: Bildotsak eramaten
ditugun erria, (3)
uste nuen, nar onek,
zala ain andia,
non izan zitekean
zanik andiena,

(3) La ciudad de Mantua. (*Iturriaga'ren oarra*).

nola dan gaur Erroma
deitzen diotena;
baña ikusi nuen
au aren aldean
dala ardia dana
bildotxen artean,
edo txakurkumeak
jaio diranean,
ama oi dan bezala
oien saietsean.

Melibeo: Baña galde beaizut,
Titiro, esazu:
zerk Erroma alderontz
eraman zaitu zu?

Titiro: Ni Erroma alderontz,
arturik makilla,
joan nintzan, Melibeo,
libertade billa;
baña libertadea
nueneko izan,
bizar-zuria eta
buru-solla nintzan.
Amarilis maitea
nuen emaztea,
bada orduko galdu
nuen Galatea;
eta aitortu beat,
Amarilis gabe,

ez nintzala izango
gaur ni nere jabe;
zergatik Galatea
nuen bitartean,
beñere ez nuen nik
ardit bat etxean:
eramanagatika
errira guria,
gazta freskoa eta
arkume lodia,
beti biurtzen nintzan
—bear dezu jakin—
gauza asko saldu eta
bi esku utsakin.

Melibeo: Arritua, Amarilis,
nengoan ni, zeren
beti Jaunari deika
tristetarik zeuden;
arritua norentzat,
sagarrak eldurik,
ote zeuden arbolan
bildu gabetanik.
Orain konturatzen naiz
zergatika zeuden,
zergatika Titiro
emen ez zegoen.
Titiro, zuri deika
zeuden iturriak,
zuri deika piñuak
eta elorriak.

Titiro: Zer nai zenduen bada
emen egin nezan?
Nere libertadea
ezin nuen izan.
Ez nuen nik ikusten
emen jaungoikorik,
deseatzen nuena
emango ziranik.
Erroman, Melibeo,
nuen nik arkitu
galai gazte bat, zeñak
ninduen aditu.
Onixe oi diot nik
eskaintzen illean
arkume bat gizona
bere aldarean;
onetxek esan ziran
lenbizian niri,
egin nion orduan
otoitza berari:
“Zoaz len bezalaxe
idi uztartzera,
eta zure zezenak
landan bazkatzera.”

Melibeo: Orrela zartze ona,
Titiro, daukazu,
gelditu bazerade
lur oien jabe zu.
Arria eta iya

ugari izanik,
larre ederrik asko
badezu oraindik.
Ez ditu erituko
belar berrituak,
artaldean dituzun
ardi azunduak;
ez ere kutsatuko
kanpoko ardiak,
askotan iduki oi
duten ezkabiak.
Bein eta berriz zera
zorionekoa;
emen artuko dezu
zuk aize freskoa,
iturri ta erreka
oientxen artean
luze-luze etzinik
pago-itzalean;
auzoan zariketan
dabiltzan erleak
goizetik arratsera
txupatzen loreak,
ekarriko dizute
barrunbaz gogoa,
Titiro, egiteko,
nai badezu, loa,
adituaz kantari,
lo jarri artean,
unaia arkaitzetan

ostoa biltzean,
eta usoak berriz
urrunga egiñez,
eta usa-tortolak
pagoan negarrez.

Titiro: Lenago ikusiko
dirade oriñak
bazkatzen dabiltzala
airean ariñak,
eta lenago berriz
igeri lurrean
arraiak, itsasoa
utzi ondorean,
ikusiko dan baño
nere memoria
aztutzen galai gazte
aren arpegia.

Melibeo: Bitartean, Titiro,
gu ementxen goaz,
nora ez dakigula,
gure auntzak joaz.
Batzuek artu degu
egoa-aldera,
eta beste batzuek
berriz ifarrera,
esperantzarik gabe
sekula guztian

len bezala arkitzeko
gu geren errian
abereak bazkatzen,
itaitzen garia,
errirako egiten
gazta ta guria.
Gaur soldadu gogorrak,
kupidarik gabe,
dira gure txaola
eta landen jabe.
Orra zer diran gerrak
elkarren artean,
orra zer dan gizona
pakea galtzean.
Zoaz orain, Titiro,
gari ereitera,
sagarrak txertatu ta
matsak podatzera.
Guazen, guazen aurrera,
auntz erdi berriak,
len zori onekoak,
gaur kupigarriak;
ez zaituztet geiago
erriko aitzetan
saltoka ikusiko
nere egunetan;
ez naiz berriz egongo
zuen zai kantatzen,
ikusiaz maiteok
txarpola bazkatzen.

Titiro: Melibeo, nerekin
gaurko arratsean
deskantsatuko zera
belarren gañean;
baditut sagar umo,
gaztaña gozoak,
gazta eta guria
gaur egindakoak;
begira txaoletan
agertzen dan kea, (4)
mendiak egiten du
itzala luzea.

(4) Quiere decir que la noche está encima, cuando humean las chimeneas, y se prolonga la sombra de los montes. (*Iturriaga'ren oarra*).

KOPLARIEN TEMA
PALEMON JUEZ DUTELA (1)

Menalka: Dametas, orixe bai
dala artaldea!
Melibeo edo nor
dik orrek jabea?

Dametas: Ez dik, ez, Melibeo,
baizikan Egonek
eman zidak zaitzeko
txit kontuz neronek.

Menalka: Esku onetan zaude
guztiz, artaldea,
txit buru onekoa
da zure jabea;
Neeraren ondotik
or dabil gau t'egun,
enbidia duela
ongi da ezagun;
beldur da ez datorren
onera Neera,
nerekin itzalean
emen jostatzeraz;
bitartean, Dametas,
ardi-errapeak
ez dek perill ler ditzan

(1) Virgilio'ren irugarren egloga.

geiegiz esneak;
beti jazten ari aiz,
eta arkumeak
ezur uts biurturik
zeauzkak goseak.

Dametas: Polikitxo, Menalka,
beazu itzegin,
badakigu guk zer dan
gertatu zurekin:
badakigu nola zu
lengo egunean,
akerrak bazterrerontz
or begiratzean,
eta aitz-pean Ninfak
zeudenean berriz,
algaraka eztanda
egin nairik irriz...

Menalka: Ori zan nik Mikonen
matsak podatzean,
eta aren sagarren
adarrak moiztean.

Dametas: Edo onako emen
pago-itzalean
Dafinden tiruztai ta
txirola austean;
norbaitek gazte oni
ziozkalako eman,

i lertzeko zorian,
Menalka, egoan;
eta gaiztakeri au
ez bauen egin,
ilko intzan segurki;
ainbeste uen miñ.

Menalka: Zer ez dute egingo
gurekin nausiak,
ausartatzen badira
onetara seiak?
Neronek ikusi aut
Damonen auntz bat nik
ebasten abillela
laoa jarririk;
bitartean Lisika,
lertzeko zorian,
zangaka ari uen
alegin guztian;
eta ni berriz emen,
nere aldetika,
ojuka neagoan
Titirori deika:
“Atoz, atoz, Titiro,
ara non dijoan!”;
eta i kokorika
gorderik egoan,
ezpata-belar aien
atzean jarririk,
lotsa baño beldurra
geiago izanik.

Dametas: Auntza nerea uen,
jakin bear dek ik,
kantan eta txirolan
Damon garaiturik;
aitortzen dik Damonek
au egia dala,
baña esan dik ezin
emango dirala.

Menalka: Kantan eta txirolan
ik Damon garaitu?
Ik txirolik deanik
ez diat aditu.
Gari-lasto batekin
ez intzan ibiltzen
marrangaz jendeari
iges eragiten?

Dametas: Nai dek bada jokatu
bi gauza oietan?
Ifiñiko diat nik
bei gazte bat teman;
bi txekor zeaukatzik
bere errapean,
eta bi bider jazten
diat egunean;
esan bear dek orain,
jakin dezadan nik,
zer ifiñiko dean
ik ire aldetik.

Menalka: Aita ta oazama
dizkiat etxean,
ez diat nik eskurik
gure artaldean;
bi bider gutxienaz
oi dizkitek biak
kontatzen egunean
auntz eta ardiak.
Baña aizen ezkeroz
burutik maingutu
artaraño, non nai dek
nerekin jokatu,
erratillu eder bat
etxean badiat,
eta nere aldetik
ifiñiko diat.
Aitortuko dek seurki,
ura ikustean,
asko balio duela
beiaren aldean:
Alzimedon andiak
egindakoa dek,
beste alakorika
ik ikusi ez dek:
aien luze eder bat
mats-mordo beltzakin
zeukak inguruan
untzen ostoakin.
Erdi-erdian berriz
Kononen itxura,

eta ez nak oroitzen
nor dan beste ura...
Nork zuen lurra neurtzen
lenen erakutsi?
Nork garia noiz ereiñ
eta noiz ebaki?
Ez diat oraindika
aora eramán,
mokanesan bildurik
zeaukadat kutxan

Dametas: Nik ere badizkiat
beste bi txit fiñak,
Alzimedon orretzek
berorrek egiñak;
molorrika ederrak
beren kirtenetan
zeaukazkitek biak
asko txibistetan.
An zeagok Orfeo
erdian jarririk,
jarraitzen diotela
arbolak atzetik.
Ez dizkiat oraindik
eskuetan artu,
bein nituen ezkeroz
nere kutxan sartu.
Baña ikusten bada
nere bei gaztea,
ez dik ezerk balio
aotan artzea.

Menalka: Ez dek iges egingo,
joango nak noranai,
zergatik iretzat ni
non-nai beti nak gai.
Adi zak... baña zein da
onontz datorrena?
Palemon; orixe dek
juezik onena.
Erakutsiko diat
nik orain nolatan
gizon prestu artean
itzegin bear dan.

Dametas: Asi ari, nai badek,
ez nak ikaratzen,
nik ez diat zankorik
atzera botatzen.
Entzun zazu, Palemon,
zuk arretarekin,
ez degu egin tema
gauza gutxirekin.

Palemon: Asi zaitezte bada
entzun dezadan nik,
soro eder onetan
biak eseririk.
Orain belar berria
asi da jaiotzen,
orain daude arbolak
lorea botatzen,

orain ostoz betetzen
dirade mendiak,
orain guztia pizten
du uda berriak.
Asi zaitez, Dametas,
kantatzen aurrena,
gero Menalkak beau
kantatu urrena.
Koplarien anparo
diran Musandreak
pozten ditu aldizka
koplak botatzeak.

Dametas: Aditu, Musandreak;
Jaungoikoagandik
nere koplak botatzen
asi bear det nik:
diot bada arkitzen,
da mundu onetan
gure Jaungoiko ona
leku guztietan;
ematen oi du lurrak,
Ark naita, frutua,
eta Ark berak dauka
kopl'oien kontua.

Menalka: Ni ere maitatzen nau
nere Jaungoikoak,
baditut erregalo
Ark egindakoak:

moredin ederra ta
erramu berdea,
eziñ arki diteke
emaitz bat ohea.

Dametas: Galateak, dalako
neskatxa ariña,
sagar bat tira eta
eman ziran miña;
zariketara iges
laster joanagatik,
nai zuen ikus nezan
gorde baño len nik.

Menalka: Nik Amintas ederra
det asko maitatzen,
baña orrelakorik
ez oi dit egiten;
ain maiz etortzen zat non
txakurrak oi duten
Delia beziñ ongi
ura ezagutzen.

Dametas: Agiri da emendik
arako an aitza,
nere maitearentzat
an daukat emaitza:
joan dan egun batean
an ikusi det nik
uso bat arraultzakin,
kabia egiñik.

Menalka: Nik bialdu diozkat
nere maiteari,
basoan topaturik,
sagar umotxo bi;
bata eta bestea
ziran ain oriak,
non urrezko sagarrak
ziruditen biak.
Beste bi an daukatzit
arbolan zintzillik,
bialtzeko berari
ongi umoturik.

Dametas: Zer itz eder ez dizkit
esan Galateak!
A, eraman balitza
zerura aizeak!

Menalka: Zer zait niri Amintas
zuk nai izatea,
mendian bazabiltza
utzirik sarea,
eta, zu basurdetan
zabiltzan artean,
bakarrik banaukazu
sareen aldean.

Dametas: Nere egunak dira
egun, Galatea,
naiko nuke Filida

niri bialtzea;
ofrenda-egunean
berriz, Galatea,
naiko nuke zerori
onontz etortzea.

Menalka: Inork baño geiago
maite det Filida,
nigatika negarrez
joan zana ori da,
“Adio, nere ederra!”
esan ziranean,
eskua estuturik,
emendik joatean.

Dametas: Zer gauza tristea dan
otsoa artegian,
gariak itaitzean
ujola zelaian,
arbola gazteentzat
egoa-aizea,
neretzat Amarilis
muxin egotea!

Menalka: Arratsean etortzen
dan euri lanbroa,
lur ereñentzat oi da
onenetakoa;
titia utzi duten
auntzentzat da berriz

kaudanaren muskilla
bazka ona anitz;
zarika dute maite
azunduta ardiak,
eta nik maite ditut
Amintasen deiak.

Dametas: Nere koplak gustatzen
zaizka Polioni,
gizentzen daukat txal bat
eskaintzeko oni.

Menalka: Polion bera ere
da txit koplaria,
onentzat bazkatzen det
zezen bat lodia;
jotzera saiaturen da
jasoaz adarra,
eta maiz zabalduaz
oñakin ondarra.

Dametas: Polion, zu maitatzen
zaituen guztia,
bijoia egitera
non-nai zure naia;
eman dizazutela
arkaitzak ezta,
eta basoko larrak
berriz madaria.

Menalka: Entzuteko ire antza
duten koplariak,
beaizkik batek izan
asto-belarriak;
uztar ditzala onek
azeri okerrak,
eta jatzi ditzala,
nai badu, akerrak.

Dametas: Marrubi eta lore
biltzalle gaztea,
kontu, belar azpian
or dago sugea;
zoaz ortik igesi
lasterka, gaisoa,
sar ez dizazun arren
oñetik mistoa.

Menalka: Ez joan, ardiak, arren,
ibai-bazterrera,
erori ez zaitezten
andikan urera;
begira non datorren
lasterka aria,
burutik oñetara
osoro bustia.

Dametas: Ardi oiek, Titiro,
ibai-bazterretik
atzera-azo itzak
doakabetanik;

nik neronek errekan
edo iturrian
garbituko dizkiat
nai dedan guztian.

Menalka: Ekarri itzazute,
mutillak, etxera
ardi oiek larretik
laster itzalera;
errapeak baditu
beroak idortzen,
alferrika ariko
gaituk aiek jazten.

Dametas: Orren argala dabill
zezena larrean,
triparaño estaltzen
duen belarrean;
zezena ta nausia
daduzkatzi biak
amorearen miñak
galdurik guztiak.

Menalka: Ezin esango det nik
nere arkumeak
daukatziela beintzat
argal amoreak;
ezur uts egiñika
eman dit gogoak
ifiñi dizkidala
niri begizkoak.

Dametas: Esan zadak ik: non da
munduan lekua
sei kana bakarrika
duena zerua?
Au esaten badirak
segurki nik beintzat
idukiko aut beti
nere jaungoikotzat.

Menalka: Esak: non dira arros
eta azuzenak,
erregeen izenak
sortzez dituztenak?
Erantzuten badirak
duda gabetanik,
Filida izango dek
iretzat bakarrik.

Palemon: Ez nezake nik beintzat,
jaunak, erabaki
zeñek kopletan egin
dezuten obeki;
batak eta besteak
dezute merezi
bei gazte eder ura,
dedanez ikusi.
Orobat merezi du
beldur dan guztiak,
engañatu ez dezan
amore eztiak;

eta ez gutxiago
amoreen miñak
progatua daukanak
dirala samiñak.
Itxi, itxi, mutillak,
atakidak itxi,
soroak edan ditek
gaur urikan aski.

SAN INAZIOREN MARTXA

Inazio, gure patroi andia,
Jesusen Konpañia
fundatu
eta dezu armatu;
ez da, ez, etsairik
jarriko zaizunik
iñolaz aurrean
gaurko egunean,
naiz betor Luzifer deaurrua,
utzirik infernua.
Zure soldaduak
dira aingeruak,
zure gidaria
da Jesus andia;
garaitu ditu zure Konpañiak
etsaiak;
ez dauka fedeak,
ez, kristau nereak,
ez dauka beldurrik
iñongo aldetik;
Inazio or dago,
beti ernai dago,
armetan jarria
dauka Konpañia,
txispak armaturik,
bandera zabalik,
gau eta egun
guk guztiok pakea degun,
beti gau eta egun.

Bildu dezu, Inazio, munduan,
arritzeko moduan,
jendea
fede biziz betea,
jende jakintsua
eta indartsua,
beti dabillena
gerretan aurrena,
Elizaren etsaiak billatzen,
topatu ta garaitzen;
dituzu anaiak
gerra egin naiak,
da oien legea
etsai garaitzea;
oiek ditu bere defensoreak
fedeak;
dirade ezagun,
dabiltza gau t'egun
Europan, Asian,
Afrik'Amerikan;
idorrez, itsasoz
dijoaz ta datoz;
dabiltza nekean
indio tartean
edo naiz kortean
manera berean
beti pelean,
bizitzak dirauen artean,
beti-beti pelean.

Dira, Inazio, zure anaiak
txit mariñel andiak,
arraunak
bogatzen dakitenak;
Pedroren ontzia
badago ertsia
arroka tartean
egunen batean,
bertatik botean dira sartzen
eta arnaga joaten;
sokakin loturik
arroken artetik,
baldin badu etsairik
oiek garaiturik,
an daramate ontzia kaiera,
leorrera;
naiz izan ekaitza,
bogatzeko gaitza,
eta bagen goiak
naiz busti odoiak,
arraunak arturik,
botean sarturik,
korajez heterik,
“Boa! boa!” deirik,
bizitzaz azturik,
dijoaz kaietik,
bultzeaz killa,
Pedroren ontziaren billa,
beti bultzeaz killa.

EZPATA-DANTZA (1)

Gaur,
Batista Biribill,
dantzan ongi abill;
ez dek ezpatarik
ire parekorik;
ire kabriolak
ozt-ozta txirolak
oi dizkik segitzen
ta konpasa artzen.
Arrastakakoak
eta gorakoak
dituk alakoak,
non ikustekoak,
aurrerontz, atzerontz
eta bazterrerontz,
ez dek dantzaririk
i bezalakorik.
Soñu zar pijoa,
onenetakoa,
jotzen dek, txanbolin,
aire onarekin;
onek badik emen,
orain, gero ta len,
asko egiteko
ongi dantzatzeko.

(1) Baile romana llamado *Pirrico*. (*Iturriaga'ren oarra*).

Aurrera korri,
atzera korri,
beti ezpata airean;
ez zak onezkero,
ez orain, ez gero,
iñor jarriko gañean.

GIPUZKOARRAK

Onako bertso auek ere, Mujika'k Iturriaga'ren eskuz-idatzietatik artu ta bere *Ernani'ar Ospetsuak* liburuan argitaratu zituan. Muñagorri-zale purrukatua agertzen zaigu Iturriaga bertso-sail onetan. Muñagorri, Berastegi'ko eskribaua zan. Karlisten lenengo gerrateko laugarren urtean, Bidasoz onuntzko aldera igaro ta, "Pakea ta Fueroak" otsegiñik, gerrari bukaera eman nai izan zion. Ondo alperrik ordea. Aren buruzbide ta asmoak zer ziran, zeren alde ta zeren kontra zijoan, bertso auetan aditzera ematen digu Iturriaga'k. Seguru asko, inprentatu ta Euskalerrian barrena zabaltzeko paratu zituan. Ez dakigu, ordea, ala egin zuan ala ez; bertso auen kanta-paperik ez degu, beintzat, iñon arkitu.

Oraintxe sei eun urte,
gutxi gora bera,
gipuztarrak joan giñan
Gaztel aldera;
artean Nafarroak,
Gipuzkoak gañera,
egiñ izandu zuten
erreño bat bera;
orain galdeera
zoaz egitera:
zeren billatzera

gipuztarrak joan giñan
Gaztel aldera?

Gaztelako erregek
zeukan Bitoria
tropaz inguraturik
zana guztia;
gipuztarrak, ikusiz
galdutzen auzia
nafarren erregea
eta nagusia,
zien Donostia
ta Ondarrabia
eta probintzia
Gaztelako erregeri
eman guztia.

Baña onetarako
juramentu egin
zuen lenaz erregek
gipuztarrakin:
aekin bezelaxe
ondorengoakin
fueroak goardatzeko
fede onarekin;
geroztik orrekin
egin degu alegin
Gaztelabarekin
gu ere izateko
leial eta fiñ.

Fueroak esan nai du
gure errietan
ez zaigula sartuko
iñor ezertan;
aita ta seme beti
gure fronteretan
armatuko generala
diraden gerretan;
gañerakoetan
guk gure Juntetan
okasioetan
aginduko degula
geren gauzetan.

Fuero onen konforme
kontribuziorik
ez degu eman bear
gure aldetik;
ez gerran, ez pakean
ez degu kintarik,
ez paper sillaturik
ez aduanarik;
baña orregatik
ez da erregerik
guk utzi degunik
eman gabe, dancan
estutasunik.

Baña gure ematea
borondatezkoa
izan oi da, danean
okasioa;
eta deitzen diogu
guk donatiboa,
zergatik onek ez du
autsitzen fueroa;
da erregaloa
beti onelakoa
erakustekoa
errege serbitzeko
degun gogo.

Euskaldunak euskaldun
geran denboratik,
ez degu izan beste
bizi-modurik;
erregiñak eman nai
ez du izan itzik
ez zaigula iñolaz
kenduko fuerorik;
guk gure aldetik
ez degu iñondik
obligaziorik
aren obediente
gelditzekorik.

Nola kontratuari
bait-zion faltatu,
geren buruen jabe
gera gelditu;
gero nai izan degu
Don Karlos billatu,
eta oni diogu
juramentu artu:
fueroak guardatu
eta anparatu,
ongi gobernatu
bear duela eta
zentzuz portatu.

Baña gaurdaño eman
dizkigun fueroak
dira miseria ta
makillazoak;
gure itzak ez dira,
ez, onelakoak,
eta Karlosen kontra
jo gaitu gogoak;
gaur gure asmoak
dira alakoak
non gelditzekoak
libre, baldin nai badu
gure Jainkoak.

Karlosek jo-arazo
digu guri lurra,
sinista-arazoaz
beti gezurra;
baña gezurak oi du
zaña txit laburra,
eta ifiñi digu
azkenik beldurra
isteko zintzurra,
artuaz egurra,
eta lepezurra
austeko, joaz ala
nola zakurra.

Egin bear deguna
da gaur euskaldunak
guztioak juntatzea
gogo degunak;
ta Muñagorrigana
bildu al degunak,
an topatuko dira
beste aren lagunak;
dira ezagunak,
maite ditugunak,
lenengo egunak
emango dizkiguten
nagusi jaunak.

Gizon prestu guztiok
elkar ondo arturik
ez degu iñoren zer
izan heldurrik;
geren batzarre eta
Juntetan bildurik
ez da ezer egingo
fuero gabetanik;
geren jabe egiñik,
ez da erregiñik,
ez ere erregerik,
gu gabe ezer egin
dezakeenik.

Baña ez dezaguke
iñoiz ezer egin,
ez bagera unitzen
gu elkarrekin;
beltzak eta zuriak
Muñagorrirekin
geldituko gerade
bandera batekin;
gero naiz onekin
edo naiz arekin,
nai degunarekin,
geldituko gerade
gu fueroakin.

Ez da sekulan izan,
ez, okasiorik,
orain datorkiguna
bezelakorik;
ez bagerade jausi
guztiok burutik,
aprobetxatu bear
degu guk bertatik;
ez det ikusten nik
erremediorik
au ez bada baizik,
libratzeko erriak
galtze penatik.

Geldituko dirade
euskaldun erriak
soldadurikan gabe
diran guztiak;
gu berriz gure jabe
eta nagusiak,
utzirikan alde bat
ditugun auziak;
euskaldun guztiak,
morroi-nagusiak,
beltz eta zuriak,
batuko gaitu bizi-
-modu berriak.

Nai dizagula Jaunak
egun au ekarri,
barkatzen diogula
ziñez elkarri;
ikusi genezake
egun au guk sarri,
laztan gogoz emanaz
batak besteari;
ez fia iñori
fuero-kontu ori;
gure buruari,
ikusiak ikusi,
fia gauz ori.

TESTAMENTUKO GERTAERAK

I

Jainkoak lenbizitik
bere naiarekin
zeru ederra eta
lurra ditu egin.
Lenbiziko egunean
egin zuen argia,
urrengoan zerua,
gero lur gorria.
Laugarrenean berriz
iguzki andia,
eta izar ederrak
eta illargia.
Bostgarrenean arrai
eta egaztiak,
belar eta arbolak
eta animaliak.
Allegaturik egun
seigarrenekoa,
egin zuen gizona
bere antzekoa.
Gorputza egin zuen
lur puska batekin,
eta anima berriz
asnasearekin.
Nola gauza guztiak
egin bai zituan,

zazpigarrena pasa
zuan deskansuan.
Egun au utzi zuen
santifikaturik,
iñork egin ez dezan
onetan nekerik.

II

Ifiñi zuen Adan
baratza batean,
fruta-mota guztiko
arbolen artean,
esaten ziolarik:
“Adan, nai badezu,
arbol oien guztien
frutatik jan zazu;
baña onako arbol
onentxen frutua
Adanentzat gelditzen
da debekatua.
Gaitza eta onaren
arbola izanik,
ez dezu jan bear zuk
frutu onetatik;
onetatika jaten
dezun egunean,
illa gelditzen zera
momentu berean.

Gizona bakarrika
gelditu ez zedin,
Jainkoak andrea nai
izan zuen egin.
Eta, lotan zegoan
bitartean Adan,
Eba andre egiña
gelditu izan zan.
Jaunak, Adani loa
kendu gabetanik,
ezurra atera zion
bere saietsetik;
onela ateratako
bere ezurrarekin,
Eba, bere emaztea,
Jaunak zion egin.
Lo artatika Adan
esnatu zanean,
Eba ikusi zuen
bere aldamenean;
orduan esan zuen
pozturik guztia:
"Au nere ezurra da,
nere aragia."
Gizonak, duenetik
bere emaztea,
utziko du guraso
anai ta aidea.

III

Ain zorionekoak
oiek ikusirik,
deaurrua zebillen
ezin sufriturik;
galdu nai ditu eta
badu esperantza,
artzen du bertatika
sugearen antza;
nola andre gaisoa
baitan txit argala,
Ebagana dijoa
here-bereala;
eta galdetzen dio:
“Esazu: zergatik
jan bear dezute
arbol orretatik?
Zergatik arbol orrek
dakarren frutua,
utzi dizute Jaunak
gaur debekatua?”
Ebak erantzun zion:
“Jakizu zergatik:
frut ori jan ondoan
ez iltzeagatik.”
Deaurruak Ebari
dio erantzuten:
“Frut ori ez dezute
zuek ezagutzen;
jango bazenduteke

fruta orretatik,
gelditzen zinateke
jaungoiko egiñik.”
Bereala sinisten
du Eba txoroak,
eta ematen dio
jateko gogoak.
Jatean artzen dio
gusto ona frutari,
eta ematen dio
bere senarrari.
Ozta zuen Adanek
fruta artatik jan,
biak gelditu ziran
lotsaz beterikan,
ikusten zutelarik
egunaren erdian
zeudela jantzi gabe
ta larru gorrian.
Bereala arturik
arbolen ostoak,
egin izan zituzten
biak gerrikoak.

IV

Jauna Paraisoan
dabil paseatzen,
eta Adanek aren
itza du aditzen.

Itza aditu eta
arras beldurturik,
baratza-bazterrean
dago ezkutaturik.
“Adan, Adan, non zera?”
dio Jaungoikoak;
bertatik erantzuten
du Adan gaisoak:
“Jauna, zu aditzean
beldur izan det nik,
zergatik arkitzen naiz
jantzi gabetanik.”
Jaunak esaten dio:
“Nik debekatua
utzi nizun arbola
bat orren frutua;
eta, jan dezulako
frutu orretatik,
dezu ikusi zaudela
jantzi gabetanik.”
Adanek erantzuten
dio bazterretik:
“Ez nuen, Jauna, jango
fruta orretatik,
bañan zuk emandako
andreak dit esan
txit fruta ona dala,
bear dedala jan.”
Jaunak esaten dio
orduan Ebari:

“Zergatik jan-arazo
dion senarrari?”

“Jauna —esaten dio
bertatik andreak—,
zergatik engañatu
nauen ni sugeak.”

Orduan dio Jaunak:

“Madarikatua
izango dek, sugea,
beti ire patua.

Arrastaka joango aiz
i abillenean,
bularraz lurra joaz,
ez oñen gañean.

Andrea izango dek
etsai segurua,
onek puskatuko dik,
bai, ire burua.”

Gero dio esaten

Ebari: “Aditu:
asko gaitz zuk bearko
dituzu sufritu;
miña izango dezu
aurra egitean,
ta idukiko zaitu
senarrak mendean.”

Eta dio Adani
esaten: “Zu, Adan,
gusto diozulako
andreari eman,

lurra etsai izango
dezu, ta argandik
ez dezu aterako
arantzak besterik.
Kopetatik boteaz
ugari izerdia,
irabaziko dezu
zure janaria.”
Paradisotik biak
botatu ondoan,
aingeru bat ifiñi
zuen atondoan,
suzko ezpatarekin
guardi egiteko,
eta barrenen iñor
sartzen ez uzteko.

V

Adanen eta Ebaren
lenengo semeak
ziran Kain ta Abel,
ta biak semeak.
Kain bere langitez
zan nekazaria,
eta Abel ekintzaz
zan berriz artzaia.
Kainek ofrezitu
zuen primizia,

izan zan lurrak eman
oi duen garia;
Abelek artaldean
zituen ardiak,
gizenenen artean
ongi berexiak.
Kainek ez bait-zuen
garia autatu,
Jainkoak begi gaiztoz
zion begiratu.
Ozta Abelek ardiak
zizkan presentatu,
bertatika txit asko
zitzaizkan gustatu.
Artzen dio Kainek
Abeli inbidia,
eta kendutzen dio
gaisoari bizia.
Jainkoak deitzen dio:
“Ator onontz, Kain!
Non dek ire anaia?
Beaiat nik jakin.”
“Jauna —dio Kainek—,
non dan nere anaia
nik ez dakit beintzatic,
ez naiz aren zaia.”
“Kain, zer egin diok
ire anaiari?
Aren odola deika
zeagokit niri;

odol ura segurki
ik ixuria dek,
ta ire pekatua
ik pagatuko dek.
Nekez egiñagatik
lurrean labrantza,
ez dik lurrak emango
ez bada arantza.
Beti ibilliko aiz
munduan igesi,
zer dan gizon iltzea
dezakan ikasi.”
“Ezagutzen det —dio—
nere maldadea,
andietakoa da
anaia iltzea;
ezin egon niteke
iñon seguru ni,
ez diteke ere nitzaz
urriki berori.
Lenbizika topatzen
nauenak, bizia
kanduko dirala da
gauza ikusia.”
Jaungoikoak dio: “Ez;
bere kastigua
norbaitek iltzen baau
an dik segurua.”
Eta bialdu zuen
señale batekin,

iñork gaitzikan iñon
ez ziozan egiñ.

VI

Gizonak nola ziran
denboraz ioritu,
eta ioriturik
bait-ziran gaiztotu,
gure Jaungoikoa zan
guztiz asarratu,
eta nai izan zuen
gizona akabatu;
baña nola zan Noe
txit gizon justua,
gelditu zan onetzaz
Jauna kupitua.
“Zu salbatzeko eta
zure familia,
Noe, egizu —dio—
kutxa bat andia;
an sartuko zera zu,
zure emaztea,
zure iru semeak
ta oien andreak,
ta sartuko dezu
gañera orobat
egazti ta animali
guztitik pare bat.”

Noek kutxa andia
egin zuenean,
eta Jaunak esanak
sartu ondorean,
itsasoa atera
zan bere lekutik,
eta euri andiak
zetozen zerutik,
berrogei egun eta
berrogei gabea,
gelditu gabetanik
momentu batean;
eta ikusi ziran
lurra ta mendiak
berrogei ta amar besoz
gora estaliak.
Guztia akabatu zan
orduan lurrean,
bakarrika zebillen
kutxa ur gañean.
Gero Jaunak bialtzen
du aize gogorra,
lurra gelditu dedin
gitxika idorra;
amargarren illean
sartu ziranean,
mendien puntak ziran
agertu airean.
Kutxatika bele bat
Noek du bialtzen,

baña ez da belea
batere biurtzen.
Gero berriz bialtzen
du arrek usoa,
eta biurtzen zaio
kutzara gaisoa.
Zazpi egun osoak
pasa ondorean,
berriz bialdu zuen
usoa airean,
eta biurtzen zaio,
ez joan zan bezela,
baizik oliba-adar bat
mokoan duela.
Urak joanak zirala
Noek ikusirik,
bere-berealaxe
irten zan kutxatik.
Orobat irten ziran
an zeuden guztiak,
gizon, andre, egazti
ta animaliak.
Aldare bat baitzuen
bertan an ifiñi,
Noek Jaunari zion
ofrenda eskañi.
Jaunak esaten dio:
"Noe, aurrera nik
ez det akabatuko
onela jenderik.

Odoiakin zerua
estaltzen danean,
..... jarriko (1)
da odoi artean,
eta oroituko naiz
ura ikustean
zer itz eman dizudan
gaurko egunean.”

VII

Noek aldatu zuen
lenengo mastia,
ardoak utzi zuen
gaisoa ordia.
Bederatzi eun urte
Noe izatera
allegatu izan zan,
ta, oiez gañera,
beste berrogei ta amar
ongi kunpliturik,
beste mundura joan zan
mundu onetatik.

(1) Ezin irakurri al izan det emen Iturriaga'k es-
kutiztu zuan itza (Gregorio Mujika Jaunaren oarra).

VIII

Onen iru semeak
Jafet, Sem eta Kam,
iru alderditara
zabaldu izan ziran.
Ubeldeaz azturik,
gero ondorengoak
ziran lengo gizonak
baño okerragoak.
Adoratutzen zuten
oiek iguzkia,
ta, onetzaz gañera,
berriz illargia;
beren Jaungoiko onaz
betiko azturik,
bizi ziran abere
batzuek egiñik.
Alde bat utzirikan
beren gurasoak,
ziran gezurti andi
ta lapur osoak,
okerragoa dana,
gizon iltzalleak,
itz batean, maldade
guztien zaleak.

IX

Or emen baziraden
zenbait gizon prestu,
Jaungoikoaz oraindik
ez ziranak aztu.

Oien artean zan bat
zeritzana Abran,
au Semiren kastako
gizon justu bat zan.

“Abran —esaten dio
Jainkoak zerutik—,
atera bear dezu
zuk zure etxetik;
utzirika alde bat
gaur dezun erria,
billatu bear dezu
beste bat berria,
emango dizudana
bertatika zuri,
zure umeai ta
ondorengoai.

Oiek izango dira
ezin konta ala,
zergatika nik, Abran,
naiko dedan ala;
eta izango zera,
nik onela naita,
mundu onetan asko
nazioren aita.

Zure kasta izango
da, Abran, munduan
ainbeste non diraden
izarrak zeruan.”

X

Abran zartu zan guztiz;
Sara emaztea
abrik gabe zegoan,
ez baitzan gaztea.
Jaunak esaten dio:
“Abran, zuk oraindik
abra izango dezu
zure Saragandik.”
Au aditu eta da
Sara farraz asten,
ez bait-zuen Jaunaren
promesa sinisten.
Orra non zaion Jauna
guztiz asarratzen,
eta arras gogorki
dio itzegiten,
eta, zeren Abranek
siñistatu zuen,
izan zuen seme bat
bi urte baño len.

XI

Jainkoak ikusteko
Abranen fedea,
esaten dio: "Abran,
il beak semea;
sakrifikatu beak
nere izenean,
nik esango dikadan
mendiaren gañean."
Isak zuen izena,
ta mutil gaztea
zan denbora onetan
Abranen semea.
Abran, fede andiko
gizona izanik,
prestatzen da joateko
semea arturik.
Il eta erretzeko
egurra gañean
semeari berari
para zionean,
aitak artu zituan
bere eskuetan
ezpata eta sua,
gaisoak, benetan.
Mendi alderontz biak
joaten asten dira,
eta dio semeak:
"Aita, emen dira

egurra eta sua,
baña aberea
non dezu zuk iltzeko,
aitatxo nerea?”
Abranek erantzuten
dio semeari:
“Gauz ori, semetxoa,
utzi Jainkoari.”
Esandako lekuan
jarri ziranean,
egurra para zuen
aitak aldarean;
lotu eta gañean
Isak ifiñirik,
iltzeko Abran prest zan
ezpata sarturik;
Onetan: “Abran, Abran,
ez eman golperik!
—aingeru batek dio
deitutzen zerutik—;
Jaunak zure fedea
gaur ezagutu du,
eta mutiltxo orri
utzitzea nai du.
Prest ziñan zu iltzeko
gaur zure semea,
Jaunari erakusteko
diazun fedea;
onek ez du utziko,
ez, bere aldetik,

zure fede bizia
sari gabetanik.”
Atzerontz begiratzen
du gero Abranek,
ikusten du daukala
bertan sasi batek,
lotua balegoke
bezela, nasia
adarretatik eta
bere-bereala du
illetik aria;
bere-bereala du
sasitik askatzen,
eta dio Jaunari
au sakrifikatzen.

XII

Abranek Eleazar,
etxeko mutilla,
bialtzen du Isaken
emazteki billa,
kameluak emanik
ongi zamatuak,
ez zitzan ark eraman
utsik bere eskuak,
eta eman zitzaizkan
nobi andreari,
aren aita-jaunari
eta amandreari,

arkitzen ziran emaitz
onenetakoak,
okasioak nai oi
zuen bezelakoak...
Mesopotamiara
Eleazar joanik,
putzu baten ondoan
zegoan jarririk.
Arratsaldeko bata zan
eta berandua,
andreak ur billa joan
oi ziran ordua;
eta egiten dio
otoitza Jaunari:
“Jauna, eman zadazu
grazia zuk niri:
ura ematen didan
neskatxa gaztea,
izan dedin Isakek
beaun andrea.”
Andik piska batera
Rebeka ederra
putzura dijoa
arturik pegarra;
eta pegarra urez
bete zuenean,
Eleazar joan eta
jartzen zaio aurrean,
eta esaten dio:
“Ur piska bat eman

beaidazu, neskatxa,
nik edan dezadan.”
“Ori edazu” dio
Rebekak, ta bertan
pegarra uzten dio
beraren oñetan;
eta etzan onetan
neskatxa gelditu,
kameluari ere
zion ofrezitu;
Rebekak egin zuen
eskañiarekin,
Eleazarrek zuen
nai zuena jakin.
Belarriko urrezkoak
eta besakiak
Eleazarrek ditu
ateratzen biak,
eta ematen dizka
biak Rebekari,
“Noren alaba zera?”
galdeaz berari.
Galdetzen dio ere:
“Aitaren etxean
lekurikan izango
det nik arratsean?”
“Batuelen alaba
—dio— naiz, gizona,
ta Abranen anaia
da berriz aitona.

Bada gure etxean
toki bat ederra,
eta kameluentzat
lasto ta belarra.”
Eramaten du bada
berekin etxera,
eta daramakio
zer jana maiera.
Eleazarrek berriz
ark zer zekarren
aitari ta amari
bertan esan zien,
otoitzen zituela
zuen eskatu
ez ziozatela arren
iñolaz ukatu.
Biak erantzun zuten:
“Gauza egiña da,
zergatik Jainkoaren
borondatea da;
eta, au egia dala
nola bait-dakigu,
ezin Jaunari kontra
egingo diogu.
Ona emen Rebeka;
gure naiarekin
bijoia ezkontzera
Isak onarekin.”
Eleazarrek bertan
diezte basoak
ateratzen urrezko

ta zillarrezkoak;
ta ematen diozka
gero Rebekari
guztizko soñ ederrak,
ditzan berak jantzi.
Orobat aren ama
eta anaiari
beren erregaloak
ziezkan eskañi.
Gauza oien ondoren
ifiñirik maia,
guztiak egin zuten
beren bazkaria;
eta Eleazarrek
biaramonean,
lo egin ta oietik
jaiki ziranean,
gurasoai die
onela esaten:
“Nagusia dagokit
niri itxodoten,
eta egin zazute
gaur zuek alegin,
nere etxe aldera
lenbailen joan nadin.”
Erantzuten diote
alaba deiturik:
“Galdetuko diogu
dadukan esparik.”
Deitu zuen Rebeka,
eta etorri zan,

galdeturik nai zuen
gizon arekin joan.
Baietz esan ondoan,
bere iñudea
emanik, esan zien:
“Zuen biajea
egin dezala Jaunak
guk nai beziñ ona; (2)
adio, alaba, ta
adio, gizona.”
Isak an paseatzen
kanpoan zebillen,
orra non kameluak
ikusten dituen.
Eta Rebeka, berriz,
Isak ikusirik,
jaisten da salto batez
bere kamelutik,
eta Eleazari
asten da galdetzen:
“Zein gizon, Eleazar,
det nik an ikusten?”
Eleazarek dio:
“Nere nagusia.”
Estaltzen da bertatik
Rebeka guztia.
Nagusiari zaio

(2) Mujika'renean *guk beziñ ona* dio; ola ez du ezer esan nai; utsegiñen bat izango dalakoan, *nai* erantsi diogu.

Eleazar asten
biajean gertatu
zaiona kontatzen;
Isakek sartu zuen
Rebeka etxean,
eta, an sarturika
ura ikustean,
bere pena andia
gitxitzen asi zan,
bada egun aietan
aren ama il zan.

XIII

Lenengo aurgitetik
Rebeka andreak
bi aur egin zituen,
ta biak semeak.
Esau zuen izena
bietan zarrenak,
eta Jakob bigarren
edo gazteenak.
Lenbizia jaioa
zan illez betea,
larru ederrekoa
zan berriz bestea;
Esau lenbizikoa,
eiztari andia;
Jakob bigarrenkoa,
ona ta eztia.

XIV

Egun batez zeukala
bere eltzekadia
Jakobek sukaldean
ederki egosia,
Esau etortzen da
etxera kanpotik,
eta, ikusten zanez,
arras nekaturik;
eta esaten dio
Jakobi: "Ekark ik
eltzekaria niri;
niatork nekaturik."
Eta Jakobek berriz
dio erantzuten:
"Emango diat baldin
badirak ematen,
zarren aizen partetik
dekan deretxoa:
ire primotasuna
ta maiorazkoa."
Esauk dio erantzuten
bertan itz oiekin:
"Bai, bai, emango diat
atsegiñarekin."
Jakobk esaten dio: (3)

(3) *Jakob esaten dio* jartzen du Mujika'renean. Bañan *Jakobk* bear du noski, ta onela jarri degu; ta aurrera ere onela dago Mujika'renean.

“Kondizio onekin:
emen bertan bear dek
juramentu egiñ.”
Esauk an egin zuen
bertan juramentu,
eta maiorazkoa
Jakobk zuen artu. (4)

XV

Esau bere aitaren
zan guztiz maitea,
Isak zalako guztiz
eizaren zalea.
Rebekak herriz Jakob
zuen maiteago,
Esau baño zalako
Jakob gazteago.
Isak txit zartu zan ta
gañera itxutu,
eta Esauri zion
egun batez deitu:
“Esau —esaten dio—,
joan beak eizera,
ire armak arturik,
zerbait ekartzera;
ekarri eta gero

(4) Emen ere *Jakob* zion Mujika'renean. Len bezela, ta arrazoi beragatik, *Jakobk* ipiñi dtgu.

ongi konpondurik,
 ederki jan dezadan
 eiz arretatik nik,
 nadiñ baño lenago
 beste mundura joan,
 nere bendizioa
 dizakadan eman.” (5)
 Itz oek aditu ta
 Esau bertatika
 eizera atera zan
 armak arturika.
 Nola izkuntz au zuen
 Rebekak aditu,
 bereala Jakobri
 izan zion deitu;
 eta esaten dio:
 “Jakob, artegitik
 antxume bi ekaitzik
 gizenenetatik;
 konponduko dizkiat
 nik nere erara,
 ire aitari gusta
 oi zaizan gisara;
 eramango diozkak
 ongi konpondurik,
 eta bendizioa
 iri emango dik.”
 Jakobk bere amari

(5) Mujika'renean *dizakan* dio; osatu gabe ze-goalakoa, *dizakadan* jarri degu.

dio erantzuten:
“Ni ori egitera
ez naiz atrebitzen;
zuk badakizu, Esau
da illez betea,
beste aldetik naiz ni
illerik gabea.
Aitak ikuitzen banau,
koleran guztia
nere kontra jarriko
zait irakazia. (6)
Naitasunaren ordez
orduan bekaitza
izango dit, ta etzait
faltatuko gaitza.”
Rebeka bere artan
dago firme beti,
eta esaten dio
bere semeari:
“Nere gain artzen diat
baldin bada gaitzik;
egin zak nere esana,
ez izan beldurrik.”
Jakobk ekartzen ditu
joan ta antxume bi,
eta biak diozka
ematen amari.
Onek konpontzen ditu

(6) Mujika'renean *irakazia* dio. Ez al luke *irakazia* bear?

bere-bereala,
 Isaki gustatu oi
 zaiozkan bezala.
 Esaren arropakin
 du Jakob jantzitzen,
 lepo-espuak larruz
 diozka estaltzen.
 “Oa —dio— aitagana,
 egiok eskeñia,
 orra asko gustatzen
 zaion janaria.”
 Joaten da bada Jakob,
 ta bere aitari,
 esan bezala, dio
 egiten eskeñi.
 Aitak galdetzen dio:
 “Esan zak: i zein aiz?”
 Jakobk esaten dio:
 “Jauna, ni Esau naiz;
 primua naiz, egin det
 zuk agindua nik,
 altxa zaitez dezazun
 jan nere eizetik.”
 Aitak esaten dio:
 “Zer? Esan zadazu:
 orren laister zuk eiza
 billatu didazu?”
 “Bai —dio—, aita, laster
 det eiza nik bildu,
 zergatika Jainkoak

ala nai izan du.”
Isakek dio berriz:
“Zu primua zera?
Atoz, ikusi zaitzadan,
atozkit onera.”
Joan eta ikuitzen du,
ta dio esaten:
“Boza Jakobena da,
ez det nik dudatzen;
baña zure eskuak,
ikuitzen dedanez,
Esauenak dirate
beterikan illez.”
Au esan ta Jakobi
eman zion laztan,
eta primu egiñik
bertan gelditu zan.
Esauk gero aitari,
eiza ekarririk,
eskañi izan zion
berak konpondurik.
Isakek arriturik
dio: “Zeñek niri
konponduta aristian
dit eiza ekarri?
Onek du, didanean
niri eiza eman,
nere bendizioa
berekin eraman.”
Au aditu ondoan,

Esauk negarrez (7)
betetzen du etxea
eta deadarrez,
iraz beterik eta
koleraz guztia,
kendu nairik aiten da
Jakobri bizia.

XVI

Rebekak ikusirik
Jakobren perilla,
"Zoaz —esaten dio—
osabaren billa;
Laban dezu osaba,
ta aren etxea
zurea bezelaxe
da, nere semea.
An biziko zerade
deskansuz pakean,
anaiaren kolera
joan dedin artean.
Isak eta Rebekak
biak bialdurik,
Mesopotariara
irten zan etxetik.
Bidean zijoala

(7) Emen, Mujika'renean, *Isakek*; nabarmen dago
Esauk bear duala, eta onela jarri degu.

zanean nekatu,
zuen buru azpian
arri bat paratu.
Loak artu ondoan
zuen eskallera
ikusi ametsetan
zerutik lurrera;
baita ere zituen
ikusi gañera
aingeruak ibiltzen
gora eta bera;
aditu ere zuen
Jauna itzegiten
ziola zerutika
onela esaten:
“Jakob, zure aitaren
Jaungoikoa naiz ni,
eta emango dizut
lur ori nik zuri,
orain lo egin dezun
lur ori berori,
eta zuri bezela
ondorengoai;
beti izango nazu
ni zure aldetik,
guardi egingo dizut
beti ta non-nai nik;
zure etxera zaitut,
bai, nik biurtuko,
ta ondasun guztiaz

zaitut nik beteko;
ta nazio guztiak
dira zuregatik
geldituko ondasunez
osoro beterik.
Jakobk, bere lotatik
zanean esnatu,
zuen berealaxe
Jauna adoratu.
Mesopotamiara
allegatutzean,
Jakobk ikusten ditu,
putzu-bazterrean
jarririka daudela
faza ederrean,
iru artalde eta
irurak lurrean.
Begiratu utsarekin
erraz zan ikusten
putzu artatik ura
zutela edaten;
baña zeukan gañean
arri bat andia,
eta ala zegoan
putzua itxia.

SAKRISTAU ZAR BATEN DEABRUKERIA

Onako sei bertso auek, Santesteban'ek argitaratu zituan lenengo; urrena, berriz, Echeverría y Guimon'en *Ecos de Vasconia* izena duan kantu-bilduman; ta, irugarrengez, Mujika'k *Ernani'ar Ospetsuak* (Donostia'n, (1910) deritzaion bere liburuan, Iturriaga'ren eskuz-idatzietatik artuta, adierazpen onekin:

“Zartzaroa adin txarra da ezkontza-asmoak buruan erabiltzeko. Gaztetan ezkontzeak ere bere kalteak eta lanak baditu, baño ezkontzekotan gaztetan ezkondu bear da, ez zartutakoan. Ala zion Iturriaga'k alai-aldi batean Batista'ri zuzendu zion eskutitzean. Batista nor dan ez dakit; ia larogei urte zituola ta nunbaiteko irakaslea zala bai ordea”.

Iru argitaraldi auetatik, lenengoa ta bigarrena berdin-berdin daude; ez, ordea, irugarrena. Jatorragoa iritzirik, lenengo ta bigarrenaren era jarri degu emen, irugarrenaren aldaketak oarretan jartzeko.

¿Zer de-a-bru-ke-ri-a za-yo bu-ru-ta-
 -ra? ¿Ba-tis-ta a-diñ o-rre-tan du-
 -a ez-kon-tze-ra? Aur ja-yo, gi-zon
 bi-zi, aurtxo bi-ur-tze-a: o-rra ekusten
 da-nez gu-re su-er-te-a

Zer deabrukeria
 zaio bururatu?
 Batista adin orretan
 dua ezkontzera?
 Aur jaio, gizon bizi,
 aurtxo biurtzea,
 orra ekusten denez
 gure suertea.

Iya larogei urte
dituen gizonak,
ez du andrerik bear,
baizikan salda ona;
gaztetako txingarrak
sentitzen baditu,
ur freskoa edanaz
itzali bear ditu.

Lanparak, itzaltzera
dijoan orduan,
llamarak bota oi ditu
argira moduan;
baña dira llamara
akabaerakoak,
ez olio geiegik
emanikakoak.

Dabidek zartu eta
Sunamit artzeko
esan zuen zuela
oñak berotzeko.
Batista, adin orretan
dek askoz ohea
Palencia'ko manta,
ez andre gaztea.

Ez badik gauza orrek
erremediorik,
ez dezak beintzat egin,
al badek, semerik;
esnatzen aizenean
goizean lotatik,
ostikoka bota zak
andrea aldetik.

Ez adilla fiyatu
llamara oietan,
ondo konserba itzak
ere erraietan;
kanpora ateratzen
enpeñatzen baaiz,
otzak illik txit laister
lurperatuko aiz. (1)

(1) Mujika'ren erak dauzkan aldaketak: Izenburua: Ezkontza. Ordena: 1, 2, 3, 6, 4, 5. Itz-aldaketak: 1/1-2: Batista adiñ orretan doa ezkontzera? 1/3-4: zer deabrukeria zaio burutara? 1/6: aur biur-tutzea; 2/3: ez dik andrarik bear; 2/8: itzali beaitu; 3/3: garraldak bota oi ditu; 3/5-6: baño dira garralda akaballakoak; 4/3: esan zian zuela; 4/5: adiñ ortan, Batista; 5/1: Ez badu gauza orrek; 5/3-4: artzak konsejutxo bat gaur nere aotik; 6/2: garralda oietan; 6/3: Batista, gorde itzak; 6/5-6: kanpora botarika bortx egiten badek; 6/7-8: gure maisua laster kanpo santuan dek.

ZENBAIT IPUIREN BESTE ERA BAT

Itzaurrean esan degun bezela, Jose Mante-rola ta Gregorio Mujika jaunak, Iturriaga'-ren eskuz-idatziak esku artean izan zituzten; baita zenbait ipuiren beste era batzuk andik artu ta argitaratu ere.

Mujika'k bere *Ernani'ar Ospetsuak* deritzaion liburuan argitaratu zituanak, onako auek dira:

ZAKUR BIAK

Sultan, zakur ausarta ta jale andia,
zan bezin luze, zetzan lurrean jarria,
begiak armaturik gurrinka egiñaz,
eta bizkitartean arister bat janaz.
Pinto, bere laguna, gurrinka aritzean,
badijoa ta jartzen zaio aldamenean.
Arriturik guztia asten zaio esaten:
“Esker ori nausiari diok gaur ematen?
Ez aiz oroitzen zenbat gaituen maitatzen?
Nor diabruk eman dik iri burutara
ari-isterra artzera joatea espensara?
Oroit ari aizela zakur famatua,
pare gabe noblea, eta ez katua.
Utzi zak, Sultan, utzi isterra lenbailen,
zintzilik ipintzeko zegoan tokian len.
Ez dik oraindik falta txit zati andirik,
ez ditek pensatuko jan diokala ik.
Katuen bati kulpa ziotek botako,
ire fama onela dek ongi gordeko.”
Batere ez dio egiten Sultanek kasorik,
aristerrari dio ekiten gogotik.
“Mutil, utzi akiok, bestela nausiak
puskatuko zizkiguk gaur ezur guztiak;
egurra jatxiko dek gure bizkarrera,

ez bagiaitzik botatzen ilta ibaiera.
 Mereziko diagu edozein kastigu,
 baldin bera kolera ipintzen badegu.
 Emateko ainbeste mesedeen eskerra,
 ostuko ion bada ariaren isterra?"

Onela Pinto jaunak omen zion itzegin,
 ta ara zer erantzuera Sultanek zion egin:
 "Pinto, guztiz ederki dirak ik itzegin,
 baña gelditutzen nak ni duda batekin;
 esan zak: baldin uzten badet ister au nik,
 ez dek berealaxen artu ta jango ik?"

Beñere konsejuak ez dute indarrrik,
 irteten badirade gaiztoen aotik.

ERREMENTARIA TA TXAKURRA

Errementari batek, kanpoan zanean,
 etxe-zai zeukan beti txakur bat atean.
 Egun batez lapurak atzeko aldetik
 sartu ta ostu zuten dirua kutxatik.
 Oartu zan orduan errementaria
 ostu zutela kutxan zan diru guztia,
 burua galtzen du ta, arturik makilla,
 etxe guztitik dabill txakurraren billa.
 "Atorkit onontz, Turko, ator onontz!" dio;
 txakurrak bereala obeditzen dio,
 eta dijoakio belarriak bean,
 burua makur eta buztana anka-pean.
 "Turko —dio nagusiak—, zertarako aut nik?
 Ez diok etxeari egiten konturik.
 Sutegiko malluak ez aute esnatzen,
 sukaldeko soñuak laister au ernaitzen;
 eguardi ta arrats, maian ni jartzean,
 an aukat falta gabe txut aldamenean.
 Ikusi gabe ago nere sutegia,
 ozta ezagutzen dek ire nagusia.
 Markesen bat al aiz i, bestela kondea,
 egoteko alferrik ta beti asea?"

Itz oiek esan eta, Turkok, ikustean
 nausiaren egurra zuela gañean,
 igas egiten du ta dio urrutitik,
 bada arkitu zuen atea itxirik:

“Zer? ni baño geiago al dira kondeak
 bizitzeko alferrik ta beti asean?”
 Turkok au esan zion ain asarratua,
 ain kolera aundian, ain amorratua,
 non ikaratu zuen bere nagusia,
 ipiñi ziolako mutur itsusia.
 “Jaiotzez —dio Turkok— daukat aditua
 berekin dakarrela nork bere patua.
 Txakurrena nai dezu zuri esatea?
 Ona bada: jan ta lo, bestela katea.
 Ez diot, nere ustez, iñortxori eman,
 ez orain eta ez len, nigatik zer esan.
 Lapurrak sartu dira atzeko atetik,
 aurrean nindaukazun, zer kulpa daukat nik?”
 Au da esan ziona berriz txakurrari:
 “Oiek guztiak dira, Turko, erausiak,
 akabatu ditzagun gaur gure auziak.
 Badakizu zuk dala etxe au nere,
 nai det bada bertatik emendik joatea;
 on da ikus dezazun, Turkotxo, gaur bertan
 nola bizi diraden beste tokietan.”
 Irten zan bereala txakurra etxetik,
 nagusia utzirik diru gabetanik;
 baño guztiz kontentu, zeren egun artan
 itorik uste zuen gelditu an bertan.
 Turkok bere aldetik ez zuen penarik,
 laxo zebillelako nausi gabetanik;
 ordea egun asko igaro baño len,
 laxotasuna zer zan ezagutu zuen:
 goizetik arratsera kontentuz beterik
 zebillen arat-onat egin gabe lanik,
 baño nola zimurtzen zijoan sabela,
 dio: “Ezin biziko nak beti onela.”
 Asten da atez ate, ta etxe batean
 sartzan da barrena ta dago sukaldean;
 jaten ematen diote eta arratsean
 etxe-zai uzten dute atzeko atean.
 An egon bear zuen gau guztian ernai,
 baldin makillaz joka ez bazuen ill nai.
 Ikusi zuenean bizi-modu ura,
 esan zuen: “Ez naiz ni emen egon gura.”

Irten ta sartutzen da beste etxe batean,
 eutsi eta ipintzen dute an katean;
 jiraka ta biraka goiz guzti guztian
 egunoro zebillen torna-burruntzian.
 Ez zitzaion iduri txit gogorra lana,
 baña bai ikusi ta ezer ezin jana;
 batez ere linburtzen zuen, arikiak
 burruntzitik botatu oi zuen usaiak.
 Iñolaz ezin zuen bizi au eraman,
 iges egiten du ta ez daki nora joan.
 Badabill orrotz-onontz karrikaz karrika,
 eziñ arki dezake iñon etxerika.
 Sartzeko egiten du askotan alegiñ,
 baña jarraitzen diote erratz-makillekiñ;
 onela dabilela, Turko azkenean
 gizon zar itxu batek artzen du etxean.
 Nausia asten zaio festa asko egiten,
 txutika ipiñi ta dantzan erakusten.
 Txakurra eroturik zegoan guztia,
 topatu zualako alako nausia.
 Nekeak ekartzen du jateko gogoa,
 arratsean gose zan txit Turko gaisoa;
 gosea kendutzeko, aren afaria
 izan zan arto-zajez egindako ogia.
 Usai egin ta Turko zijoan atzera;
 itxuak deitzen dio: "Atorkit oneral!"
 Turkok ikusi zuen zabalik atea,
 indarka autsi nairik asten da katea;
 baña itxuak zeukan gogorki loturik;
 ez zan iñolaz ere igesi joaterik.
 Makil-joka itxuak zuen elbarritu,
 intziriaz gaisoa antxen zan gelditu,
 esaten zuelarik bere barrenean:
 "Ez banintzan kontentu lenengo etxean,
 gosez ill bearko det eta makil-pean.
 Itxu zakur-iltzalle madarikatua,
 ire eskuetan dek gaur nere patua.
 Ongi bertatu zaidak, izanik txakurra,
 nere nausi onentzat ninduan makurra.
 Ikus bezate nigan nere antzekoak
 zer azken pin daukaten ni bezelakoak,

sinisturik txakurren zori ona dala
izatea etxean beti sei leiala.”

BELEA ETA AXERIA (1)

Aritz mehe eta luze baten gain-gainean
bele bat ikusi dut gan dan egunean.
Bere mokoan zuen gasna bat andia,
borda-leiho batetik ebatsi berria;
axeri bat ialki zen oihanen artetik,
eta iragaiten zen aritzen azpitik;
fite zuen gasnaren usaia senditu
eta gorat begira bertan zen gelditu.
Ikusi zuenean ain gasna andia,
ebastea zen aren desira guzia.
Dago aritz azpian gaisoa geldirik,
gasna nola ebatsi eziñ asmatu.
An gorat igaiteak, bere artean dio,
igaiten banauk ere ez dik deus balio,
zeren, nik nai banuke arganat gorat ioan,
gasna belearekin ioanen duk airean;
zerbait bertze gauzarik bear duk asmatu;
ba, ba oraindika zaidak gogoratu;
ene gogoratzea anitz ederra duk;
beleak daukan gasna sarri nereã duk.
Bertatik asten zaio beleari deitzen:
“Aspaldian, maitea, ez zaitut ikusten;
sinistatu nazazu, zeren diot zinez,
pena andi bat nuen ote zeunden miñez.
Ez da denbora asko guk gure etxean
erraten genduela elkarren artean:
Lastima izanen da auzoko belea,
orren gazte delarik, gaisoa hiltzea.
Sinistatu nazazu: dudarika gabe
egaztien artean zu zare errege,
luma bezin ederra badezu kantua;
ala dezun edo ez or dago kontua,
zeren guk ez zaitugu aditu kantatzen,
behinez zure kantua ez naiz ni oroitzen.”

(1) Era au, irakurlea oartuko danez, Lapurdi'ko euskeraz dago.

Aditu zuenean laudorio eztia,
 orra nun zoratzen dan belea guztia.
 Kantatzeko idiki ondoren mokoa,
 aren gasna lasterka lurrera an doa.
 Axeriak irriaz omen zion deitu:
 "Orren kantu ederrik ez dut nik aditu!
 Yinko onak dizula zuri osasuna,
 zure kantu eztia, zure edertasuna.
 Anitz kontent izanen naiz nere aldetik,
 sabela beterika nik zure mokotik".
 Axeria an gan zen bere gasnarekin,
 gelditurik belea sabel utsarekin.
 Laudorio falsoa duenak sinesten,
 onelako enganoak ditu eramaten.

EULIAK ETA EZTIA

Agirian badago, berekin eztiak
 bereala an ditu millaka euliak.
 Jaten asitzen dira ain nabarbendurik,
 non gelditu oi dira preso oñetatik.
 Au berau gertatzen da, naiz izan guria;
 ori aberetxoen itsumen andial
 Laster galdu oi dute gaisoak bizia,
 batetan irintxi naiz janari guztia.
 Au egiten balute euliak bakarrik,
 ez litzake, kristabak, zer izan penarik;
 baña gizonak ere, abereen gisa,
 begiak itsuturik munduan gabiltza,
 janean, edanean osasuna galtzen,
 geiegi biziz beti bizia laburtzen.
 Eskarmenta gaitezen eulien buruan,
 lezioak artuaz al degun moduan.
 Luzaro eta ongi nai badegu bizi,
 gaztetandik beagu zentzuz ongi jantzi.

Manterola'k bere *Cancionero Vasco* deri-
 tzaion liburuan (*serie III*) argitaratuak:

ARTZANORA ETA OTSOA

Otsoak, zijoala bein mendia gora,
topoz-topo arkitu zuen artzanora.
Gelditzen dira biak elkarri begira,
ez batak, ez besteak, ez nairika jira.
Egoteaz bakoitza nekatu zanean,
beldurra zeukatela lotsaren ordean,
asi ziran egiten elkarri agurra,
lenbizioa otsoa, azkena zakurra.
“Goiz abill, mutill —dio otsoak esaten—,
ez aut nik maiz onela bakarrik topatzen,
artaldea utzirik mendi oiek gora;
Zer pensamentu-mot gaur zaik iri gogora?”
“Pozik esango diat —artzanorak dio—,
nere pentsamentuak deus badu balio:
etorri nauk ni, mutill, gaur ire bidera,
erakeri andia dala esatera
beti gu ibiltzea elkar persegitzen,
eta lepo ondolik letagiñak sartzen.
I aizen bezin mutill gogorra izanik,
ez ioke ardiai egin bear gaitzik;
aitor zak dala gauza txit lotsagarria
otsoak izatea etsaitzat ardia.
Iretzat dituk askoz kontresta obeak
artz eta kata-motzak eta basurdeak.
Au egiten bauke, etsairika gabe,
izan gindezkek biok egun onen jabe.”
Arrazoi aundia dek —dio erantzuten—,
eta bertatik diat nik itza ematen
ez dituztela ardi eta arkumeak
beteko berriz nere tripako esteak.”
Onela itzegiñik bi adiskideak,
joan ziran segituaz atzerontz bideak;
baña, utzirik artzak eta katamotzak,
otsoak sartzen zizten ardiai ortzak.
Maiz badirade ere sermoiak aditzen,
jatorrizko griñai ez oi zaie uzten.

* * *

Artzaiak zeukazkiten mendian zepoak,

otso gaizto andi bat arrapatzekoak;
 artzanorak zebiltzan gañera or-emen,
 non ta nola otsoa atzemango zuten.
 Onek jaten zizkaten ziran arkumeak,
 eta arras galtzera zoaien artaldeak.
 Otsoak ta artzanorak elkar topoz-topo
 egin ondoren, daude nork nori erasoko.
 Biak ziraden guztiz mutil balienteak,
 faltarika egiten ez zien korajeak.
 Esaten dio otsoak: "Mutill, zertarako
 zioagu elkarri orain erasoko?
 Obea dek gureztat askozaz pakea,
 ez burruka asi ta elkar puskatzea".
 "Arrazoi dek —zakurrak dio erantzuten,
 eta modu onetan dio itzegiten:—
 Niri iduritzen zaidak gauza itsusia
 orrela ibiltzea otso indartia
 iltzen bildots umil ta kulparik gabeak,
 ta galtzera botatzen arras artaldeak.
 Badituk basoetan artz ta basurdeak,
 ik dean famarentzat askozaz obeak.
 Ez dituk, mutill, berdiñ ire letagiñak
 arkume ikarakor gaisoentzat egiñak.
 Zenbat eta etsaia izan gogorrago,
 anbat gure fama dek askoz andiago.
 Ez dik sekulan, mutill, ire balentia
 ibilli bear iltzen bildots ta ardiak;
 ori dek beldurti ta ergalen kontua,
 aitortuko dek dala au ezin ukatua."
 Arrazoa zuela txoilki aitorturik,
 otsoa apartatu zan artzanoragandik.
 Jakiten dute artzaiak egin zan pakea,
 ikusten dute doala galtzen artaldea,
 zeren ez dio uzten otsoak griñari,
 jaten dizte egunean bildots bat edo bi.
 Amorraturik jartzen dirade gaisoak,
 saldu dituelako zakur pikaroak;
 artzen du eskuan batek bere garrotea,
 besteak makilla ta besteak katea;
 erasotzen diote guztiak batetan,
 ez dago zer esanik batere onetan;

ain gogotika dute astintzen zakurra,
non austen diozkate ankak ta bizkar-egurra.
Otsoak ez bazuen ebatsi bildotsik,
arrazoi zan bezela, geiago artaldetik,
ez ziraden makilla eta garrotea
puskatuko, ez ere burnizko katea,
zakurrari gañean ezur ebakitzen,
eta gizagaixoa joka illik uzten.
Baña otso gaiztoak, pakea azturik
eta betiko griñaz arras garaiturik,
jaio ala arkume zuen arrapatzen,
eta artalde guztiak zijoan akabatzen.
Griña gaiztoak badira gaztetandik artzen,
bizia dan artean ez dirade uzten.

MENDIAK AURGITEN

Turmoiak ortik eta tximistak emendik,
zeuden jende guztiak ikaraz beterik,
pensatzen zuelarik nork bere buruan
azken juizioa ote zan orduan.
Dakazkite onetan zorion berriak,
aurregiten daudela auzoko mendiak.
Ikarak utzi eta jendea zegoen
zerk aien sabeletik jaio bear zuen.
Noizbait badator bada lasterka gizon bat,
jaio dala esanaz sagu txikitxo bat.
Au da gertatzen dana askotan munduan
gauza miragarri bat uste dan orduan.
Urrutiko intxaurrak soñuak andiak
egiten oi dituzte, izanik txikiak.

AIZKORA ETA KIRTENA

Egurgille bat zoan mendiak barrena,
eta galdu zitzaion aizkora-kirtena.
Berri bat egiteko arbolai zien
adartxo bat eskatu; eman nai ez zien.
Arteak zeña bait-da asko bizi naia,
kupiturik ematen dio kirten-gaia,
ustez ezaguera izango ziola,

eta beñere gaitzik naiko ez ziola; (1)
baña kirten berria ozta zion jarri,
golpeka azten zaio bertan arteari.
Orduan arteari ziozkan lizarrak,
guztia larriturik, egin deadarrak,
esaten ziolarik: "Narratzar astoal
Ez diguk gaur ik egin serbitzu gaiztoa!
Igandika asi dek eskerrak ematen,
ire astakeria ongi dek pagatzen;
Ala ere bakarrik pagatzen bauke,
gaitz erdia besterik izango ez uke;
baña, lastima dana, baso au guztia
geldituko dek sarri arras ebakia.
Etsaiari laguntza dionak ematen,
orrelako eskerrak oi dizkik izaten.

(1) Manterola'k, kopiatzeaz azturik nunbait, bi lerro auek falta ditu; Gregorio Mujika'ri artu dizkiogu, onek ere ipui au badakar-eta. (*Ernani'ar Ospetsuak*, Donostia'n, 1910'gn. orrialdean).

IZTEGIA (1)

Aharasca: <i>panal.</i>	Andrea: <i>muger.</i>
Abarrotsa: <i>ruido.</i>	Anitz: <i>mucho.</i>
Abiadura: <i>ventaja que se toma para saltar.</i>	Antzá: <i>semejanza.</i>
Aceria: <i>zorro.</i>	Aoa: <i>boca.</i>
Aci: <i>criar.</i>	Apaindu: <i>adornar, engalanar.</i>
Acia: <i>semilla.</i>	Apostura: <i>apuesta.</i>
Aculloa: <i>aguijon.</i>	Aquerra: <i>cabrón.</i>
Adina: <i>edad.</i>	Arabera: <i>según.</i>
Aditu: <i>oir, entender.</i>	Araguia: <i>carne.</i>
Agueri: <i>manifiesto.</i>	Araquiña: <i>carnicero.</i>
Aguertu: <i>aparecer, poner de manifiesto.</i>	Arcacoso: <i>pulga.</i>
Aguindu: <i>mandar.</i>	Arcaitz: <i>peña.</i>
Aguiña: <i>muela.</i>	Arcumea: <i>cordero.</i>
Agurea: <i>viejo.</i>	Ardia: <i>oveja.</i>
Aicea: <i>viento.</i>	Ardita, ardite: <i>ochavo.</i>
Aienatu: <i>desaparecer.</i>	Argala: <i>flaco.</i>
Aisa: <i>facilmente.</i>	Arguia: <i>luz.</i>
Aitortu; <i>confesar.</i>	Arguiña: <i>cantero.</i>
Aitu: <i>acabarse.</i>	Ari: <i>ocuparse.</i>
Aitza: <i>peña.</i>	Aria: <i>carnero.</i>
Aitzaquia: <i>pretesto.</i>	Ariña: <i>ligero, ágil.</i>
Aitzurra: <i>azada.</i>	Ariquia: <i>carne de carnero.</i>
Aizcora: <i>hacha.</i>	Armiarma: <i>araña.</i>
Alá: <i>asi.</i>	Armonia: <i>murmullo.</i>
alaba: <i>hija.</i>	Arotza: <i>carpintero.</i>
Alaia: <i>vigoroso, alegre.</i>	Arpeguia: <i>cara.</i>
Alboa: <i>costado, lado.</i>	Arquiarazo: <i>hacer hallar.</i>
Algara: <i>carcajada.</i>	Arquitu: <i>hallar.</i>
Alporcha: <i>alforja.</i>	Arra: <i>gusano macho.</i>
Ambat: <i>tanto mas.</i>	Arrata demoa: <i>raios y demonios.</i>
Ametsa: <i>sueño.</i>	Arraia: <i>pez.</i>
Amorraia: <i>trucha.</i>	Arranoa: <i>aguila.</i>
Amorratu: <i>rabiar.</i>	Arrantza: <i>pesca.</i>
Amua: <i>anzuelo.</i>	Arrantza: <i>rebuzno.</i>
Anca: <i>pierna, pie.</i>	

(1) Itzaurrean esan degunez, bere antziñako ortografiarekin uzten degu iztegi au, aldatzeak naste aundia sortuko zualako.

- Arrapatu: *coger*.
 Arras: *totalmente*.
 Arrastaca: *arrastrando*.
 Arratoia: *ratón*.
 Arratsa: *noche*.
 Arrazoia: *razón*.
 Arrea: *rastrillo*.
 Arren: *por Dios, sin embargo*.
 Arreta: *cuidado*.
 Arrigarria: *admirable*.
 Arritu: *admirarse*.
 Arroa: *vano*.
 Arrotasuna: *vanidad*.
 Arrotu: *envanecerse*.
 Artalde: *rebaño de ovejas*.
 Arte: *encino*.
 Arteguia: *redil*.
 Artoa: *maiz*.
 Artza: *oso*.
 Artzanora: *mastín*.
 Asá: *aliento*.
 Asarrea: *reñido*.
 Asarretu: *reñir*.
 Asi: *comenzar*.
 Asmatu: *adivinar*.
 Asmoa: *propósito*.
 Asnasa, *aliento*.
 Asqui: *harto, bastante*.
 Astacaicua: *majadero*.
 Afaquida: *compuerta*.
 Atcea: *parte trasera*.
 Atceman: *coger*.
 Atceratu: *atrasar*.
 Atea: *puerta*.
 Atera, *sacar*.
 Atsecabea: *aflicción*.
 Atseguin: *satisfacción, contentamiento*.
 Atsoa: *vieja*.
- Atzaparra: *zarpa, garra*.
 Auendatu: *deplorar*.
 Aurguitea: *parto*.
 Aurra: *niño*.
 Aurrecoac: *antepasados*.
 Aurrena: *primero*.
 Aurrera: *adelante*.
 Aurrera cherria: *cerdo para cebarlo ó engordarlo*.
 Aurten: *este año*.
 Ausarcia: *osadía*.
 Ausarta: *osado*.
 Ausartatu: *osar, treverse*.
 Autsi: *romper*.
 Auzoa: *vecindad*.
 Aztu: *olvidar*.
 Azaldu: *aparecer*.
 Azcarra: *activo, diligente*.
 Azcazala: *uña*.
 Azpia: *bajo*.
 Azquena: *último*.
 Azundua: *preñada, cargada*.
 Babá: *haba*.
 Bacarra: *solo*.
 Bacarric: *solo, solamente*.
 Bada: *pues*.
 Badoa: *vá*.
 Bague: *sin*.
 Balioa: *precio*.
 Baratza: *huerta*.
 Barcacioa: *perdón*.
 Barecurculloa: *caracol*.
 Barrena: *interior*.
 Basoa: *bosque*.
 Basatia: *salvaje*.
 Baserria: *casería*.
 Basurdea: *jabalí*.

Bat batetan, batetan: <i>de repente.</i>	Beñere: <i>nunca.</i>
Batez: <i>en un.</i>	Berá: <i>el mismo, abajo.</i>
Batez ere: <i>sobre todo.</i>	Berandu: <i>tarde.</i>
Batzarrea: <i>junta.</i>	Berdin: <i>no obstante.</i>
Bazca: <i>pasto, comida.</i>	Berdiña: <i>igual, nivel.</i>
Bazcaldu: <i>comer a mediodía.</i>	Berea: <i>suyo.</i>
Bazcatu: <i>pastar.</i>	Bereala: <i>luego.</i>
Baztanga: <i>viruela.</i>	Bere buru, beregan: <i>entre sí.</i>
Bazterra: <i>lado, rincón.</i>	Beroc: <i>ustedes.</i>
Bea: <i>bajo - balido de oveja.</i>	Berorri, usted.
Bearbača: <i>quizá.</i>	Berritsua: <i>hablador.</i>
Bear, bearra: <i>necesidad, menester.</i>	Bertatic: <i>desde luego.</i>
Bearsua, bearsuna: <i>necesitado, menesteroso.</i>	Besarca: <i>abrazo.</i>
Beatza: <i>dedo.</i>	Besabea: <i>arado de cinco dientes.</i>
Feazuna: <i>hiel.</i>	Betoz: <i>vengan.</i>
Beca: <i>balando.</i>	Bezala, bezela: <i>como.</i>
Becaizgoa: <i>envidia.</i>	Bialdu: <i>enviar.</i>
Becin: <i>tanto como.</i>	Biar: <i>mañana.</i>
Begua: <i>ojo.</i>	Biamona: <i>día siguiente.</i>
Beguiratu: <i>mirar.</i>	Biciro: <i>vivamente, mucho, muy.</i>
Beguiroc: <i>mira.</i>	Bicitza: <i>vida, habitación.</i>
Beguizcoa: <i>fascinación.</i>	Bidaldu: <i>enviar.</i>
Beia: <i>vaca.</i>	Bide: <i>parece que.</i>
Bein batean: <i>en una ocasión.</i>	Bidea: <i>camino.</i>
Beindic bein: <i>a lo menos.</i>	Bide chidorra: <i>sendero.</i>
Beldurra: <i>miedo.</i>	Biguña: <i>blando.</i>
Beldurtia: <i>tímido, medroso.</i>	Billa: <i>busca.</i>
Belea: <i>cuervo.</i>	Billatu: <i>buscar.</i>
Beltzurra: <i>corneja.</i>	Bildoča, bildotsa: <i>corredero.</i>
Benazqui, benaz, benetan: <i>de veras.</i>	Bildu: <i>recoger.</i>
Bentura: <i>ventura.</i>	Bildura: <i>reunión.</i>
Benturaz: <i>tal vez.</i>	Bira: <i>revuelta.</i>
	Biraua: <i>maldición.</i>
	Biribilla: <i>redondo.</i>

- Biurtu: *volver, convertirse.*
 Bitartean: *entretanto.*
 Bizarra: *pelo de barba.*
 Bizcarra: *espalda.*
 Bizquitartean: *entretanto.*
 Bortitza: *fuerte.*
 Borda: *casería, redil.*
 Bostortza: *arado de cuatro dientes.*
 Bota: *tirar.*
 Bucatu: *acabar.*
 Bularra: *pecho.*
 Bultzatu: *empujar.*
 Bultzaca: *a empujones.*
 Burruca: *altercado.*
 Burrucatu: *altercar.*
 Burruntzia: *asador.*
 Buztana: *cola.*
 Buztiña: *arcilla.*
 Cabia: *nido.*
 Cabitu: *caber.*
 Cacaraza: *cacareo.*
 Caicua: *zapito, colodra.*
 Calea: *calle.*
 Caltea: *daño.*
 Camustu: *embotar.*
 Canabera: *caña.*
 Canibeta: *cuchillo.*
 Capaguiña: *marraguero.*
 Carraiatu: *conducir.*
 Carrica: *calle.*
 Catamotza: *tigre.*
 Caia: *muelle en los puertos.*
 Cein: *quien.*
 Celaia: *llano, campo ancho.*
 Centzua: *juicio.*
 Cenzadarra: *geme.*
 Ceren: *por que.*
 Chacurra: *perro.*
 Chala: *ternero.*
 Chalma: *albarda.*
 Chanchilla: *medida para vender leche.*
 Chambolin: *tomborilero.*
 Changurrua: *cangrejo.*
 Chaola: *choza.*
 Chapelara: *sombrero.*
 Chará: *jaro.*
 Charrá: *ruin.*
 Checorra: *novillo.*
 Cherpola: *serpol.*
 Cherria: *cerdo.*
 Chertatu: *ingerir.*
 Chetu: *moler, pulverizar.*
 Chibista: *lazada.*
 Chicharra: *cigarra.*
 Chimista: *rayo.*
 Chimua: *mono.*
 Chimurchia: *pellizco.*
 Chingurria: *hormiga.*
 Chiquia: *pequeño.*
 Chiquiratzallea: *capador.*
 Chispa: *escopeta.*
 Chistua: *silbo.*
 Chit: *muy.*
 Chito: *silencio.*
 Chittoa: *polluelo.*
 Choarrea: *gorrión.*
 Chocoa: *rincón.*
 Chopiña: *media azumbre.*
 Choratu: *afanarse.*
 Choria: *pájaro.*
 Choroa: *fatuo.*

Churra: <i>parco, económico.</i>	Doacabea: <i>desgracia.</i>
Chut: <i>derecho, en pie.</i>	Doi doia: <i>escasamente.</i>
Cillarra: <i>plata.</i>	Ebaqui: <i>cortar.</i>
Cimurra: <i>arrugado.</i>	Ebasi, Ebatci: <i>robar.</i>
Cimurtu: <i>arrugarse.</i>	Ecaitza: <i>tempestad.</i>
Cincillic: <i>colgando.</i>	Ecen ez: <i>que no.</i>
Cinguirra: <i>laguna.</i>	Ecer, Ecercho: <i>algo.</i>
Cintza: <i>asomo.</i>	Echequi: <i>agarrar.</i>
Ciñez: <i>de veras.</i>	Echola: <i>choza.</i>
Ciquindu: <i>ensuciar.</i>	Ederra: <i>hermoso.</i>
Ciquiña: <i>sucio.</i>	Ega: <i>vuelo.</i>
Circilla: <i>charlatán.</i>	Egarria: <i>sed.</i>
Ciricoa: <i>seda.</i>	Egoqui: <i>a propósito.</i>
Cirritua: <i>rendija.</i>	Egun: <i>hoy.</i>
Citala: <i>ruin.</i>	Egunsentia: <i>aurora.</i>
Citalqueria: <i>ruindad.</i>	Eguzquia: <i>sol.</i>
Cocorica: <i>de cuclillas.</i>	Eia: <i>pocilga.</i>
Coipea: <i>manteca.</i>	Elbarria: <i>manco.</i>
Colca: <i>chueca.</i>	Elbarritu: <i>dejar manco.</i>
Contresta: <i>enemigo.</i>	Elcartu: <i>unirse.</i>
Copeta: <i>frente.</i>	Elorria: <i>espino.</i>
Cordea: <i>sentido.</i>	Elizaracoia: <i>iglesiero.</i>
Cotá: <i>percha de gallinas.</i>	Eltcea: <i>olla.</i>
Cucha: <i>arca.</i>	Emaizta: <i>regalo.</i>
Cucusoa: <i>pulga.</i>	Emea: <i>hembra.</i>
Cupida: <i>compasion.</i>	Enada: <i>golondrina.</i>
Cupigarria: <i>digna de compasion.</i>	Enzun: <i>oir.</i>
Cupitu: <i>compadecer.</i>	Epea: <i>plazo.</i>
Cutsatu: <i>contagiar.</i>	Epurdia: <i>trasero.</i>
Damua: <i>pesar.</i>	Equin: <i>embestir al trabajo.</i>
Deadarra: <i>grito.</i>	Erabaqui: <i>decidir.</i>
Deia: <i>llamada.</i>	Erabilli: <i>menear.</i>
Dendaria: <i>tendero, sastre.</i>	eracequi: <i>encender.</i>
Desberdiña: <i>desigual.</i>	Éracutsi: <i>enseñar.</i>
Deus: <i>algo.</i>	Eraguin: <i>hacer hacer.</i>
Distiatu: <i>brillar.</i>	Éraman: <i>llevar.</i>
Doa: <i>va.</i>	Éramana: <i>sufrimiento.</i>
	Éranzun: <i>responder.</i>
	Éraso: <i>embestir.</i>
	Érausia: <i>habladuría.</i>

Eidera: <i>lengua extranjera, castellana.</i>	Furia: <i>luvia.</i>
Erdi: <i>parir.</i>	Euscara: <i>vascuence.</i>
Ereztatu: <i>incomodar.</i>	Eutsi: <i>agarrar.</i>
Erguia: <i>novilla.</i>	Ezarri: <i>poner.</i>
Eria: <i>enfermo.</i>	Ezcutucoa: <i>oculto.</i>
Erioa: <i>muerte.</i>	Eztarria: <i>garganta.</i>
Ernaia: <i>despierto.</i>	Eztia: <i>miel, suave.</i>
Eroa: <i>loco.</i>	Ezitiqúi, Eztiro: <i>suavemente.</i>
Erori: <i>caer.</i>	Farra: <i>risa.</i>
Erpoa: <i>talón.</i>	F'ar-irria: <i>sonrisa.</i>
Eramua: <i>laurel.</i>	Faza: <i>magestad.</i>
Erran: <i>decir.</i>	F'ansa: <i>fundamento.</i>
Erratillua: <i>plato.</i>	Gaua, Gaba: <i>noche.</i>
Erratza: <i>escoba.</i>	Gabiroia: <i>gavilán.</i>
Erraza: <i>facil.</i>	Gai: <i>capaz.</i>
Erraztu: <i>facilitar.</i>	Gaia: <i>material.</i>
Erregua: <i>ruego.</i>	Gaisoa, Gajoa: <i>pobre, infeliz.</i>
Errementaria: <i>herrero.</i>	Gaitzeztatu: <i>odiar.</i>
Errepaña: <i>refrán.</i>	Gaitza: <i>mal, enfermedad.</i>
Errezoa: <i>rezo.</i>	Gaizqui: <i>mal.</i>
Erria: <i>villa.</i>	Gaiztaqueria: <i>maldad.</i>
Errota: <i>molino.</i>	Gaiztoa: <i>malo.</i>
Erruz: <i>de gana.</i>	Galanta: <i>grande.</i>
Ertsia: <i>apretado.</i>	Galdetu: <i>preguntar.</i>
Ertza: <i>esquina.</i>	Galdorra: <i>cresta.</i>
Escalea: <i>pordiosero.</i>	Galgarría: <i>arruinador.</i>
Escañi, Esqueñi: <i>ofrecer.</i>	Gambara: <i>desván.</i>
Escaria: <i>petición.</i>	Gañera: <i>además.</i>
Eseri: <i>sentarse.</i>	Gañeratu: <i>ponerse encima.</i>
Esnatu: <i>despertar.</i>	Garaitu: <i>vencer.</i>
Estea: <i>intestino.</i>	Garbia: <i>limpio.</i>
Estropoa: <i>tropiezo.</i>	Garbitu: <i>limpiar.</i>
Estutasuna: <i>aprieto.</i>	Garia: <i>trigo.</i>
Etein: <i>echarse.</i>	Gari-alea: <i>grano de trigo.</i>
Etorri: <i>venir.</i>	Gari-celaia: <i>trigal.</i>
Etsaia: <i>enemigo.</i>	Gari-lastoa: <i>paja.</i>
Etsi: <i>desengañarse.</i>	Gazta: <i>queso.</i>
Etzarri: <i>poner, tender.</i>	Gaztea: <i>joven.</i>
Eulia: <i>mosca.</i>	
Eultza: <i>colmena.</i>	

Gazteria: <i>juventud, con-</i> <i>junto de jóvenes.</i>	Icusi: <i>ver.</i>
Gaur: <i>hoy.</i>	Icutu: <i>tocar.</i>
Gira: <i>vuelta.</i>	Iduritu: <i>parecer.</i>
Gira, bira: <i>vuelta y re-</i> <i>vuelta.</i>	Ifiñi: <i>poner.</i>
Giratu: <i>volver.</i>	Igandea: <i>domingo.</i>
Gogoa: <i>gana, recuerdo.</i>	Igaro: <i>pasar.</i>
Gogoratu: <i>ocurrir.</i>	Iguela: <i>rana.</i>
Goiantea: <i>gigante.</i>	Iguitu: <i>moverse.</i>
Goldea: <i>arado.</i>	Illarguia: <i>luna.</i>
Gona: <i>saya.</i>	Illea: <i>pelo.</i>
Gordaidua: <i>provisión,</i> <i>reserva.</i>	Inchaurra: <i>nuez.</i>
Gorotza: <i>fiemo.</i>	Inciria: <i>aullido.</i>
Gosea: <i>hambre.</i>	Indarra: <i>fuerza.</i>
Cozoa: <i>dulce.</i>	Inguela: <i>rana.</i>
Criña: <i>inclinación.</i>	Inguma: <i>mariposa.</i>
Gueiegui: <i>demasiado.</i>	Iñor, Inorcho: <i>ninguno.</i>
Gueiena: <i>lo más, la ma-</i> <i>yor parte.</i>	Iñoteria: <i>carnaval.</i>
Gueizco: <i>demasiado.</i>	Io: <i>subir.</i>
Guela: <i>cuarto, alcoba.</i>	Ipuia: <i>fábula.</i>
Gueldi: <i>quieto.</i>	Iracurri: <i>leer.</i>
Guelditu: <i>quedar.</i>	Iretsi, Irichi: <i>tragar.</i>
Guertatu: <i>acontecer.</i>	Irichi: <i>alcanzar.</i>
Guicena: <i>gordo.</i>	Iritcia: <i>parecer.</i>
Guicendu: <i>engordar.</i>	Irriquitu: <i>anhelar.</i>
Guiltza: <i>llave.</i>	Irristatu: <i>resbalar.</i>
Guisa: <i>manera.</i>	Irten: <i>salir.</i>
Gura: <i>gana, ganoso.</i>	Iscambilla: <i>bullá.</i>
Guria: <i>mantequilla,</i> <i>blando.</i>	Ispillua: <i>espejo.</i>
Gurrinca: <i>gruñido.</i>	Isterra: <i>pierna de car-</i> <i>nero.</i>
Guticia: <i>deseo.</i>	Istua: <i>saliva.</i>
Icara: <i>miedo.</i>	Itaitu: <i>segar.</i>
Icaracoia: <i>medroso.</i>	Itsusia: <i>feo.</i>
Icaratu: <i>amedrentar.</i>	Itza: <i>palabra.</i>
Icengoitia: <i>apodo.</i>	Itzala: <i>sombra.</i>
Ichi: <i>cerrar.</i>	Itzontcia: <i>hablador.</i>
Ichoron: <i>aguardar.</i>	Izan: <i>ser, tener.</i>
	Iztcuntza: <i>lenguaje.</i>
	Izpia: <i>piltrafa.</i>
	Izugarría: <i>espantoso.</i>
	Jachi: <i>bajar.</i>

Jaio: <i>nacer.</i>	Loia: <i>lodo.</i>
Jaiqui: <i>levantarse.</i>	Lotia: <i>dormilón.</i>
Jantci: <i>vestir.</i>	Lotsa: <i>vergüenza.</i>
Jaquia: <i>manjar.</i>	Lucainca: <i>longaniza.</i>
Jardun: <i>ocuparse.</i>	Iurriña: <i>vapor, vaho.</i>
Jario: <i>derramarse.</i>	Macurra: <i>arqueado.</i>
Jaso: <i>levantar.</i>	Macurtu: <i>agacharse.</i>
Jatecoa: <i>pan.</i>	Madaria: <i>pera.</i>
Jatorria: <i>descendencia.</i>	Madaricatua: <i>maldito.</i>
Jaureguia: <i>palacio.</i>	Maia: <i>mesa.</i>
Jiratu: <i>volver.</i>	Maira: <i>artesa.</i>
Jo: <i>sacudir.</i>	Maitea: <i>querido.</i>
Joia: <i>galán.</i>	Maiz: <i>a menudo.</i>
Jorratu: <i>escardar.</i>	Majadera: <i>pesebre.</i>
Laborria: <i>temblor.</i>	Maingutu: <i>cojear.</i>
Lambroa: <i>bruma.</i>	Mamia: <i>carne sin hueso.</i>
Laia: <i>instrumento arato-</i>	Mantendu: <i>mantener.</i>
<i>rio.</i>	Maquilla: <i>palo.</i>
Lana: <i>trabajo, labor.</i>	Marranga: <i>ronquera.</i>
Landa: <i>campo.</i>	Mardula: <i>mantecoso.</i>
Lapurra: <i>ladrón.</i>	Marmar: <i>murmullo.</i>
Lapurreta: <i>robo.</i>	Marrubia: <i>fresa.</i>
Laratza: <i>llares.</i>	Masalla: <i>carrillo.</i>
Larra: <i>zarza.</i>	Mascorra: <i>concha.</i>
Larrea: <i>pasto.</i>	Masustarbola: <i>morera.</i>
Larritu: <i>sobresaltarse.</i>	Mea: <i>delgado.</i>
Lasaia: <i>flojo.</i>	Mesede: <i>merced.</i>
Laster: <i>pronto.</i>	Mendea: <i>vasallage.</i>
Latza: <i>nervudo, vigo-</i>	Miaua: <i>maullido.</i>
<i>roso.</i>	Milliscatu: <i>lamer.</i>
Laztana: <i>abrazo.</i>	Mintzatu: <i>hablar.</i>
Lecua: <i>lugar.</i>	Mistoa: <i>aguijón de abeja,</i>
Leioa: <i>ventana.</i>	<i>víbora, etc.</i>
Lembailen: <i>cuanto antes.</i>	Mocanesa: <i>pañuelo.</i>
Lepandea: <i>collar.</i>	Moiztu: <i>cortar.</i>
Lepoa: <i>pescuezo.</i>	Molorria: <i>acanto hierba.</i>
Lertu: <i>reventarse.</i>	Moredina: <i>jacinto, flor.</i>
Limurtu: <i>inclinarse.</i>	Morroia: <i>criado.</i>
Liraña: <i>torneado.</i>	Moscorra: <i>borracho.</i>
Lirdia: <i>baba.</i>	Mota: <i>clase, casta.</i>
Locarria: <i>cinta.</i>	Muchina: <i>enfadado.</i>

Munoa: <i>colina.</i>	Oria: <i>amarillo.</i>
Musquilla: <i>renuevo de árbol.</i>	Oreña, Oriña: <i>gamo.</i>
Mutil, Muticoa: <i>mucha-cho.</i>	Oro: <i>todo, cada.</i>
Muturra: <i>hocico.</i>	Oroitu: <i>acordarse.</i>
Nabarbena: <i>goloso.</i>	Oirria: <i>hoja.</i>
Nausia: <i>amo, dueño de casa.</i>	Orroa, Orrua: <i>rugido.</i>
Nai: <i>querer.</i>	Ortelanoa: <i>jardinero.</i>
Naia: <i>voluntad, querer.</i>	Osasuna: <i>salud.</i>
Naicoa: <i>cuanto se quiere.</i>	Ostoa: <i>hoja.</i>
Narra: <i>tonto.</i>	Ostu: <i>robar.</i>
Nastu: <i>mezclar.</i>	Otadia: <i>argomal.</i>
Necatu: <i>cansar, fatigar.</i>	Otarrea: <i>cesta.</i>
Nequea: <i>fatiga.</i>	Ote: <i>por ventura.</i>
Nerequico: <i>para mí.</i>	Otea: <i>argoma.</i>
Nescacha: <i>muchacha.</i>	Otoitza: <i>oración.</i>
Nescamea: <i>criada.</i>	Pacia: <i>caldera.</i>
Oa, Oaquit: <i>vete.</i>	Padera: <i>sartén.</i>
Oartu: <i>caer en cuenta.</i>	Parea: <i>pareja, igual.</i>
Odoia: <i>nube.</i>	Patua: <i>hado, suerte.</i>
Oea, Oia: <i>cama.</i>	Pecatua: <i>pecado.</i>
Oi: <i>soler.</i>	Perilla: <i>peligro.</i>
Oitu: <i>acostumbrar.</i>	Fertza: <i>caldera.</i>
Oitura: <i>costumbre.</i>	Pijoa: <i>guapo.</i>
Ojua: <i>grito.</i>	Pisa: <i>orina.</i>
Ola: <i>tabla, oficina, ferre- ría.</i>	Pisca: <i>poco.</i>
Omen: <i>dicen.</i>	Pis egin: <i>mear.</i>
Ondoren: <i>después de.</i>	Piztia: <i>animal dañino.</i>
Onen: <i>que.</i>	Pocho: <i>nombre que por cariño se da a varios animales.</i>
Onen ederra!: <i>¡Qué her- mosol</i>	Foliqui, Poliquicho: <i>po- co a poco.</i>
Oncia: <i>barco, vaso.</i>	Folita: <i>pulido, bonito.</i>
Oña: <i>pie.</i>	Fotza: <i>dejado, abando- nado.</i>
Opa izan: <i>desear.</i>	Foza: <i>gozo.</i>
Oquerra: <i>torcido tuerto, entuerto.</i>	Pozoitu: <i>envenenar.</i>
Ordea: <i>pero.</i>	Poztu: <i>alegrarse.</i>
Ordua: <i>hora.</i>	Premia: <i>necesidad.</i>
	Presas: <i>prisa.</i>
	Prest: <i>pronto.</i>

- Pusca: *pedazo*.
 Puscatu: *hacer pedazos*.
 Quemena: *vigor*.
 Quendu: *quitar*.
 Quezca: *inquietud*.
 Quioa: *pepita*.
 Quirtena: *mango*.
 Sagua: *ratoncillo*.
 Saietsa: *costado*.
 Samurra: *tierno*.
 Saquela: *bolsa*.
 Sarea: *red*.
 Saria: *pago*.
 Sartu: *entrar*.
 Saiatu: *ensayarse*.
 Sasia: *zarza*.
 Sasquia: *cesta*.
 Seculan: *jamás*.
 Segur: *seguro*.
 Seia: *serviente*.
 Sendatu: *curar*.
 Sendoa: *fuerte*.
 Seña, Siñua: *seña*.
 Soña: *vestido*.
 Soñua: *sonido, ruido*.
 Sorta: *fajo*.
 Sortu: *inventar*.
 Sucalde: *cocina*.
 Sustraia: *raíz*.
 Suteguaia: *fragua*.
 Taloa: *torta de maíz*.
 Tanta: *gota*.
 Tapatu: *cubrir*.
 Tema: *apuesta*.
 Tetuan: *tierra de monos*.
 Tiruztaia: *arco, aro*.
 Titia: *ubre*.
 Tontorra: *punta*.
 Topo eguin: *topar, en-*
 contrarse.
 Toquia: *paraje*.
 Tripazaia: *glotón*.
- Ucatu: *negar*.
 Ucallua: *caballeriza, cua-*
 dra.
 Udaberria: *primavera*.
 Udazquena: *otoño*.
 Ugaria: *abundante*.
 Ugüitu: *hastiar*.
 Ujola: *riada, avenida*.
 Umacia: *cerda que ha*
 criado.
 Umea: *cría, hijo*.
 Umedun: *cargada*.
 Uquitu: *tocar*.
 Urbildu: *acercarse*.
 Urcatu: *ahorcar*.
 Urdaia: *tocino*.
 Urdaiazpia: *jamón*.
 Urdalla: *estómago*.
 Urguna: *cojo*.
 Urricaria, Urriquigarria:
 digno de compasión.
 Urriqutu: *compadecerse*.
 Urrunga: *arrullo*.
 Ustea, Uste izan: *pare-*
 cer, aguardar.
 Zakurra: *perro*.
 Zaldia: *caballo*.
 Zalduna: *caballero*.
 Zalea: *aficionado*.
 Zama: *carga*.
 Zamatu: *cargar*.
 Zanga: *latido*.
 Zañac: *raíces*.
 Zarpazarra: *andrajoso*.
 Zauria: *herida*.
 Zoria: *suerte*.
 Zorrotza: *agudo*.
 Zuartza, Zuraritzza: *árbol*
 bravo.
 Zuzena: *derecho, recto*.
 Zurrunga: *ronquido*.
 Zut: *derecho, recto*.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBA!, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUNA DETAN.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: RAMUNTXXO (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: GALTZAUNDI.
8. *A. Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *B. Iraola*: OROITZAK.
10. ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: BORDAXURI (*Aitua*).
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. *M. Izeta*: DIRUA GALGARRI.
14. *P. Larzabal*: IRU ZIREN.
15. EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *A. M.^a Zabala*: GABON GAU BAT.
17. *A. M.^a Labayen*: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. *A. Zavala*: TXIRRITA. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: LURDESKO GERTAERAK.
21. *P. Larzabal*: HERRIKO BOZAK.
22. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK.
24. *F. Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOLASAK.
26. *A. M.^o Zabala, A. Larraitz, Mir*: PERIYAREN ZALAPARTAK.
27. AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. *B. A. Moguel*: IPUI ONAK.
29. *T. Alzaga*: BURRUNTZIYA.
30. *G. Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *M. Elicegui, A. Zavala*: PELLO ERROTAREN BIZITZA.

33. *M. Elicegui, A. Zavala*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *P. Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *A. Cardaberaz*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
38. *S. Salaverría*: NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. AMAR URTEKO BERTSO-PAPERAK.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. BERTSOLARI-TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: BORDEL BERTSULARIA.
47. *P. M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munihe*: TEATRO ZAARRA.
- 49-50. *A. Zavala*: PELLO ERROTAREN ITZALA.
51. *P. M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
- 52-53. *G. Anduaga*: BERTSO-BILDUMA.
54. *A. Zavala*: PERNANDO AMEZKETARRA BERTSOLARIA.
55. *Basarri*: LAUGARREN TXINPARTAK.
56. *A. Zavala*: UDARREGI BERTSOLARIA.
- 57-58. *C. Beobide*: ASIS'KO LOREA.
59. *A. Zavala*: AXENTXIO TXANKA BERTSOLARIA.
60. *A. Zavala*: ERRIKOTXIA, ITXASPE ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: GAZTELU BERTSOLARIA.
62. *A. Zavala*: ZARAUTZ'KO ZALDUBI BERTSOLARIA.
- 63-64. *A. Zavala*: JUAN ETA PELLO ZABALETA BERTSOLARIAK.
65. *J.M. Satrústegui*: LUZAIDE'KO KANTIAK.
66. *A. Zavala*: IRU BERTSOLARI.
67. BERTSOLARI TXAPELKETA (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala*: ALZO'KO IMAZ BERTSOLARIA.
- 71-72. *A. Iturriaga*: IPUIAK.

